

# 40 URTEAN EUSKAL GIZARTEAN ERAGITEN

HEZKUNTZA  
KOMUNIKAZIOA  
KOOPERATIBISMOA  
KULTURA  
EUSKARA



**Mondragon  
Unibertsitatea**

**Humanitate eta  
Hezkuntza Zientzien  
Fakultatea**

---

ARGITARATZAILEA: Mondragon Unibertsitatea Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea LAGUNTZAILEA: Gipuzkoako Foru Aldundia  
ERREDAKZIOA: Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Dorleta auzoa z/g - 20540 Eskoriatza Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032  
biblioteka.huhezi@mondragon.edu ERREDAKZIO KONTSEILUA: Oxel Azkarate, Goio Arana, Jose Ramon Vitoria eta Iñigo Ramirez de Okariz  
EUSKARA ZUZENTZAILEA: Itziar Otegi DISEINUA: Alex Azkarate INPRIMATEGIA: Gertu inprimategia L.G.: SS-981/92 - ISSN 1697-6215





## AURKEZPENA

**2016-2017** ikasturtean 40 urte bete ditu sortu zenetik garai bateko Irakasle Eskolak edota gaurko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, HUHEZIK. Aitzakia ona iruditu zaigu hainbat jarduera antolatzeko, eta, bide batez, erakunde honi atxikita ibilitako eragileak ere elkartzeko.

Iraganari erreparatu diogu, batez ere, ospakizunetan, baina etorkizunari uko egin gabe. Eta, azken egitasmo honekin diseinatu dugu, gainera, *Jakingarriak* aldizkariaren 76. zenbakia. Berezia da, izan ere gaur egun egiten ari garenaren erradiografia bat eskaini nahi izan diegulako hezkuntza eta ikus entzunezko komunikazio eremuetan dihardutenei. Baina berezia ere bada aldizkariaren hitzaurrean dekanoren idatzitako hitzak erabiliz, "gure jakintzaren bilkuraren aztarna delako. Eta, ez hori bakarrik, gure jakin-minaren, eskuzabaltasunaren, ametsen eta ilusioen isla ere badelako".

Ez diogu uko egin, ordea, aldizkariaren bere egitura tradizionalari, eta ohiko atalak irakurtzeko aukera izango dugu. Laburbilduz, hauexek dira:

**Agurrak eta hitzaurrea (k).** Atal honetan, dekanok nahiz *Jakingarriak* aldizkariaren sortzailetako batek adieraziko digute zein izan den 1985ean sortu eta gaur arte aldizkariak egindako ekarpena.

**Liburuen iruzkinak.** Gaur egun hezkuntza nahiz ikus-entzunezko komunikazioan interesgarriak izan litezkeen lau libururen iruzkinak, irakurgai.

**IE-HUHEZI, 40 urte.** Atal berezia izango da, erakundearen 40. urteurrena ospatzen dugula aprobetxatuz. Erakundeak egindako ibilbidearen mugarriak goraiatzeaz gain, 2016-2017 ikasturtean zehar egindako ekitaldi nabarmenak ere azalduko dira. Bukatzeko, pasa den maiatzaren 17an, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen 40. urteurrenaren harira, eta Richard Gerver hezkuntzan aditua etorri zela Arrasatera aprobetxatuz, Amaia antzokian, 750 lagunengoa aurrean, hezkuntzaren iraganari, orainari eta, bereziki, etorkizunari buruz emandako elkarrizketa bat eskainiko dugu.

Aldizkariaren ardatza izango da HUHEZIK une honetan bere ikerketa estrategikoen nondik norakoen ezaugarriak adierazten dituen **hamar artikulua**. Hauexek: (1) Haur hezkuntzara begira Hazitegik eskaintzen diguna; (2) ikasleen kultura eta hizkuntza identitatearen inguruan hautematen den bilakaeraren inguruan; (3) erronketan oinarritutako ikaskuntza Haur hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako gradu erdi presentzialetan; (4) hezkuntza mediatikoa: Lehen hezkuntza, Haur hezkuntza eta Ikus-entzunezko komunikazio graduetan; (5) erronketan oinarritutako ikaskuntza: HUHEZIKo Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasle eta irakasleen ahotsak; (6) irakasleen prestakuntzarako espazio partekatuen bila; (7) eskola hezitzaileak: haurrengan zentratutako ikaste testuinguruak eta garapen prozesuak aztertzen; (8) HEZIKOOP, hezkuntza eredu kooperatibo bat eraikitzen; (9) LANKI, eta, bukatzeko, (10) ADI proiektuak.

Hala ere, ez gara konformatuko gaur egun egiten ari garenarekin, harantzago joan nahi dugu gure egitasmo eta ikerketekin, eta etor dakizkigukeenak ere aurreikusi nahi ditugu, eta horretarako, atal berri bat diseinatu dugu ale honetarako: **Hemendik aurrera, zer?**

Bukatzeko, lankide ohiak izan diren Maite Garcia eta Marisa Pagonabarraga goraiatu nahi ditugu, eta lerro hauen bidez adierazi beti izango zaituzteguna gogoan.

ERREDAKZIO KONTSEILUA: GOIO ARANA, OXEL AZKARATE, IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ ETA JOSE RAMON VITORIA.



Hezkuntzaren arloan gaueko izarra apalki iradokiz non jarri iparra. Latza gertatu zaigu agurtu beharra agur, lankide maite, oroimenugarria gurekin gelditzen da zure irrifarra.



Arreta zoli eta gozotasun jori lan maratza eskaini diguzu askori. Joan zara, Marisa, enara iduri. Ez zaigu gutartean ahaztuko inori zure begi argien begiratu hori.

# aurkibidea

## AURKEZPENA 03

□ GOIO ARANA, OXEL AZKARATE, IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ  
ETA JOSE RAMON VITORIA

## AGURRA 06

□ BEGOÑA PEDROSA

## HITZAURREA 07

□ NEREA ALZOLA

## LIBURUEN IRUZKINAK 08

□ NEREA ALZOLA

## 40 URTEAN EUSKAL GIZARTEAN ERAGITEN 12

□ IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

## RICHARD GERVER ELKARRIZKETA 16

□ MAITE TXINTXURRETA

## HAZITEGI 22

□ ALEXANDER BARANDIARAN, IÑAKI LARREA, EIDER SALEGI,  
ITZIAR ARREGI ETA NAIARA ZIA

## HUHEZIKO IKASLEEN KULTUR ETA HIZKUNTZ IDENTITATEEN BILAKAERAREN AZTERKETA: ERAGITEKO GAKOAK 26

□ JULEN AREXOLALEIBA, NEKANE ARRATIBEL, LETICIA GARCÍA,  
NEKANE GOIKOETXEA, JOXPI IRASTORTZA, ASIER IRIZAR,  
AINHOA ODRIÓZOLA, IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ  
ETA IÑAKI URRUZOLA

## ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADU ERDI PRESENTZIALETAN 30

□ NAGORE IPIÑA ETA JONE RODRIGUEZ

## HEZKUNTZA MEDIATIKOA: LEHEN HEZKUNTZA, HAUR HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUETAN ELKARLANEAN 36

□ ANDER BOLIBAR, MAITE GARCIA ETA TXEMA EGAÑA

**ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA:  
HUHEZIKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO  
GRADUKO IKASLE ETA IRAKASLEEN AHOTSAK** 40

□ MAITE GARCÍA, SIRATS SANTA CRUZ ETA ANDRES GOSTIN

**IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO  
ESPazio PARTEKATUEN BILA** 44

□ AGURTZANE MARTINEZ, NAGORE IÑURRATEGI ETA NEREA AGIRRE

**ESKOLA HEZITZAILEAK: HAURRENGAN  
ZENTRATUTAKO IKASTE TESTUINGURUAK  
ETA GARAPEN PROZESUAK AZTERTZEN** 48

□ IDURRE GAZTAÑAZATORRE, XABIER ARREGI  
ETA AGURTZANE MARTINEZ

**HEZIKOOP: HEZKUNTZA EREDU KOOPERATIBO  
BAT ERAIKITZEN** 52

□ JOSE RAMON VITORIA, AINARA ARTETXE ETA OXEL AZKARATE

**LANKI, KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIA** 56

□ LEIRE URIARTE, ION LEZETA, ARIANNE KAREAGA,  
MIRENE ZUFIAURRE, AITZOL LOYOLA, IGOR ORTEGA,  
ARITZ KANPANDEGI, IBAN GALLETEBEITIA, ENERITZ PAGALDAY,  
ANDONI EIZAGIRRE ETA AINARA UDAONDO

**ADI PROIEKTUA: NOLA ERANTZUN ESKOLAN  
ANIZTASUN SOZIOEKONOMIKO, KULTURAL  
ETA LINGUISTIKOARI?** 60

□ PILAR SAGASTA, ENERITZ GARRO, KARMELE PEREZ  
ETA AMELIA BARQUIN

**HEMENDIK AURRERA ZER?** 64



## AGURRA

**B**ide oparoa egin dugu.

Esku artean duzun *Jakingarriak* berezi hau gure jakintzaren emaitza da. Eta, ez hori bakarrik, gure jakin-min, eskuzabaltasun, amets eta ilusioen isla ere badela uste dugu.

Sortze egunetik beretik, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen, HUHEZlren, jardun garrantzitsuenetariko bat izan da ezagutza garatzea eta jendarteratzea. Betebehar horretan, funtsezkoa izan da denon konpromisoa. Uste dugu horren erakusgarri ere badela 1985ean jaiotako *Jakingarriak* aldizkari honen ibilbide luze eta oparoa.

Irakurtzen ari zaren 76. zenbaki honek ederki erakusten du zenbat lan, gogo eta indar jarri dugun gure fakultatean azkenengo –edo *hasierako* esan beharko genuke?– 40 urte hauetan. Uste dugu orri hauek agerian uzten dutela HUHEZlko komunitatearen inplikazioa, sormena, jakintzaren garapen sendoa eta eskuzabaltasuna.

Lerro hauen bitartez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu lagun askori. Hasteko, ale honetarako artikulua idatzi eta bestelako ekarpenak egin dituzten guztiei. Bestetik, eskerrak eman nahi dizkizuegu urte hauetan guztietan jarraitzaile eta irakurle izan zireten guztioi. Gainera, esker bereziak eman nahi dizkiogu Nerea Alzolari, bera izan zelako argitalpen honen sortzailea eta, ordutik, arima eta bultzatzaile nagusia.

Aurten, 40 urte bete ditu Eskoriatzako Irakasle Eskolak / Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak. Modu batera edo bestera komunitatearen parte izan zireten guztioi ere eskerrik asko!

Jarrai dezagun hazten eta konpartitzen; jarrai dezagun guneak sortzen eta sustatzen, ondokoak entzuteko eta iritziak partekatzeko; jarrai dezagun Euskal Herriko txoko guztietara heltzen eta hezkuntza komunitatea sendotzen.

## BEGOÑA PEDROSA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko dekanoa



## HITZAURREA

**E**skoriatzako HUHEZIK (Irakasle Eskola, 1997. urtera arte) bokazio kooperatiboa eta publikoa izan du eta du. Gure esperientzia eta jakintza konpartitu ditugu, eta gure atea beti egon dira zabalik. Huheziko bulegoetatik, geletatik eta liburutegetik ehunka pertsona pasatu dira, eta saiatu gara harrera ona eskaintzen, gure eskarmentua eta dokumentazioa konpartituz.

Espiritu horrekin, 1985ean, Jesus Garmendiaren oniritziarekin, Mariam Bilbatuak eta biok Dokumentazio Zentroa sortu genuen, bildutako dokumentu, material didaktiko eta esperientzien adierazleak zabaltzeko asmoz.

Asmo horrekin sortu genuen *Jakingarriak* aldizkaria, Iñaki Mendiguren Bereziartuk «asmatutako» izenarekin.

Oso apal hasi ginen, eta lehenengo zenbakiak atal hauek zituzten: azken aldizkariaren artean hautaturiko artikuluren batzuk eta liburu batzuen zerrendak; gai monografiko bati buruzko (irakurketa eta idazketa izan zen estreinakoa) informazio bibliografikoa eta Dokumentazio Zentroak eskaintzen zituen material berriak.

1989. urtean, *Jakingarriak*-ek inprimategira jauzi egin, eta buletina aldizkari bihurtzen hasi ginen, Resu Abasolo euskara teknikariaren laguntzarekin. Aldizkariaren edukiak aberastu, eta eskoletako esperientziak argitaratzeari ekin genion. Azala, urteetan, Bea Arregik diseinatu zuen.

1991ko udazkenean, Dokumentazio Zentroak eta *Jakingarriak*-ek dimentsio nahiko handia hartu zuten, eta Marikarmen Apraiz ikasle ohia gurekin lanean hasi zen. Haren esku utzi genituen zenbait idazkaritza lan, eta esan behar da haren laguntzarik gabe zaila izango litzatekeela gaur egun *Jakingarriak* bizirik ikustea.

1993. urtean, 24/25 zenbakia argitaratu zen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzarekin. Horri esker, gai izan gara ale bana doan banatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eskola guztietan eta hainbat hezkuntza erakundetan.

*Jakingarriak* aldizkariak 76 ale atera ditu. Informazio ugaria eman (aldizkariaren hustuketak, liburuen iruzkinak, bibliografiak), eta, ehunka artikulutan, eskoletako esperientziak, artikulatu teorikoak edota hausnarketa pedagogikoak jaso eta zabaldu ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola guztietara heldu da aldizkaria, eta hainbat irakurle izan ditu eskola, liburutegi eta euskaltegietan.

*Jakingarriak* aldizkaria bizi izan da eta bizi da hainbat profesionalen laguntzari esker: aldizkariak azken urteetan izan dituen zuzendariei (Elena López de Arana eta Larraitx Ariznabarreta), erredakzio kontseiluan kolaboratzaile izan direnei, artikuluen egile, itzultzaile, euskara zuzentzaile, diseinatzaile eta hainbat irakurle fideltasunari esker, bide luzea eta aberatsa egin du aldizkariak. Denoi, bihotzez, esker beroenak.

Eta *Jakingarriak* aldizkariak omenaldi xumea egin nahi die Maite Garciari eta Marisa Pagonabarragari, biak egon baitira presente aldizkariaren ibilbidean, erredakzio kontseiluan eta maketazio lanetan.


Hainbat dokumentazio pedagogiko baliagarri argitaratu dugu euskaraz, eta jakintza euskaraz eraikitzen joan gara, beti dibulgazio erregistroa erabiliz. Konbentziturik gaude gure ekarpen xumeak garrantzi handia izan duela gure euskal hezkuntza komunitatean.

Eta aurrera begira Huhezin aldizkariaren ardura hartuko dutenei gure animo handia. Proiektuan izan dugun eta daukagun konfiantza transmititu nahiko genieke.

## NEREA ALZOLA



# Liburuen iruzkinak



## LA GENERACIÓN APP. CÓMO LOS JÓVENES GESTIONAN SU IDENTIDAD, SU PRIVACIDAD Y SU IMAGINACIÓN EN EL MUNDO DIGITAL

GARDNER, H. ETA DAVIS, K. (2014).

Itzultzailea: Bartzelbna

**NAGORE IPIÑA** ▶ Belaunaldien arteko elkarrizketa bat da eskuartean dugun liburuaren oinarria. Esperientzia pertsonalak, ikerketak eta hausnarketak gurutzatuz, belaunaldien arteko aldatetak batu dituzte autoreek liburuan. Beren tesia hasieratik aurkezten dute: gaur egungo gazteek aplikazio multzo bat balitz bezala ulertzen dute mundua, *SuperAPP* bat balitz bezala. Ildo horretatik, *APPdependentzia* eta *APPkapazitatea* terminoak erabiliz garatu dute beren tesia. *APPdependentzia* sortzen da aplikazioek identitatea difuminatzen dutenean, azaleko harremanak garatzen dituztenean eta sormena eteten dutenean. *APPkapazitatea*, berriz, norberaren xedeak eta sormena areagotzeko aplikazioak erabiltzeko gaitasuna da. Horrela, autoreen ustez, gero eta gazte gehiagok sufritzen dute *APPdependentzia*, eta ez daude, ondorioz, *APPkapazitateak*.

Bereziki gaur egungo belaunaldiaren hiru aspektu lantzen dira liburuan: identitatea, intimitatea eta imajinazioa. Identitateari


buruz diote gero eta identitate aurrefabrikatuagoko gazteak ditugula; norberaren buruarekin elkarrizketarik ez duen belaunaldia dela *APP belaunaldia*, eta ez duela patxadazko hausnarketarik egiten. Egozentrismorantz eta nartzisismorantz mugitzen den belaunaldi bat sortzen ari da autoreen usteetan, sarean etengabe konektatuta baina pantaila atzean gordeta bizi dena. Ondorioz, identitate pobretuak garatzeko arriskua duen belaunaldia da *APP belaunaldia*.

Intimitateari dagokionez, aplikazioek norbaiten ondoan egotearen esanahia birdefinitu dutela aipatzen da liburuan. Autoreen hitzetan, teknologiek ematen dizkiguten aukera batzuk *Nartzisoaren tranpaz* beteta daude: bideokonferentziaz aritzean, adibidez, pertsona bati begietara begiratu nahi badiogu, beraren begietara ez, baizik eta kamerara begiratu behar dugu. Gainera, begiak beherantz mugitzen ditugu askotan; gure irudia agertzen den laukitxora, hain zuzen ere. Familia ereduak ere aldatzen ari dela aipatzen da liburuan; familia-kideek denbora gehiago pasatzen omen dute aparatu elektronikoen elkarrekintzan familiarakoekin baino. Harremana, ondorioz, ez da intimoa.

Imajinazioari buruz diote teknologiek adierazpen sortzailearen agertokiak aldatu dituztela. Arte bisuala gero eta berritzaileagoa bada ere, adierazten da idatzizko kultura gero eta ohikoagoa dela. Internet aurrefabrikatutako inspirazioz betea dago, eta *APP belaunaldiak* nahiago du haietatik abiatu ideia propioak sortu baino. Liburuaren ondorioetan, indar handiko galderak planteatzen dituzte autoreek, pentsatzeko parada eskatzen dutenak: Zein da aplikazioen helburua? Gauza garrantzitsuen automatizazioa ala gauza garrantzitsuetan fokatzeko bidea garbitzea?

Liburua ere bada *APP belaunaldiari* egindako dei bat: *APPdependentzia*tik aldentzekoa, hain zuzen ere. Beren identitatea garatzen duten bitartean mundu digitaletik urruntzeko eskatzen diete, intimitate maila eta forma ezberdinak lortzeko eta aurreikusitako gabeko lerro sortzaile berriak zabaltzeko. Teknologiaren eta psikologiaren arteko harremana modu ulergarri batean aurkezten du liburuak; ukitu filosofikoak dituen elkarrizketa polit bat. *APP belaunaldiarentzat* zein haiekin egunero gurutzatzen den edonorentzat idatzitako liburua.





## DEMOCRACIA Y EDUCACIÓN. UNA INTRODUCCIÓN A LA FILOSOFÍA DE LA EDUCACIÓN

DEWEY, J.

*Ed. Morata; Madrid*

**AGURTZANE MARTINEZ** ► Democracia y educación liburua hezkuntzaren filosofiari sarrera ematen dion klasiko bat da. Ipar Amerikako Dewey soziologoak hainbat argudio jartzen dizkigu mahai gainean, hezkuntzak izan beharko lituzkeen helburu eta funtzioen inguruan hausnarketa egiteko, eta oso gomendagarria da eskolak gizartearekiko dituen erroka sozial horien inguruan kritikoki hausnartzeaz gain konprometitu nahi duen edozein profesionalentzat.

Egun, euskal gizartearen garapenerako hezkuntza sistemak dituen funtzioen inguruan planteamendu desberdinak defendatzen dituzten hainbat ahots azaldu dira.

Alde batetik, ikuspegi neoliberalista batetik begiratzen dutenek, hau da, sistema sozioekonomikoaren erreprodukzio funtzioa ardatz dutenek, aipatzen dute gure hezkuntzak «giza kapitala» hezi behar duela XXI. mendean izango ditugun behar produktiboak ase ahal izateko.

Bestetik, baditugu hezkuntza sistemak hezkuntza aske eta demokratikoa bultzatu behar duela aldarrikatzen dutenak, hezkuntza eskubideetan oinarritu eta ongizatera bideratutako hezkuntza politikak behar ditugula diotenak. Alde horretatik, liburu honetan, Deweyren hausnarketek bigarren ideia horrekin bat egiten dute. Berarentzat, gizarte demokratiko batean, herritarren formakuntzarako eta gizartean parte hartzeko tresna bat da hezkuntza, gizartea eraldatzeko bidea erakusten duena.

Merezi du Deweyren testua gaur egun hezkuntzan ditugun eztabaiden argitan berrikustea, hezkuntzaren norabidea argitzeko gako batzuk ematen dituen heinean.

Dewey hezkuntzaren funtzio sozialaz mintzo da, helburu argi batekin: gizarte mailen arteko diferentziak ezabatzea eta pertsona guztioi protagonismo eta aukera berdinak ematen dizkigun hezkuntza bat garatzea. Aldarrikapen horri bidea egiteko, ordura arte ezagutzaren teoriak planteatzen zuen dualismoa (pentsamendua-ekintza) gainditu, eta «esperientzia» birdefinitzen du.

Esperientziak gizakiaren eta haren ingurune fisiko eta sozialaren elkarrenergina ezaugarritzen du. Gizakiak, arazoan aurrean dagoenean, irtenbideak bilatzen ditu, pentsamenduaren bidez, eta horrek egoeraz ikasteko aukera ematen dio, betiere gertatutakoak kontziente denean.

Esperientzia kontzeptu horretan oinarrituta, hezkuntzaren esanahian sakontzeaz gain norabidea zehaztea, helburuak azaltzea, edukiez berba egitea, demokrazia kontzeptuarekin lotzea eta eskolaren zeregina zehaztea da liburuaren xedea. Deweyren lan guztian zehar, «esperientzia» kontzeptua gako bat da demokraziaren eta hezkuntzaren arteko harremanak ulertu ahal izateko.

Haren hitzetan, alde batetik, hezkuntza testuinguruak «benetako esperientziak» eskaini behar ditu, eta, horrelakoak izateko, pentsamendua sustatzeko beharra dago. Horretarako erabili beharreko metodoa deskribatu, eta argi uzten du esperientziak ez direla bakarkakoak eta, garapen intelektual oro prozesu sozial bat denez, partaidetzarekin guztiz lotuta dagoela.

Beste alde batetik, komunitate batek hezkuntzaren beharra du bizirik irauteko: bizitzarako behar bat da hezkuntza. Komunitatearen helburuak, balioak eta sinesmenak esperientzia kolektiboetako parte hartzeari esker transmititzen dira, eta, demokrazian, edozein praktika sozialek kide guztien garapena elikatu behar dute, komunitate zentzua garatzeko. Deweyren ustez, ordezkarietako demokraziak ez dakar komunitatea sortzea, ez baitu bermatzen helburu eta interes komunetan parte hartzea. Hori horrela ulertuta, eskola eraldatu behar da, erakunde kooperatibo eta ikertzaile bihurtu, «ikerketakomunitate» bihurtu. Demokrazia garatzeko, beharrezkoa da denok parte hartzea egituretan, eta ez bakarrik instrukzio ekintzetan. Egilearen ustez, demokraziarako hezkuntzan, umearentzat eskola bizitza-leku bat da, gizarte txiki bat non umea talde kidea den eta bere ekarpenak egiten dituen.

Azken finean, Deweyren pentsamendua ideia hau transmititzen du: hezkuntzak demokraziaren praktika argitu dezake, eta praktika demokratikoez hezkuntza testuinguruak hobetu.

Ehun urte baino gehiago dute egilearen ideiek, eta oraindik ere badute gaurkotasuna: oraindik ere iturri egokia da horretatik edateko eta gure hezkuntza sistema eta gizartea eraldatzeko.



## EBALUAZIOA HAUR HEZKUNTZAN: PARADIGMA ALDAKETA

BARANDIARAN, A. ETA LARREA, I. (2016).

*Hik Hasi - Xangorin.*

**IÑAKI LARREA** ► Hezkuntzan dihardugunon kezka nagusietako bat ebaluazio jardunari dagokio. Askotan ez daukagu irizpide argirik ebaluaziorako helburuak, objektuak, irizpideak, uneak edo moduak definitzeko, eta, izatekotan, zailtasunak ditugu praktikan gauzaterakoan. Kezka hori ardatz hartuta, Hik Hasi egitasmoaren 29. liburu monografikoan, gaia jorratu eta ebaluaziorako paradigma berri bat proposatzen dute egileek. Zehazki, Haur Hezkuntzako etaparako aldarrikatzen da haurraren oinarritutako ebaluaziotik eskaintzen zaion testuingurua arakatuko duen ebaluaziora igarotzea.

Aldarrikapen hori arrazoitzeko, lehenik eta behin, egileek, ebaluazioaren gainbegiratu historikoa abiapuntutzat hartu, eta Haur Hezkuntzako azken curriculumen errebisio kritikoa egin dute, modu horretan ebaluaziorako oztopoak identifikatzeko. Bigarrenik, ebaluazio ereduak eskola, pertsona eta haren garapena ulertzeko modua islatzen duela iritzita, egileek azaldutzen dute zer ikuspegi duten Haur Hezkuntza, haurra eta eskola ulertzeko, proposatutako ebaluazio paradigma berriaren abiapuntu gisa. Ildo horretatik, haurrak berez dauzkan gaitasunak aldarrikatzen dituzte, baina azpimarratzen dute, halaber, haurren testuingurua gako dela gaitasun horien garapenerako. Hain zuzen, Haur Hezkuntzaren egiteko nagusia litzateke hori, hau da, haur guztien gaitasunen garapen osasuntsua. Horregatik, haurraren testuinguruak izan dezakeen eragina azaldu eta gero, aditzera ematen dute zer baldintza izan behar lituzke Haur Hezkuntzako errealitateak garapen testuinguru ekologikotzat hartu ahal izateko. Baldintza horiek dira, hain zuzen, proposatutako paradigma berrirako ebaluazioaren xede. Testuinguru ekologikoaren ebaluazioa, gainera, praktikaren berrikuntzara iristeko abiapuntu gisa hartzen dute. Horren adibide da liburuaren amaieran Txintxirri ikastolan izandako ebaluazio esperientziaren kontakizuna. Kontakizun horretan, ebaluazio egitasmoa estuki lotzen da hezkuntza berrikuntzarekin.

Laburbilduz, liburuak ebaluazioaz hausnarketa egitera gonbidatzen du irakurlea. Bidean, haurraz, Haur Hezkuntzaz eta haurrari egiten zaion eskaintzaz gogoeta egiteko pizgarria ere bada *Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa* izenburu duen liburua. Paradigma horretatik, ebaluazioaz hausnartzea gako da norberaren praktika auzitan jartzeko eta, hortik abiatuta, hezkuntza berritzeko.



## PEQUEÑA TEOLOGÍA DE LA LENTITUD

TOLENTINO MENDOÇA, J. (2017).

*Fragmenta Editorial: Barcelona*

**NEREA ALZOLA** ► 2017ko udaberrian, Maite Garciak, geure lankideak, Bartzelonatik opari moduan ekarri zidan han aurkitu zuen titulu bat (Joan Domènech (2009). *Elogio de la educación lenta*. Barcelona: Graó). Liburu hori bazegoen gure liburutegian, baina aukera izan nuen berriz hartzeko eta Maiterekin hainbat gairi buruz mintzatzeko: ikaskuntza prozesuek denbora luzea behar dute; gogoetarako eta hausnarketarako sosegua hartu behar dugu; denboran hezi behar dugu; *cronosean* eta *kairosean* ere bai; erritmo desberdinak errespetatu, etab. Biok kezkatuta geunden gure gizartearen presaren tranpekin, eta horrelako irakurketek berrespena eta kontsolamendua ematen ziguten.

Orain, Tolentinoren liburua irakurri, eta Domènech autorearen zenbait proposamenekin lotu ditut tratatzen dituen gaiak. Agian, publiko desberdinak irakurriko ditu liburu biak, baina gaiak eta gaien tratamenduak badute antza.

Idazleak lantzen dituen gaiak bizitza on bat izateko oinarritzko «jakintzak» dira, baina, autoreak dioten moduan, artea behar da haien minimoetara heltzeko. Gure ustez, bizitzeko sen ona eta hezitzaile onak izateko, oinarritzko jakinduria behar da: besteak beste, moteltasunaren artea, barkamenaren artea, esker onaren artea, zaintzaren artea, ezjakintasunaren artea, etab. Oinarritzko zentzuaz jantzitako jakintza da, baina ikaskuntza zaila gure gizarteetan.

Hamazazpi testu, hamazazpi gai. Oso testu laburrak, kondentsatuak, izugarri ederrak eta hainbat erreferentzia literario edo filosofikorekin aberastuak.

Adibide moduan ekartzen dugu autoreak aipatu eta guri asko gustatu zaigun testu bat, Etty Hillesum-ena: «*La grandeza del ser humano, su verdadera riqueza no está en lo que se ve, sino en lo que lleva en su corazón. La grandeza no radica en el puesto que ocupa [...] pues todo eso puede desaparecer en un instante. La grandeza está en lo que queda una vez extinguido lo que le confería brillo exterior. ¿Qué le queda? Su recursos íntimos y nada más*» (18. orr.).

Nolabait kontrakulturala da idazlearen proposamena, baina ari gara, astiro, deskubritzen jakinduriaren hainbat giltza. Eta, liburuan, autoreak nahi duena deskubrituko du irakurleak: intentsitatez bizi, bihotzarekin eta barne zentzumenekin kontentplatu, eta gure egunerokotasun xumea miretsi.





---

## 40 URTEAN EUSKAL GIZARTEAN ERAGITEN

---

► IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

40 urtean zehar garai bateko Irakasle Eskolak eta gaurko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak euskal gizarteari egindako ekarpenari zertzelada batzuk eskaintzea du helburutzat idatzi honek. Eta ez da erronka makala, lau hamarkadako esperientzia pare bat orritan adieraztea ez baita erraza.

Bi galderari erantzun nahian hasi nahiko nuke ibilbide nostalgiko hau: nondik gatoz?, nora goaz?. Izan ere, gizakiok, gizaki garenetik, halako galderak egin dizkiogu geure buruari. Erantzunak denetarikoak izan dira, batzuk mistikoak, beste batzuk magikoak edo erlijio kutsukoak, eta gaur, berriz, filosofiaren nahiz diziiplina zientifiko askoren bidetik, esan genezake galdera horiei erantzuteko moduan garelara.

Galdera horiei, baina, beste bat gehitu nahi nieke, ez horregatik bigarren mailakoa: non gaude?, hain zuzen ere.

Has gaitezen, bada. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan dena egiteko zegoen garai batetik gatoz. Baina, aldi berean, baita 1970eko hamarkadan euskararen eta euskal kulturaren alde lanean ari zen gizarte mugimendutik ere.

Testuinguru horretan kokatu beharko genuke, bada, Debagoiena bailaran irakasle ikasketak egiteko gizatalde baten egitasmoa, kontuan izanda garai hartan ikastolen sorrera ugaritzeak ere irakasleria euskalduna izateko premia eskatzen zuela. Hala sortu zen Eskoriatzan, bada, Irakasle Eskola, inguruko kooperatibak ere lagun zituela.

Hala ere, urrutira jo behar izan genuen babes akademiko bila: Salamancaraino. Izan ere, Salamancako Eliz Unibertsitateak maristen Luis Vives Irakasle Eskolako sekzio bat bagina bezala hartu gintuen. Agian, orain zertxobait arraroa irudituko zaigu, Eskoriatzan kokatuta baikeunden, baina Salamancako babesarekin, edota beste era batean esanda: ikasle eta irakasleak Salamancako Unibertsitatekoak izango bagina bezala. Estatus horrekin hasi ginen klaseak ematen Eskoriatzako San Viatorren eraikuntzan, gaurko Eraikuntza Nagusian.

Dena den, trantsiziozko egoera bat izan zen hura, Eskoriatzako Irakasle Eskolaren azken helburua Euskadiko Unibertsitatearen eremuan onartua izatea baitzen. 1977ko urriaren 19an hasi ziren lehendabiziko harremanak Bilboko Unibertsitateko errektorearekin, garai hartan sortzeke baitzegoen UPV/EHU. Eskaera ofiziala egin, eta 1978ko otsailaren 14an onartu zuen Bilboko Unibertsitateak gure adskripzioa, eta handik hiru bat hilabetera Espainiako Ministro Kontseiluak. Orduan, autonomia osoa lortu zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolak.

Eratze prozesuaren amaiera, dena den, 1980ko otsailaren 14a izan zen: Irakasle Eskolak irakaskuntzako kooperatiba sozietate gisa eratzea erabaki zuen.

Gaurkoarekin alderatuz, oso matrikula gutxirekin hasi ginen, 39 ikaslearekin hasi baitzen lehendabiziko ikasturtea, 1976ko iraillean; gehienak gipuzkoarrak ziren (37), eta haietatik gehienak (32) debagoiendarrak; bizkaitar bakarra, Elorriokoa bera, eta beste bat arabarra, Aramaiokoa. Txiki hasi ginen eta txiki izaten jarraitu genuen 20 bat urte, harik eta 1996an, hasierako formazioan, eta historian lehendabiziko aldiz, lehen mailan 112 ikasle berri matrikulatu ziren arte.

Lehendabiziko urteetako ikasle berriek, nola ez, garai hartako kezka zituzten. Kontuan izan behar dugu 40 urteko diktadura

batean bizi izandako gurasoen seme-alabak zirela; beraz, kezka soziopolitiko eta kultural handiak zituzten.

Irakasle eta ikasleen arteko harremanak ere oso estuak ziren orduan, hurbilak, gaur bezala. Esan genezake gure DNAn dagoen ezaugarri bat dela hori: ikasleekin hurbiltasuna eta egoera berrien aurrean egokitzeko ahalmena.

Baina krisialdiak eragina izan zuen guregan ere. 1990ean, adibidez, 22 ikasle besterik ez zen matrikulatu; 1991n 24, edota 1992an 33. Gaur, berriz, ia mugatu egin behar izaten dugu hasierako matrikulatu berrien kopurua.

Eta zer esan gure hezkuntza proiektuaz. Euskararen eta euskal kulturaren ezagutza zabaltzea, inguruarekiko kontzientzia lan-tzea eta hezkuntza eratzaila eta berritzaileak bultzatzeko gai izan zitezten hezitzaile onak prestatzea izan zen Irakasle Eskolaren misio garrantzitsuena. Alegia, etengabe ingurunearen beharretarako eta pedagogia egokitua sustatzeko profesionalak formatzea izan zen Irakasle Eskolaren zeregina.

Beraz, gure nahia ez zen gizartetik kanpo edo gizartearekin loturarik ez duen irakasleria bat formatzea, baizik eta irakasle aktibo, kritiko eta sortzaileak hezte. Alegia, testuinguruaren beharretara egokitutako pedagogia bat bultzatzea, irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrekintza sustatzeko eta, hala, norbanakoaren hezkuntza prozesuaren jabe ere izateko.

Hauteman daitekeen bezala, helburua ez zen profesional eruditak lortzea, baizik eta aldatuz eta egokituz beren kritika gaitasuna erabiltzen zuten hezitzaileak. Eta ez urrutira begira. Irakasle Eskolak nahitaez egon behar zuen harremanetan bere ingurune hurbilarekin, pedagogiari zerbait eskaini nahi bazion.

Galdera da, entzundakoak entzunda, ea HUHEZI zerbait aldatu ote den, gaur duen hezkuntza proiektuaren misioarekin alderatuta.

1990eko hamarkadaren bukaeran, berriz, hezkuntza haize berritzaileak ari ziren han eta hemen gure bailara astintzen, eta garai bateko amets hutsa zena egia bihurtu zen Debagoiena eskualdean, Mondragon izeneko unibertsitate bat (MU) sortuaz batera, 1997an.

Esan genezake, 1976an Irakasle Eskola sortu zenetik, etapa bati amaiera eman eta beste berri bati ekin zitzaioela urte hartan. Hala, urtebete geroago, espazio faltari ere erantzun bat emateko asmoz, zuek hainbatetan eskolak jaso izan dituzuen Eraikuntza Nagusia zaharberritu, eta 1999an inauguratu zen.

Aldi berean, hezkuntza ulertzeko eta transmititzeko pentsamendu berrien eraginez, ildo estrategiko humanistiko berriak ezarri ziren gure hezkuntza proiektuan, eta, irakaslearen formazioari begira, profil hirukoitzari jarri zitzaion arreta (pertsonala, soziala eta profesionala). Orduan sortu zen MENDEBERRI hezkuntza proiektua.

Irakasleengan ere aldaketa eragin zuen horrek, jakintza askotako irakasleak elkartu eta modulu komunak diseinatu, eta erakutsi baitzuten ikasleekin sarritan partekatu nahi izan dugun diziplinartekotasuna posible zela. Baina ikasleengan ere sumatu zen aldaketa, jakintzak desberdinak garatu behar baitzituzten: jakitea; egiten jakitea; besteekin aritzen jakitea eta izaten jakitea.



2004-2005ean ekin zion bideari Informazio eta Komunikazioari Aplikatutako Giza Zientzietako lehendabiziko promozioak. Ondoren etorri zen Aretxabaletako eraikuntzaren egokitzapena. Hala, 2013ko maiatzaren 22a egun historikotzat jotzen den horietako bat izan zen HUHEZlrentzat, Aretxabaletako Campusa ofizialki inauguratu baitzen.

2012-2013 ikasturtean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduko lehendabiziko promozioa atera zen. Ordurako, irakasle izateko ikasketak ez ziren hiru urteko diplomaturak, lau urteko lizentziak baizik.

Ikasturte bera ere beste nobedade batekin etorri zen, gaurko fakultatearen zereginean garrantzi handia duena: Online modalitatea (BLENDED).

Fakultatea nazioartera zabaltzeak ere eragin handia izan du denongan. Izan ere, gaur, 30 unibertsitateetako nazioarteko programak ditugu aukeran; hainbat ikasle ERASMUS egonaldietan izaten da urtero, eta atzerrian ere egiten dira praktikak.

Guztiz bat nator urte askoan gure Kontseilu Errektoreko lehendakaria izan zen Mikel Uribeberriak esandakoarekin; alegia, 40 urtean asko eta onetik sortu duela Irakasle Eskolak/HUHEZIK.

Bukatzen hasteko, azken galderarekin bat egin nahi dut; alegia, nora goaz?

Une honetan, garai oparoak bizi ditugu fakultate gisa, baina, hori hala izanik ere, ez gaude geldirik; izan ere, etorkizunerako erronkak ez dira makalak: munduak hartu duen norabide berri honetan non eta nola kokatu nahi dugun erantzun behar dugu, eta, hasteko, 2016-2017 ikasturtean, berrikuntza pedagogikoari ekin diogu, baina ikerketan eta aholkularitzan ere bidea sakondu nahi dugu.

Urteurrenaren ospakizunetan, Richard Gerver hezkuntzako aditua izan dugu gure artean. Poztu ginen berak aitortu zue-nean hezkuntzan ere ezinbestekoa dela lankidetzat, horretan ari baikara Eskoriatzan eta egun Aretxabaletan ere 40 urtean. Edo, beste era batean esanda, HUHEZlren gisako proiektuak ez dira egiten elkarrekintzan aritzen den giza kolektiborik gabe.

Gure komunitatea txikia bezain aberatsa da, eta badauzka bereizgarriak, espezifikoak denak ere. Profesional belaunaldi berriei dagokie HUHEZIK lau urteko ibilbidean sarri transmititu nahi izan dituen erronkei erantzutea, eta hiru galderatan labur biltzen saiatuko naiz: Zer gaude prest egiteko kalitatezko euskal hezkuntza sustatzearen alde? Zer, edozein komunikazio eremutan lan egiten dugula, kalitatezko euskal komunikazioa sustatzearen alde? Zer, euskara eta euskal kultura sustatzearen alde?

Orain artean egin dugun bezala, gure printzipio eta balioei eutsiz eta HUHEZIKo familia osatzen dugun kide guztion parte-hartzearekin eta elkarlanarekin, proiektu honi dagokion tokia eta erreferentzialtasuna ematen jarraituko dugu.

## IE/HUHEZIREN IKUSPEGI KRONOLOGIKOA (1976-2017)

1976. Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zen. Ikastolek garai hartan zuten arazo larria (ez baitzen irakasle tituludun euskaldunik) konpondu guran, Hezibide Elkarteak –Debagoieneko hezkuntza kooperatibak batzen zituen elkarteak, alegia– Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen. Hasiera hartan, Salamancako Eliz Unibertsitatearen ikasgela moduan hasi zen eskolak ematen.

1978. Onespren ofiziala. Hezkuntza Ministerioak Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketa plana onartu zuen, aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU/UPV) atxikita.

1979. Lehen promozioa. 39 irakasle irten ziren urte hartan, irakasle diploma eskuan.

1980. Irakasle Eskola, kooperatiba. Bere ingurunean txertaturik, urrats logikoa izan zen eskola kooperatiba bihurtzea.

1981. Titulurik gabeko irakasleen 1. promozioa. Ikastoletan edo herri eskoletan euskaraz irakasle titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulua urte hartan. Guztira, titulu bako 700 maisu-maistrak amaitu zituzten ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

1984. Haurren gaineko dokumentazio zentroa. Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen eskola. Geroago, *Jakingarriak* aldizkaria argitaratzen hasi zen, gai horren inguruan.

1985. Irakasleen birziklatze programa. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera, lanean ari ziren irakasleak egunean jartzeko ikastaroak antolatzen hasi zen eskola.

1988. Bideo didaktikoak. Helburu didaktikoekin egindako bideo bilduma baten lehen alea (*Piti gaztagile*) argitaratu zen.

1990. Euskararen normalizazioa Administrazioan. Ikastaro bereziak antolatu ziren, euskal administrazioiko funtzionarioen hizkuntza eskakizunik jasoena lantzeko.

1992. Eskola liburugintza. Euskarazko irakaskuntzan eskola liburuak behar zirela-eta, dozena bat liburu argitaratu ziren.

1996. Hezkuntza Berezia. Hezkuntza premia bereziak zituzten haurrei irakasteko espezialitatea martxan jarri zen.

1997. Mondragon Unibertsitatearen Humanitate fakultatea. Eskoriatzako Irakasle Eskola MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate (HUHEZI) bihurtu zen. Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen hasi zen.

1999. Eraikin berria. Hasierako eraikina txiki geratu zela eta, Gizabidea fundazioak San Viator eraikina (XVII. mendekoa) erosi zuen, Humanitateen Fakultatea ezartzeko. Lehen masterra. Enpresa Proiektuen Zuzendaritza izeneko masterra sortu zen.

400 bat hautagai aurkeztu ziren, baina 20 bakarrik sartu ziren, galbahe zorrotza igaro ostean.

**2000.** Psikopedagogia lizentzia. Bigarren zikloko lizentzia zen, irakaskuntza eta gizarte eleaniztunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko sortua. Lehen urtean, 33 ikasle izan zituen.

**2001.** Online ikasketak. Psikopedagogia ikasketak eta master bat sarean jarri ziren. Humanitateak-Enpresako 1. promozioa irten zen, ekainean. Bi master berriren eskaintza: Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologien Prestakuntza eta Hezkuntza Zuzendaritza. LANKI sortu zen, MUko Lankidetzaren Ikertegia. Hiru esparru nagusi izan zituen hasieratik: kooperatibismoa, gizartearen esku hartzea eta garapenerako lankidetzak. Esperientzia Komunitarioen Truke Programa: lehen edizioa antolatu zen Hego hemisferioko komunitateen eta Euskal Herriko eragile kooperatibo eta autoeratuaren artean. Lankidetzak: Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektuari buruzko liburua argitaratu zen. LANKI Ikertegiaren lehen argitalpena izan zen; orduetik aurrera, hainbat argitalpen eta material didaktiko sortu da kooperatibismoaz eta gizartearen erronkez.

**2002.** Psikopedagogiako ikasketen barnean, Esku-hartze Psikopedagogia jarri zen abian, 30en bat ikaslerekin. LANKI Ikertegia Mundukidaren interkooperazio sistemaren garapeneraren bultzatzaile izan zen.

**2003.** AOI-PBL metodologia 1. mailan sistematikoki ezartzen hasi zen, Haur Hezkuntzan oso-osorik, eta, bestelako espezialitateetan, ikasgai komunetan soilik. Hezkuntza Fisikoa. Irakasle Ikasketetako espezialitate berria hasi zen, 32 ikaslerekin.

**2004.** Pertsona eta Talde Garapenerako gestio unitatea sortu zen. Prestakuntza Pedagogikoa titulazioa ezarri zen. Irakasle Balioizduna izeneko ikasketak eskaintzen hasi zen.

**2005.** Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentzia sortu zen. Haren misioa edo eginkizuna komunikatzaile integralak prestatzea da. Lana edonon egiten dutela ere, gai izango dira erakunde horretako era guztietako komunikazio beharrei erantzuteko. 36 ikaslerekin jarri zen abian lehenengo maila. «Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren zentzuaren gaineko gogoeta-prozesua» egin zen kooperatibetan. Prozesu haren garapenean, LANKI eragile funtsezkoa izan zen. Diagnostiko hartatik abiatuta, eta 2007an MONDRAGON Taldearen Kongresu Kooperatiboan berretsita, kooperatibak biziberritzeko hainbat estrategia jarri dira martxan azken urteotan. Urte berean, Norbere Garapena eta Taldeen Lidergoa izeneko aditu titulua ezarri zen.

**2006.** Irakasle ikasketetan, Mendeberriko proiektuaren 1. promozioa atera zen. «Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna XXI. mendean» ikastaroa eskaini zen. Abian jarri ziren Euskara Plana eta Multimedia gunea. LANKI Garabide elkartearen sorreran parte hartu zuen. Euskal Herriaren gauzatutako hizkuntzen berreskurapenerako estrategiak eta esperientzia hegoaldeko herri indigenekin partekatzeko plataforma da.

**2007.** Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa eskaini zen. HUHEZINEMAREN lehen edizioa egin zen. HUHEZIKO programako lehen tesia aurkeztu zen. Hezkuntza kooperatiboaren eredu berriaren diseinua eta implementazioa hasi zuen LANKI, MONDRAGONeko Gestio Sozialarekin lankidetzan. Harrezkero, MONDRAGON Taldeko kooperatibetan prestakuntza kooperatiborako prozesu zabalak ireki dira. LANKI, Mundukidarekin batera, elkarlana abiatu zuen Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien Mugimendurekin (MST).

**2008.** Ikus-entzunezko Komunikazioa lizentziaturaren 1. promozioa atera zen. ANECAk Haur Hezkuntzako Gradua, Lehen Hezkuntzako Gradua eta Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua onartu zizkion HUHEZIRI. HUHEZIK Urrezko Bikain ziurtagiria lortu zuen. Kooperatibagintza aditu-titulua lehen edizioa eskaini zen, kooperatibetako eragileak prestatzeko bokazioz, eta kooperatibak biziberritzeko estrategietan eragiteko.

**2009.** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterra eta Ekonomia Solidarioaren masterra eskaintzen hasi ginen. ANECAk Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate-master ofiziala (EKOMU) eta Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate master ofiziala (BERRIMET) onartu zizkion HUHEZIRI. Boloniara egokitutako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa graduen inplementazioa. LANKI Bagara prozesuaren sorrera bultzatu zuen. Prozesu horren xedea Debagoienean garapen komunitario autoeratu bultzatzea da.

**2010.** Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate master ofiziala (EKOMU) eta Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate master ofiziala (BERRIMET) eskaintzen hasi ginen. Ekonomia solidarioari buruzko masterraren lehen edizioa egin zen, Latinoamerikako garapen sozioekonomikoko esperientzia autoeratuie zuzendua. MU Telebista sortu genuen.

**2011.** Jatorrizko Hizkuntzen eta Identitateen Berreskurapena aditu titulua martxan jarri zen, munduko komunitate indigenentzat.

**2012.** Vic-eko Unibertsitateak eta HUHEZIK eskainiko dugun Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programa onartu ziguten UNIBASQEK eta ANECAK. Aretxabaletako campus berriko obrak egin ziren. Komunikazioa Erakundeetan aditu titulua eskaintzen hasi ginen.

**2013.** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko Aretxabaletako campus berriaren eraikina inauguratu zen. Vic-eko Unibertsitatearekin batera, Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programa eskaintzen hasi ginen. Egokitze ikastaroak eskaintzen hasi ginen, Blended modalitatean, diplomadunek graduoko titulua lortu ahal izateko. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak Blended modalitatean eskaintzea onartu ziguten UNIBASQEK eta ANECAK. Oñatiko Enpresagintza fakultatearekin batera eskaintzen dugun Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa (MCOOP) unibertsitate master ofiziala onartu ziguten UNIBASQEK eta ANECAK.

**2014.** Lehenengoz eskaini zen gradu osoa edo bigarren titulazio bat online modalitatean egiteko aukera. Enpresagintza fakultatearekin batera, lehenengoz eskaini zen Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa (MCOOP) master ofiziala. Bigarren Hezkuntzako masterraren kanpo egiaztagiria eman zigan UNIBASQEK. HUHEZIKO barne kalitate sistemaren kanpo egiaztagiria eman zigan UNIBASQEK.

**2014-2015** ikasturteetik hasita, dekanu berria aukeratzeak zuzendaritza talde berria eta antolaketa berria ere ekarri ditu.

**2016-2017** ikasturtean, 40. urteurrena ospatzen ari gara.

**2016-2017** ETA **2017-2018** ikasturteetan, berrikuntza pedagogikoari ekin zaio, Aretxabaletan lehenik eta Eskoriatzan ondoren.



**40**

**URTEAN**

**EUSKAL  
GIZARTEAN  
ERAGITEN**

**IRAGALE EHOLA  
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEA  
(HUNGARI)**



RICHARD GERVER



# “KONFIANTZAREN KULTURAK EKARRIKO DITU BENETAKO ALDAKETAK HEZKUNTZAN”



---

PASA DEN MAIATZAREN 17AN, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEAREN 40. URTEURRENAREN HARIRA,  
RICHARD GERVER HEZKUNTZAN ADITUA ETORRI ZEN  
ARRASATERA. AMAIA ANTZOKIAN, 750 LAGUNEN AURREAN,  
GERVERREK HITZ EGIN ZUEN HEZKUNTZAREN IRAGANARI,  
ORAINARI ETA, BEREZIKI, ETORKIZUNARI BURUZ. HURRENGO  
LERROOTAN ERREPRODUZITZEN DUGU MAITE TXINTXURRETA  
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEKO KAZETARIAK ‘PUNTUA’  
ALDIZKARIRAKO EGINDAKO ELKARRIZKETA.

Hezkuntzan eta berrikuntzan aditua den Richard Gerver (Londres, 1969) Arrasaten izan da berriki, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen 40. urteurreneko ospakizun ekitaldien barruan. Erresuma Batuko ikastetxe baten zuzendari izendatu zutenean, metodologia guztia goitik behera aldatu zuen, eta herrialdeko zentrorik arrakastatsuenen artera eraman zuen. Geroztik, hezkuntza eraldatzeko beharraz hitzaldiak egiten ditu han eta hemen, eta bi liburu idatzi ditu gai horren gainean.

### **Nola ikusten duzu gaur egungo hezkuntza sistema? Zer iritzi duzu, esaterako, azterketez?**

Galdera horri erantzuteko, lehenengo, atzera begiratu egin nahiko nuke. Industrializazio garaian, masa edukazioa izan zen modeloa, orduko merkatuari erantzuteko. Hezkuntzaren helburua zen, batik bat, eraginkortasuna lortzea, helburu batzuk

izanda eraldaketa beharrezkoa dela ere, ez direla aldaketa sakinak gertatu hezkuntzan, eta jarraitzen dugula azterketa eredu bertsuekin. Eredu horrek ez digu laguntzen benetan neurtu beharrekoa neurtzeko. Hala ere, sistemak azterketak bultzatzen jarraitzen du, eta eredu bertsuak. Hori da arazorik larriena, eta zirkulu bilakatu da. Sistemak aldaketa behar du, eta egungo arazoa da sistema konpontzeko neurriak hartzen direla, eta ez sistema eraldatzekoak.

### **Zer proposatzen duzu zuk, hortaz?**

Lehendabizi, proposatuko dudana da jendeak ez dezala itxaron ni bezalako norbait etor dadin gauzak eraldatzen hasteko; izan ere, horrek era tradizionalarekin antzekotasun handia du. Baina zenbait hausnarketa partekatu nahiko nituzke. Enpresek eskatzen dutena da ekintzarako prest dauden pertsonak, eta hainbat eremutan kolaboratzeko gertu daudenak. Ezaugarri horiek guztiak, kurioski, sormena, ekimena... dira umeengan topa daitezkeenak. Hortaz, gure buruari egin beharko geniokeen lehen galdera honako hau da: nola sustatu umeengan naturalak diren ezaugarri horiek nagusiagotan ere garatzea? Pentsatu behar dugu ea zelako pertsonak izan nahi ditugun etorkizunean, mundu profesionalari dagokionez ere bai, baina, batez ere, pertsona moduan. Horrez gain, pentsatu behar dugu ea nola diseinatu behar dugun hezkuntza ereduaren benetan erakargarria izan dadin, nola bultzatu ikasteko motibazioa eta ilusioa. Hau da, ikastea ez dadila izan azterketara begirako betebeharrak. Benetan kapazak bagara galdera horiek mahai gainean jartzeko eta erronka horiei erantzuteko, lortuko dugu etorkizuneko erronkei erantzutea.

### **Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen urteurrenaren harira etorri zara Arrasatera. Izan duzu unibertsitatea ezagutzeko aukerarik?**

Oraindik ez dut unibertsitatea bisitatzeko aukerarik izan, baina izan dut horri buruzko solasaldiren bat edo beste, eta hemen lantzen duzen elkarlana goaipatuko nuke. Izan ere, munduan gaur egun gertatzen dena justu kontrakoa da; hau da, eredu individualistago baterantz goaz. Horren harira, uste dut MUko jarduna eredu garria izan daitekeela mundu osoarentzat. Kooperatibismoaren hazia Erresuma Batuan erein zuten duela ehun urte, baina, tristeki, atzera egin dugu, eta, horregatik, hemen egiten duzuen mundura zabaldu behar da.

lortzea, eremu akademikoan indartzea. Etorkizuneko langileak modu mekanikoan prestatzea zen helburua, sistemari erantzuteko, kontzeptuak eta ikasgaiak buruz ikasiaz. Azterketa sistema ere orduan garatu zen, memorizatze ahalmen hori monitorizatze, eredu horren jarraipena egiteko. Eta urte askoan, eredu horrek funtzionatu du. Baina azken 40-50 urteetan gizartearen eta industriaren erronkak aldatu egin dira, eta garatu behar ditugun kompetentziak ekimena, sormena eta berrikuntza dira. Azkeneko 15-20 urteetan mundua ireki egin da, eta ekonomian eta teknologian gertatu diren aldaketek eraldaketa bat ekarri dute gizartearen. Horrek esan nahi du aldaketa sakona behar dugula hezkuntzan ere. Gertatzen zaiguna da, oso kontziente

### **Hezkuntza sistemari dagokionez, zein herrialde aipatuko zenuke eredu moduan?**

Zaila da eredu bat aukeratzea; izan ere, munduan zehar hainbat praktika on ezagutu ditut. Adibide bat jartzekotan, Finlandia aukeratuko nuke, benetan hartzen dutelako kontuan ikaslea modu integratuz, sormena eta garapen osoa bermatuta. Finlandian benetan hartzen da balioan irakasleekiko konfiantza, eta horrek asko laguntzen du ikaste prozesuan. Badaude beste bi adibide nahiko harrigarriak iruditzen zaizkidanak. Lehena Medellin da, Kolonbian, non izugarriko konpromisoa daukaten komunitate osoa hezteko. Bigarren adibidea Lahore da, Pa-



kistanen. Hango hainbat eskola bisitatu ditut, eta, horietan, pertsonaren garapen integrala bultzatzeko lan handia egiten dute. Dena den, lehen esan dudan moduan, bisitatu ditudan herrialde guztietan aurkitu izan ditut adibide interesgarriak eta oso dinamikoak. Horietan guztietan egiten duten lana afrikar esaera batek ondo islatzen du: Komunitate oso bat behar da ume bat hezteko. Izan ere, haurren garapena ez da eskolan bakarrik lantzen, komunitate osoak du horretan parte hartzea. Orain dela hilabete batzuk, PISA azterketen emaitzak kaleratu zituzten, eta mundu osoko prentsan oihartzun handia izan zuen. Badago, baina, beste txosten bat, 2015ean kaleratu zena, eta umeen ongizateari erreferentzia egiten diona. Halakoek ez dute horren oihartzun handirik izaten, inondik inora ere, baina erakusten duena oso interesgarria da; izan ere, erakusten du akademikoki oso goian dauden herrialdeek gai honetan emaitza kaxkarrak dituztela. Beraz, hor badago kontraesan bat. Bai Erresuma Batua, bai Espainiako Estatuak, txosten horretan beheko postuetan ageri ziren. Aldiz, oso adierazgarria da ume zorionsuenak bizi direla gurasoak benetan hezkuntza prozesuan inplikatzeko diren tokietan, bai eskolan, bai eskolatik at.

**Zer esaten dizute umeek? Zein da haien iritzia egungo hezkuntza sistemaren gainean?**

Denbora luzea ematen dut umeekin eta, oro har, ikasleekin berba egiten. 16 urteko seme bat eta 21 urteko alaba bat dauzkat.

Nik gazteengandik jasotzen dudana, batik bat, frustrazioa da; izan ere, sistemak ez ditu euren beharrak asetzen, ez ditu euren nahiak eta benetako motibazioak errespetatzen. Gazteen belaunaldi guztiak sentitzen dira desberdin euren gurasoenarekiko, eta guraso horiek, sarri, beldur izaten dira desberdintasun horiekin, askotan ez baitituzte ulertzen. Baina uste dut gaur egun desberdintasun hori inoiz baino handiagoa dela. Nire belaunaldiko jendeak ez du ulertzen benetan zelako pasioa dagoen gazteengan, nola benetan daukaten kezka bat munduan gertatzen ari denaz, klima aldaketaz, eta abar. Gazteek nahi dutena da errespetatuak izatea eta jendeak esateko duten hori entzutea. Ez dugu inoiz gaur egungoa bezalako gaztedi talentudunik izan. Orain, guk daukagun erronka da potentzialtasun hori guztia ikusi eta baloratzea. Oso garrantzitsua da, gazte horiek izango baitira etorkizuneko erronkei aurre egingo dietenak eta aurreko belaunaldiek sortutako arazoei konponbidea emateko ahalmena dutenak. Duela gutxi, 21 urteko alabarekin hizketan aritu nintzen brexit-ari buruz eta AEBetako hauteskundeetan Donald Trumpek eskuratutako garaipenari buruz. Alaba aurka dago, eta ez ditu ulertzen egun munduan gertatzen ari diren kontraesanak. Uste dut sentipen nahiko orokorra dela gazteengan. Erresuma Batuan, hauteskundeetan eta brexit-ari buruzko galdeketa, 25 urtez azpikoaren parte hartzea oso-oso txikia izan zen, eta uste dut desadostasun horren isla dela hori. Hasi behar dugu benetan sinisten gure gazteengan, hor baitago etorkizuneko giltza. Ni oso optimista naiz belaunaldi berrien gaitasunarekiko.

### **Belaunaldien arteko tarte hori bereziki nabarmena da teknologia berrien ezagutzan, ez duzu uste?**

Belaunaldi guztien artean egon da tarte teknologikoa. Inpren-taren asmakuntzak iraultza ekarri zuen, eta gauza bera gertatu zen irriatiarekin edota telebistarekin ere. Gaur egun, aldiz, aldaketa masibo hori esponenziala izaten ari da, gauzak oso azkar gertatzen doaz, aldaketa oso arin doa. Horregatik, lehen aipatu dudan moduan, teknologia berriek beldurra ematen digute sarritan. Ostera, nire seme-alaben belaunaldikoak ez dira horren beldur, inondik inora ere. Eurak prest daude beste aldaketa batzuei aurre egiteko, aurreko belaunaldia ez bezala. Horrenbestez, nagusiok konturatu behar dugu ezin garela beti irakasle izan, baizik eta zenbait arlotan gazteek erakutsi beharko digutela guri.

### **Zein erronka izango dituzte gaur egungo umeek helduak direnean?**

Hiru erronka nagusi ikusten ditut nik, mundu mailan eragiten dutenak. Bata, ingurumena da; gure gazteei, klima aldaketari aurre egitea tokatuko zaie. Bigarrena, ekonomia globala. Zerbait ikasi badugu 2007ko krisi horretatik, hori da etengabeko aldaketan egongo dela ekonomia. Hortaz, beste eredu batzuen bila joan behar dugu. Hirugarren erronka kulturartekotasuna litzateke, komunitate desberdinen pentsatzeko era ezberdinen arteko elkar ulertzea. Hiru erronka horiek, gainera, batera doaz, eta horiei erantzuna emateko bideak hezkuntzaren bitartez landu behar ditugu.

### **Politikak zenbateko eragina dauka hezkuntzan?**

Handia; gehiegizkoa, nire ustez. Baina hezkuntzak behar duena gizarteko eragile guztien arteko elkarlana da. Politikariak beti ari dira epe motzeko konponbideak topatu nahian, baina beharrak epe luzekoak dira. Uste dute euren betebeharra hezkuntza kontrolatzea dela, baina hura indartzea izan beharko litzateke. Politikak konfiantzaren kultura sustatu behar du, hortik etorriko baitira aldaketak hezkuntzan. Ez da kasualitatea Finlandia izatea hezkuntzan emaitza onenetakoak dituen herrialdea. Herrialde horretan, hezkuntza komunitatean diseinatzen da, ez politikan. Hor dago gakoa.

### **Etxeko lanen kontra azaldu izan zara.**

Etxeko lan tradizionalak ez dute onurarik ekartzen, ez dago efektu positiboak dakartzatela dioen frogarik. Etxeko lan tradizionalekin, umeek eskolan egindakoa errepikatu baino ez dute egiten. Etxeko lanak bidaltzen jarraitzen dugu, batez ere, gurasoei ere bidaltzen zizkietelako ume zirenean, eta uste dugulako hori dela bidea. Ikaste prozesua benetan erakargarria eta motibatzailea izan dadin lortu behar dugu, eta neska-mutikoei, eskola ondoren etxera iristean, eskolan ikasitako horri buruz ikertzea, euren irizpideetatik eta interresetik abiatuta. Etxeko lanak ez lirateke izan behar umeak lanpetuta mantentzeko modu bat, nahiz eta, sarri, hala erabiltzen diren. Azken hausnarketa bat gehitu nahiko nuke etxeko lanei dagokienez: umeek lan handia egiten dute eskolan, eta ondoren, batez beste, hiru ordu gehiago eman behar dituzte etxean lanean. Jar gaitezen euren tokian. Lanetik irteetan beste hiru orduz lanean jardun beharko bagenu, ziurrenik, gure lana utziko genuke askok.







## HAZITEGI

► ALEXANDER BARANDIARAN, IÑAKI LARREA, EIDER SALEGI, ITZIAR ARREGI  
eta NAIARA ZIA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



**H**azitegi Mondragon Unibertsitateko (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko (HUHEZI) ikertalde bat da. 2001. urtetik aritu da haurtzaroaren garapen osasuntsuaren inguruko ezagutza eraikitzen; zehazki, haurren garapen testuinguruak zehazteko lanetan egon da murgilduta. Taldearen interesa hau izan da: aztertzea haurren testuinguruek nolakoak izan behar duten beren garapena osasuntsua izateko.

Interes hori bat dator Hazitegi taldeak haurra ulertzeko duen ikuspegiarekin. Taldearen izena da ikuspegi horren isla, haziak, haurrak bezala, berez baitauka gaitasuna hazten denean landare edo zuhaitz ederra bihurtzeko. Hazitegiarentzat, beraz, haurra gaitasunez betetako pertsona bat da, helduek egoki zainduta gaitasun horiek guztiak gauzatuko dituen. Ezagutzak aditzera ematen digu haurren testuinguruak gako direla bere garapenerako. Horregatik, Hazitegik haurren testuinguru guztiak hartzen ditu aintzat: familia, eskola eta komunitatea. Hala ere, bereziki eskolan kokatu dira taldearen ikerlanak, eta, are zehatzago, Haur Hezkuntzaren etapan, literaturak argi adierazten baitu hasierako urteak giltza direla pertsonaren nortasuna eraikitzeko.

### LAN ESPARRUAK

Hazitegik, haurren garapen osasuntsua ipar, bereziki Haur Hezkuntzan eragiteko hiru esparru nagusi bereizten ditu: ikerketa, aholkularitza eta etorkizuneko irakasleen prestakuntza.

**Ikerketari** dagokionez, Hazitegik, sortu zenetik, konpromiso irmoa izan du ikerketaren bitartez Haur Hezkuntzako erronkei erantzuteko ezagutza sortzeari begira. Egindako ikerketei esker, taldeak aukera izan du haurren garapen osasuntsua, irakaslearen rola, eta eskolako antolaketa, metodologia eta harremanak sakon aztertzeko.

**Aholkularitzari** bagagozkio, eskoletan sor daitezkeen behar edo eskaera zehatzei erantzuna ematen zaie Hazitegi taldean. Betiere eskola bakoitzaren errealitatea abiapuntutzat hartuta, dagokion errealitatera doitutako prozesuak eraikitzen ditugu, eskola bakoitzaren neurrira, prozesuaren esangura maila eta eraginkortasuna bermatze aldera. Horrenbestez, eskola askorentzat antolatutako formazio ikastaro estandar baten ordez, dagokion eskolaren beharrei erantzungo dieten aholkularitza prozesu egokituak hobesten ditu Hazitegik. Bere ibilbidean, oso bestelako gaiak jorratutako prozesuak garatu ditu taldeak, hamaika eskolatan: hezkuntza proiektua, irakaslearen rola, familia-eskola trantsizioak, ebaluazioa, haurrari eskainitako testuinguruak, eta abar.

Azkenik, etorkizuneko irakasleen **prestatuntzari** dagokionez, hobekuntza kualitatiboak txertatzen dihardugu Haur Hezkuntzako etorkizuneko irakasleak izango diren graduatuko ikasleen formazioan. Hazitegi taldeko kideok saiatzen gara etorkizuneko irakasleei transmititzen haurra gaitasunez betetako pertsona dela eta horretarako testuinguru aproposak behar direla defendatzen duen ikuspegia. Horretarako, ahalegin berezia egiten dugun jakintza teorikoa ikerketatik zein aholkularitza eratorritako ekarpenekin lotzen, uste baitugu ikerketak, aholkularitzak eta prestatuntzak elkar elikatu behar dutela.

Hiru lan esparru nagusi horiez gain, jendartera haurren ikuspegi hori azaleratzen saiatzen da Hazitegi taldea. Horren isla dira hainbat jardunalditako parte hartzeak, komunikabide eta aldizkarietan egindako ekarpenak eta, arlo akademikoago batean, idatzitako artikuluko zientifiko, liburu eta doktorego-tesiak.





## EZAGUTZA ILDOAK

Aipatu berri diren lan esparru horiek honako ezagutza ildo hauek dituzte oinarri.

Lehenengo ezagutza ildoak **haurra eta haren garapena** da. Haurraren ongizatea da oinarria, eta, horretarako, ezinbestekoa da 0-6 urte bitarteko umea sakonki ezagutzea, helduaren eskaintzak ongizate hori bermatu ahal izateko. Ardatz horretan, haurraren ezaugarriak ikertzen dira, eskola esparruan, hala nola ongizatea, jolasa, eta jokabide agresibo eta binkulatiboak. Haurra ongi ezagutzeak aukera ematen du haren ongizate maila eta harremanak izateko modua identifikatzeko, haren jokabideak eta haien balizko arazoak zein diren jakiteko, haren esplorazioaren eta jolasaren garapena interpretatzeko edo aipatutako guztiak haren garapenean izan dezakeen isla aztertze.

Bigarren ezagutza ildoak **harremani** egiten die erreferentzia, irakaslearen zeregina harremanen kudeaketan oinarritzen baita hein handi batean. Bereziki, irakaslearen eta haurraren arteko harremanak aparteko garrantzia hartzen du, eragin zuzena baitu haurraren ongizatean. Eskolak adin goiztiarretatik duen garrantzia aintzat hartzen badugu, irakasleak rol garrantzitsua jokatzen du haurra eskolara sartzen den momentutik. Literaturak argi adierazten du haurraren eta irakaslearen arteko harremanak izugarriko eragina izan dezakeela haurraren doikuntza sozial eta akademiakoan. Harreman horren kalitatea ona izan dadin, irakaslearen begirada sentikorra ezinbestekoa da, haurraren garapen goiztiarrean eragiten duten aldagai nabarmenenetariko bat baita hezitzailearen sentikortasuna. Beraz, haurraren eta irakaslearen arteko harremana ikertzen da Hazitegin, batez ere irakaslearen sentikortasunean oinarrituz. Sentikortasuna zerk garatzen duen eta garatzeko bideak zein izan daitezkeen aztertzen dihardugu, eskoletako profesionalengan zein etorkizuneko irakasleengan eragin nahian, haurrarako kalitatezko harremanak erraz susta ditzaten.

Hirugarren ezagutza ildoak lotura dauka haurri eskaintako **espazioaren, materialaren eta denboraren kudeaketarekin**.

Espazioari dagokionez, bizitza espazio bat den heinean, ezinbestekoa iruditzen zaigu haurraren garapen prozesuei begira antolatua izatea. Horregatik, Hazitegin, garrantzia airtortzen diogu eskolako barne zein kanpo espazioen antolatetari eta diseinu arkitektonikoari, eta halakoak hobetzeko irizpideak garatzen dihardugu. Literaturari jarraikiz, espazio ez-mugatua baina ondo definitua hobesten dugu, umeari koherentzia eta globaltasuna emango dioten guneen arteko interakzioa bermatuko duena. Elementu bakoitzak potentzialki aurkikuntzarako aukerak eskaintzen dituen espazio bat sustatzen dugu, umeen garapen egoerari doitu. Naturarekiko elkarrekintza bermatzen duen espazio bat nahi dugu, errealitatea esperimintatzeko eta deskubritzeko, plazera dela medio; bertan gustura egoteko aukera ematen duen espazio bat, azken batean. Adinen arteko elkarbizitzarako aukera ematen duen espazio bat gura dugu, norbera errekonozitua izango dela bermatuko duena.

Espazioarekin batera, materialek ere garrantzi berezia dute, jolaserako eta esperimintaziorako eskaintza determinantea izango baita umeari alderdi guztien garapenerako. Materialek esperimintazioa bultzatu behar dute, eta ahalik eta errealean izan behar dute. Haurraren barne mundu sinbolikoa garatzeko sostengua eskaini behar dute. Objektuen kopurua eta aurkezpena ere garrantzitsuak dira.

Espazio eta materialak kontuan izanda, haien erabilerak denboran arreta jartzea eskatzen du. Haurraren ongizatea bermatu nahi badugu, ezinbesteko baldintza da denboraren antolaketa umeei igortzen dituzten seinaleen arabera moldatzea. Hazitegin, irizpide horiek aintzat hartuta eskoletako eskaintza ikertu, eta haurraren garapen osasuntsuari begira hobetzeko proposamenak egiten ditu.

Laugarren ezagutza ildoak **irakasle taldearen garapenari** egiten dio erreferentzia. Gaur egun, Haur Hezkuntzako etapa bere osotasunean hartzen da, eskolek argi ikusi baitute etaparen koherentzia garrantzitsua dela umeari mesedetan aritu nahi izanez gero. Ikuspegi horrek proiektu komun bat eraikitzea dakar; nahitaez etapako irakasle guztiak elkarrekin egin beharreko proiektu bat, hain zuzen ere. Hortaz, irakasle taldearen garapena giltza izango da, taldean modu adostuan lan egiteko gaitasuna aktibatu beharra baitago. Are gehiago, ezinbestekoa da «nire haurrak eta nire gela» ikuspuntutik «gure haurrak eta gure espazioak» ikuspuntura salto egitea. «Gutasun» horretan murgiltzea eskola bakoitzeko irakasle taldeko harremanetan sakontzea da. Bakoitzaren praktikak partekatu eta besteen aurrean ikusgai izateak norberaren barrenak harrotu ditzake. Epaitzea eta epaitua izatea, elkar ulertzea edo norberaren beldurrak azalera dera halako prozesuetan agertzen diren bizipen batzuk. Hazitegin, iruditzen zaigu edozein berrikuntza prozesutan zaindu beharreko aldagaia dela irakasle bakoitzak nolako prozesua egiten duen taldean, talde kohesioa indartu, irakasle bakoitzaren ongizatea bermatu eta, ondorioz, berrikuntza prozesu arrakastatsua lortzeko.

Azkenik, bosgarren ezagutza ildoak **Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen arteko trantsizioari** egiten dio erreferentzia. Kontuan hartzen badugu haurraren garapenean aldi sinbolikoa ez dela 6 urterekin bukatzen eta 7-8 urtera arte luzatzen dela, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloen arteko zubia zaindu beharreko trantsizio bat da. Ondorioz, berebiziko garrantzia hartzen du Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslearen arteko koordinazioak. Hazitegin, etapen arteko irakaslearen arteko harremanak sustatu, Haur Hezkuntzako proiektuaren jarraipena gauzatu eta eskola mailako proiektua eraikitze aldera, etapen arteko zubia izango dugu hurrengo urteetan ikerketa eta aholkularitza lanetako ezagutza ildoak.

Aipatutako bost ezagutza ildoak –haurra eta haren garapena, harremanak eta espazioaren, materialaren eta denboraren kudeaketa, irakasle taldearen garapena, eta Haur eta Lehen Hezkuntzaren arteko trantsizioa– elkarri eragiten diote. Bost ardatzen arteko lotura oso estua da, batak beste gabe zentzua galtzen baitu. Elkarrekin hori oinarria da Hazitegin sustatutako berrikuntza prozesuetan, non aipatutako esparruetan eragiten den, umeari ongizatea bermatzeko. Horregatik, Hazitegin ikuspegi global hori hartzen du aintzat, ikerketan, aholkularitza eta etorkizuneko irakaslearen prestakuntzan. Ondorioz, taldeak bideratutako lanetan, berrikuntza prozesu integralak eta osoak bilatzen dira, betiere garatutako lanek haurraren garapen osasuntsuan positiboki eragingo dutelakoan. Etorkizunari begira ere, konpromiso horri eutsi nahi zaio, ikerketan, aholkularitza prozesuetan eta etorkizuneko irakaslearen prestakuntzan haurraren garapen osasuntsua sustatzeko baldintzen alde lan eginez.



## HUHEZIKO IKASLEEN KULTUR ETA HIZKUNTZ IDENTITATEEN BILAKAERAREN AZTERKETA: ERAGITEKO GAKOAK

► JULEN AREXOLALEIBA, NEKANE ARRATIBEL, LETICIA GARCÍA,  
NEKANE GOIKOETXEA, JOXPI IRASTORTZA, ASIER IRIZAR,  
AINHOA ODRIUZOLA, IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ eta IÑAKI URRUZOLA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Huhezi fakultatea bere sortze beretik definitu da euskara eta euskal kultura sustatzeko duen misioaren arabera. Kooperatibismoarekin eta gizarte eraldaketarekin batera, euskaltasuna birsortzeko zeregina du fakultatearen jarduerak. Garai bakoitzean, euskaltasuna sustatzeko norabide, estrategia eta baliabide ezberdinak erabili ditu. Gure herriak XXI. mendeko Mendebaldeko gizartearen dituen erronkei aurre egin nahi die proiektu honek, gaur egungo egoeraren diagnostiko sendo batean oinarrituta.

Huhezín, Euskal Herriaren erronkei erantzungo dieten hezkuntza komunitateetako profesionalak hezi nahi ditugu. Gure iritziz, erronka nagusietako bat euskal nortasuna sortu eta birsortzeko zailtasunean datza. Gure historiaren ondorioz, euskal hizkuntza eta kultura (euskal nortasunaren osagai behinenak, funtsean) egoera menostuan daude, eta eskola izan da defizit horri aurre egiteko esparru garrantzitsuetako bat. Horregatik, gaur egungo eskola-gizarte binomioaren afera nagusietako bat dugu aztergai. Hezkuntza komunitatearen erdigunean dauden auziak ezin ditugu afera honetatik kanpo utzi: sareen arteko osagarritasuna eta kontzertazio eredua, aniztasun mota guztiei erantzuteko eredua, bultzatu nahi den herritartasun mota, funtsean...

Euskal eskoletako profesionalak sozialki konprometitu eta, beraz, eragilea behar du izan, Huheziren iritziz. Gizartea, hezkuntza komunitatea eta bere burua kritikoki begiratuko duena eta, horrenbestez, lanbidearen engaiamendu politikoa garatuko duena. Esan gabe doa, egiteko modu eraldatzaile eta eraikitzaileak izango dituena. Gizarteko botere harremanen jakitun dena, funtsean...

Helburua ez da, hortaz, etnozentrismo akritikoa sustatzea, baizik eta estatu-nazioek zein globalizazio berantiarrek dakarten homogeneizazio zein asimilazio kulturalari aurre egitea. Bistakoa da kulturartekotasunaren balioekiko osagarria dela; ez, ordea, euskal nortasun menostuari ez ikusia egiten dion herritartasun ustez berdinzalearekiko.

Hizkuntzara etorrita, ezin da ukatu azken urteotan euskararen ezagutzaren arloan gizarteko zenbait eremutan eta bereziki hezkuntzan egindako aurrerapena. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, irakasleen euskalduntzerako eta alfabetatzerako IRALE programak bideratu dira hezkuntza eremu honetan, euskararen irakaskuntzaren gaineko hainbat ikerlan bideratu dira (EIFE1, EIFE2, EIFE3...), euskarazko ikasmaterialak sustatu dira (EIMA), abian jarri da ikastetxeetako Hizkuntza Normalizatorako ULIBARRI programa, eta abar. Horiek guztiek eman dute fruiturik, zalantzarik gabe, ezagutzari dagokionez.

Horrela, azken urte hauetan, eskolak berebiziko garrantzia izan du haur eta gaztetxoek euskalduntzean eta euskararen biziberritzean. Baina, zoritxarrez, euskararen ezagutzan izan den bilakaerak ez du islarik izan euskararen erabileran. Ez, behintzat, neurri berean. Azken inkesta soziolinguistikoaren datuen harira (2017), euskararen erabilerari erreparatuta, erroko berritasunik ez dago. % 16,5ek egiten du euskararen erabilera trinkoa —euskara erabiltzen dute erdara adina edo gehiago—. Aurreko inkestan baino 0,4 puntu handiagoa da portzentaje hori, eta 1991n baino hiru puntu eskas handiagoa. Esparruka begiratuta, batez ere eremu formaletan handitu da erabilera —osasun zerbitzuetan eta udaletxeetan—, baina etxeko erabilera geldialdian dago, 1991ko portzentaje berberean: % 15,6. Hainbat tesik defenda-

tzen dute euskararen erabilera lortuko bada ezinbestekoa dela euskaldun izateko gogoia elikatzea. Gure iritziz, herrigintzan sakontzeak erabilera indartu lezake, eta euskal kulturaren adiera zabalak ere lagundu dezake zio horretan.

Huhezi ez da salbuespena joera orokor horretan. Nabaria da azken urte hauetan ikasleen tipologian eta haien hizkuntz portaeretan izandako aldaketa: gero eta gaztelania gehiago entzuten da fakultatean. 2009an % 62koa zen euskararen erabilera Eskoriatzako campusean; 2012an % 50ekoa eta 2017an % 45,84koa. Datuak argiak dira alde horretatik.

Kezka horrek ekarri du, hain zuzen, idazlan honetan hizpide dugun ikerketa proiektua antolatzea. Egin kontu fakultate honetan etorkizuneko irakasleak formatzen ditugula. Gure hezkuntza proiektuaren irteera profileen definitua dugu euskal eskolan eragile izango diren profesionalak nahi ditugula. Horregatik, gehiago jakin nahi dugu benetan gertatzen denaz, eta bide berriak esploratu.

Ikasturte honetan, lau urteko proiektu bat abiatu dugu, nola interbentzioak hala ikerketa biltzen dituena. Huheziko ikasleengan jarriko da fokua, baina ez da baztertzen irakasleekin ere lan egitea. Hizkuntza baten ezagutza eta erabilera, jarrera eta motibazioak pertsonak garatzen duten hizkuntz eta kultur identitatearen adierazle izanik, identitatearen garapenean nola eragiten duten aztertzea da helburu nagusia. Ikerketa longitudinala izango da. 2016-2017an hezkuntza graduatan lehen mailan egon diren ikasleen jarraipena egingo da, lau ikasturtez. Honako helburu zehatz hauek lortu nahi ditugu proiektuan:

1. Ikasleen euskara gaitasunari begirako neurriak hartzea kudeaketa akademikoan.

2. Ikasleek euskararekiko duten jarreraren eta motibazioan eragiteko neurriak hartzea ikas-irakas prozesuetan.

3. Euskal kulturgintzarekin loturiko neurriak hartzea curriculumaren arloan eta handik kanpokoan.

4.- Irakasle identitatearen eraketa prozesuan Euskal kontzientzia soziokulturala eraikitzekeo neurriak hartzea.

Horretarako, ez gara hutsetik hasten: Huhezin badira hainbat urte Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko graduondoa martxan jarri zela. Oraingo erronka izan liteke birpentsatzea nola eraman litekeen gradura ibilbide horretan garatutako ezagutza. Hiru dimentsioren ekarpena dago jokoan:


- Euskal kulturgintzaren inguruko ezagutza transmititzea egresatu kulturadun sustraitua helburu izanik.

- Euskararen ikuspegi instrumentala (kudeaketazkoa) gaindituko duten hezitzaileak formatzeko euskal nortasunaren laneketa kritikoa egitea, kulturgintzaren bitartez.

- Euskararen eta kulturaren sustapenez arduratuko diren profesional engaiatu eta ekintzaileak lortzea.

2016-2017 ikasturteko egiteko nagusia diagnostikoa egitea eta markoa eraikitzea izan da. Diagnostikoa egiteko, lehenengo mailako ikasleei inkesta bat bidali zaie ikasturte hasieran, eta, datu kuantitatibo horiek oinarri hartuta, datu kualitatiboak jasotzeko 5 eztabaida talde egin dira. Horrez gain, lehen aipatu bezala, fakultateko euskararen erabilerearen gaineko datuak ere jaso ditugu ikasturte honetan.





Galde-sortan, euskararekiko jarrerak, motibazioak eta portae-  
rak neurtu dira. Horrez gain, hizkuntz eta kultur identitateaz  
galdetu zaie, egiten duten kultura kontsumoaz, nola hautema-  
ten duten gaur euskaldun izatea, identitatea nola ezaugarritzen  
duten, nola asetzen dituzten identitate beharrak... Hasierako  
galde-sortako datuak ikasleen tipologia bat zehazteko baliat-  
u ditugu, eta, ondoren, tipologia horren arabera, hurrengo  
ikasturteei begira esku hartzeko proposamenak diseinatuko.  
Kontuan izan behar dugu familia eta testuinguru soziokultural  
ezberdinetatik datozkigula gure ikasleak.

Ondorioz, ezin ditugu esku-hartze berberak proposatu ikasle guz-  
tiantzat, eta diagnostiko honetatik abiatuta diseinatuko ditugu 2.  
eta 3. mailan dauden bitartean egingo ditugun esku-hartzeak.

2. eta 4. mailan, berriz ere galde-sorta bidaliko diegu ikas-  
leei, eta bestelako neurketa tresnak ere erabiliko ditugu, bi

urteetan izandako esku-hartzeek eraginik izan duten az-  
tertzeke eta Huheziko euskararen erabileran eraginik izan  
duen aztertzeke. Beraz, proiektu honen helburua, batetik,  
Huheziko komunitateak egiten duen euskararen erabileran  
eragitea da, eta, bestetik, ikasle bakoitzaren jarrera, portae-  
ra, motibazio, hizkuntz eta kultur identitateen garapenean ere  
eragitea, Huheziren irteera profil profesionalarekin bat egingo  
duten hezitzaileak formatzeko. Identitatearen sorkuntzan eta  
garapenean, alderdi formalak zein informalak dute garrantzi  
ukaezina, biek ala biek. Gure ikerketan, bi adierazpenak azter-  
tuko ditugu.

Badakigu gure ikerketa proiektuaren atzeko kezka ikastetxe-  
tan ere badagoena. Gure asmoa litzateke proiektuaren bitartez  
ikasitakoak eskolara transferitzea. Hizkuntz normalizazioaren  
arloak badu berritzeko premia, eta gu gure aletxoak jartzen saia-  
tuko gara.

# ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADU ERDI PRESENTZIALETAN

► NAGORE IPIÑA eta JONE RODRIGUEZ

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea





Gizarteak zenbait iraultza teknologiko bizi izan ditu mendeetan zehar. Azkeneko iraultza honetan, Ezagutzaren Gizarte deri-tzogun honetan, espazioa globalizatu eta deslokalizatu da; halatan, mikroistorio, mikroultura eta mikrosegundoen aroa sortu da (Ipiña, 2012). Castells-ek (1996) dioen bezala, berehalakotasunean oinarritzen den gizarte dugu azken hau. Iraultzaren protagonista nagusietakoak teknologiak dira. Teknologiek informazioa desmaterializatu, deslokalizatu eta globalizatu dute. Ramonetek (2011) aipatzen du informazioa *work in progress* bat bihurtu dela; norabide horizontal eta zirkularrean mugitu eta garapen etengabe dagoen *work in progress* bat. Ondorioz, gizartean, oro har, eta hezkuntzan, zehazki, erronka berriak sortu dira. Hezkuntza eta gizarte, gizarte eta hezkuntza, bat dira, azken finean. Horregatik, Morin-ek (1999) dio gizarte eredu berriko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela. Horren haritik, hezkuntzaren helburuetako bat izango da ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko aukera emango dien eredu sortzea (Bauman, 2011; Riveros eta Mendoza, 2005). Hezkuntza sistemek, beraz, ikaste eta irakaste prozesu esanguratsu eta eraginkorrak sustatu beharko dituzte, eta, egoera horretan, zeresan handia izango dute teknologiek (Fullan, 2002).

Testuinguru horretan, eta Ezagutzaren Gizartearen paradigma berrian kokatuz, ezinbestekoa da bizitza osoan zehar garatzen eta partzialki eta kritikoki eraikitzen joango den prozesu gisa ulertzea hezkuntza (Ipiña, 2012). Gainera, aldaketa ziurgabeek (Morin, 1999) etengabe ikastera eta desikastera eramaten gaituzte. Eskaintza erdi presentziala edo online bidezko ikaskuntza aldaketa marko horretan kokatzen da, hain zuzen ere, ikaskuntza egonkorra eta aurrez ezarria ez bezala (UNESCO, 2015). Mondragon Unibertsitateak egoera horri erantzun nahi izan dio, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu ez-presentzialen eskaintzan ere berrikuntza prozesu bat abiaraziz. Horretarako, eskaintzako ikasleen beharrei erantzuteko eta Ikus-entzunezko Gradu ikasketetan egindako aldaketei jarraituz, erronketan oinarritutako ikaskuntzaren bideari ekin genion.

## JATORRIA

Badakigu ikasketa erdi presentzialek edo online eskaintzek aukera berriak definitu dituztela: lan egiteko modu berri bat, ikasteko modu berri bat, komunikatzeko modu berri bat, elkarrekintzarako modu berri bat eta baliabideak kudeatzeko modu berri bat, besteak beste. Konektibitatea; malgutasuna eta egokitzapenak sustatzeko aukera, hain zuzen ere. Gainera, berrikuntza sustatu nahi bada, halako eskaintzak –erdi presentziala edo online– derrigorrezko bilakatu dira goi mailako hezkuntzan (Sultana, Khalil eta Perveen, 2016). Ezin da izan, ordea, edonolako eskaintza. Mondragon Unibertsitateak 2012an eskaini zituen lehenengo aldiz Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduak modalitate horretan. Helburua izan zen –eta da– esparru bereko profesionalen zein beste esparruetako lizentziatu, diplomatu eta graduatuei etapa profesional berri bat hasteko aukera ematea. Era horretako eskaintzek, ordea, etengabeko egokitzapenak behar dituzte, aldaketa teknologikoekin uztartuta.

## ORAIN ARTE EGINDAKOA

Aldaketa konplexu eta etengabeen paradigmaren, Mondragon Unibertsitateak 2014/2015 ikasturtean ekin zion online eskaintzaren eredu pedagogikoaren inguruko hausnarketari. Eskaintzako ikasle eta irakasleekin elkarrizketak egin, eta hobetzeko zenbait alderdi identifikatu ziren. Irakasleek aipatu zuten zailtasunak zituztela ikasleengandik gertu egoteko eta ikasle profil berriei egokitzeko. Ikasleak ere bat etorri



ziren esandakoarekin: harremanetarako konplexutasuna eta isolamendu sentsazioa, profil eta erritmo desberdinetara egokitzeko zailtasunak, hots, pertsonalizazio falta. Beraz, ibilbidearen zati handi bat egina bazegoen ere, aldaketa beharra sumatzen zen. Gainera, aurrez adierazi den bezala, Ikus-entzunezko Graduak hasia zuen berrikuntza (ikus X artikulua), erronketan oinarritutako ikaskuntzaren arloan. Momentu berean, Mendeberry 2025 hezkuntza proiektuaren birdiseinua abian zen.

Aldaketa poliki-poliki hasi genuen, 2015/2016 ikasturtean: hiru materia hartu (*Errealitatearen ikuspegi globala, Gizarte zientzia, zientzia esperimentalak eta teknologiak I eta Hezkuntza sistemak Europan eta munduan zehar*; ingelesez azken hori), eta diziplinarteko bi erronka diseinatu ziren. Ikasle zein irakasleen ahotsak batu, eta ikusi genuen denen asebetetze maila asko igo zela. Ondorioz, lehenengo ikasturtea bere osotasunean hartu, eta 7 erronka diseinatu eta martxan jarri ziren 2016/2017 ikasturtean.

Arestian aipatu bezala, erronketan oinarritutako ikaskuntza martxan jarri zen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu erdi presentzialetan. Erronketan oinarritutako ikaskuntza metodologia aktiboen markoan kokatzen da, eta XXI. mendeko konpetentzien garapenerako gomendatuenetako bat da (Johnson, Smith, Smythe eta Varon, 2009; Johnson eta Adams, 2011). Modu askotan definitu da metodologia hori, baina definizio guztiek (Apple, 2010; Tecnológico de Monterrey, 2015, adibidez) alderdi jakin batzuk hartzen dituzte aintzat: ikasleek kolaborazioan erantzuten diete erronka errealei; erronkei aurre egiteko, teknologiaren erabilera sustatzen da; erronkak arazo errealetatik eratortzen dira, eta, beraz, disziplinarartekoak dira; irakasleek taldean egiten dute lan, eta gaurkotetasunaren kontzientzia eta ezagutza handia izan behar dute; irakasleek ikasleen interesak eta munduko gertakizunak lotzeko saiakera egin behar dute, ikaste esperientzia abiapuntutzat hartuz.

Erronkak estimulu ere badira ikasleentzat, eta ezagutza sakona eta diziplinarartekoa sustatzen dira (Apple, 2010; Tecnológico de Monterrey, 2015). Definizioak bezala, zenbait eredu sortu dira

erronketan oinarritutako ikaskuntza martxan jartzeko. Kasu honetan, Cordray, Harris eta Klein-en (2009, hemen: Tecnológico de Monterrey, 2015) STAR Legacy zikloa [Irudia 1] hartu izan da oinarritzat.



**Irudia 1.** STAR Legacy zikloa (Tecnológico de Monterrey, 2015: 10)

Irudian ikus daitezkeen bezala, zikloak 6 elementu nagusi ditu. Lehenik eta behin, erronkaren arazoa definitzea gomendatzen da. Gero, ideien zaparrada. Ideien zaparradatik irtengo dira, hain zuzen ere, erronkaren inguruko lehenengo hausnarketak. Hirugarren unean, erronka zenbait ikuspegitatik lantzea sustatzen da. Ikertuz, ikasleek gaietan sakontzen dute. Bosgarrenik, egingakoa ebaluatzen dute ikasleek –errubrika bidez, adibidez–, eta, azkenik, emaitzak publikatzen dira. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza erdi presentzialean, 7 erronka diseinatu ziren ikasturte osorako [Taula 1].



TAULA 1. Eskaintza erdi presentzialaren erronkak. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetak 1. ikasturtea.

ERRONKA Izenburua eta helburuaren laburpena	(01) "Irakasle lanbidera hurbilpena": helburua irakasle profilari lehen hurbilpen bat egitea da, norberak ikasle bezala izan dituen bizipenetatik.	(02) "Tradiziotik postmodernitatera": Ni nire gurasoak baino hobeto bizi naiz, nire seme-alabak ni baino hobeto biziko dira ?/.../ / ;/_ leloari erantzunez, ikasleek errealitate sozial, kultural, linguistiko, zientifiko eta teknologikoaren inguruko hausnarketa eta azterketa lokal eta globala egitea da xedea.	(03) #Haur Hezkuntza#: "Zuri guztiak ez dira irin": helburua haurtzarora etapa luzea eta anitza dela ulertzea da, eta haur guztiak ez direla berdinak. Beraz, 0-6 bitarteko ume bat zer den eta haren garapena nolakoa den aztertzen dute ikasleek, Guztiontzako Eskola bat irudikatuz.
			(03) #Lehen Hezkuntza#: "Aniztasuna bere barnean hartzen duen guztiontzako eskola". Eskolak ikasle guztien parte-hartzea eta ikas-kuntza bermatzeko beharraz hausnartzen dute ikasleek.ww
Lantzen diren ikuspegiak	Autoezagutza eta soziolinguistika	Soziologia, soziolinguistika, gizarte zientziak, teknologia, zientzia esperimentalak eta antropologia	Haur Hezkuntzan: garapenaren psikologia, arreta goiztiarra, hezkuntza inklusiboa, didaktika eta eskola antolaketa Lehen Hezkuntzan: garapenaren psikologia, hezkuntza inklusiboa, didaktika eta eskola antolaketa
Iraupena	2	5	7
Emaitzak argitaratzea	Autobiografia bisuala eta idatzizko justifikazioa	Dokumentala	Haur Hezkuntza. Taldearen aldizkariaren 1. zenbakia
			Lehen Hezkuntza: Jardunaldien antolaketa

ERRONKA Izenburua eta helburuaren laburpena	(01) "Euskal eskolarako irakasle idealaren bila". Galdera hauei erantzuten saiatzen dira ikasleak: zer nolako irakasleak nahi ditugu euskal eskolarako? Zer kompetentzia garatu behar dituzte irakasleek? Zer eskatzen zaio XXI. mendeko irakasle bati? Zer ezaugarri dituzte eta izan beharko lituzkete gaur egungo euskal hezkuntza sistemako eskolek?	(02) "Tradiziotik postmodernitatera hezkuntzan": "XIX. mendeko erakundea, XX. mendeko arduradunekin, XXI. mendeko pertsonak hezteko(?)": gizartearen eta hezkuntzaren arteko elkarre-ragina aztertzen dute ikasleek.	(03) #Haur Hezkuntza#: Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu": helburua Haur Hezkuntzako esku-hartzea eta antolaketa ahalik eta egokien zehaztea eta eskola ideala irudikatzea da.	(01) "Ni, irakasle": norberaren ibilbidearen autoebaluzioa egiten dute, eta aurrera begirako erronkak definitzen dituzte.
			(03) #Lehen Hezkuntza#: "Ezina ekinez egiten da": Guztiontzako Eskolaren markotik abiatuta esku-hartze mailako estrategietara jaistea izan da helburu nagusia.	
Lantzen diren ikuspegiak	Didaktika, autoezagutza eta soziolinguistika	Hezkuntzaren teoria eta historia, hezkuntzaren soziologia	Haur Hezkuntzan: garapenaren psikologia, arreta goiztiarra, hezkuntza inklusiboa, didaktika eta eskola antolaketa	Autoezagutza
Iraupena	3	7	6	2
Emaitzak argitaratzea	Idatzizko memoria	Museo birtual baterako obra eta haren justifikazio idatzia	Haur Hezkuntza. Taldearen aldizkariaren 2. zenbakia	Portafolio pertsonala
			Lehen Hezkuntza: esku-hartze baten diseinua	

Taulan ikus daitekeenez, hiru multzo nagusitan banatzen dira erronkak: irakasle profila (01), gizartea (02) eta haurra (03). Erronka guztiek, ordea, antzeko egitura bati jarraitzen diote: ikasleari zenbait galdera orokor aurkeztu, eta ikasleak edo ikasle taldeak galdera horien erantzuna bilatu beharko du, ikerketa prozesu bat eginez; gero, ikerketa amaitzerakoan, produktu batean islatu beharko dituzte emaitzak. Erronka bakoitzaren iraupena ezberdina da –curriculumaren kredituen arabera, hain zuzen ere–. Erronka bakoitzean ikuspegi jakin batzuk lantzen direnez, bi edo hiru irakaslek gidatzen dute prozesua. Irakasle taldea bera da, ordea, erronka multzo bakoitzean (01, 02 eta 03).

## AURRERA BEGIRAKOAK

Asko dugu egiteko eta ikasteko oraindik, baina lehenengo ikasturteko esperientziak –ikasle eta irakasleen ahotsak jaso ostean– erakutsi digu erronketan oinarritutako ikaskuntzak aukera ematen duela garapen pertsonal zein profesionalerako eta ikaste komunitateak eratzeko. Uste dugu erronkak diseinatzerakoan sortutako espazio birtual intentzionalek ikasleen arteko elkarmenpekotasun positiboa sortu dutela ikasle taldearengan, eta, ondorioz, isolamendu sententzia desagertu da. Era berean, pertsonalizazioaren definizio gaurkotu baten bueltan, erronkek aukera eman digute ikasle guztien eta bakoitzaren interesetatik abiatzeko eta, ondorioz, ikaste esperientzia pertsonalizatuak eskaintzeko.

Esperientzia disziplinartekoak sortzea estimulagarria da ikasle eta irakasleentzat (Tecnológico de Monterrey, 2015). Hau da, XXI. mendeko kompetentziak garatzeko ere esparru posibleak eskaintzen dizkigute erronkek. Horren ildotik, ikusi dugu ziurgabetasunari aurre egiteko estrategiak garatzen dituztela ikasle eta irakasleek, lanketa holistikoagoa egiten dutela eta errealitateari hurbiltzeak eragina duela motibazioan. Badira, ordea, beste kompetentzia batzuk beste lanketa mota bat eskatzen dutenak: ikasten ikastea eta denboraren kudeaketa, besteak beste.

Oro har, ordea, badirudi, hala ondorioztatu baita beste ikerketa lan batzuetatik (Keengwe eta Kang, 2013), metodologia aktiboen eragina positiboa dela online ikasketetan edo eskaintza erdi presentzialetan. Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatuko eskaintza erdi presentzialean egindakoak, ordea, baditu aurrera begira aztertutako beharrek beste hainbat alderdi, erronketan oinarrituta, ikaskuntzari dagokionez. Eskuarrean dugun beste lan batean ondorioztatu dugu (Azkarate eta Ipiña, bidean), adibidez, diseinatutako erronka guztiek ez dituztela Cordrayk, Harrisek eta Kleinek proposatutako Star Legacyko pauso guztiak betetzen (2009, hemen: Tecnológico de Monterrey, 2015). Beraz, 2016/2017rako diseinatutakoak izendatzeko, erronka ez, baizik eta lan-proposamen terminoa (Carrera eta Astigarraga, 2017) erabiltzea hobetsi dugu. Lan-proposamen kontzeptuak aukera emango digu txapel orokorrako baten azpian metodologia ezberdinak martxan jartzeko: inquiry based learning-a, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, kasuetan oinarritutakoa... Ikasleak, beraz, aukera izango du metodologia ezberdinak esperimentatzeko eta, ondorioz, etorkizuneko lanbide izango duenean teoriatik zein praktikatik ikaste esperientziak diseinatzeko.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

APPLE (2010). Challenge Based Learning. A Classroom Guide. Hemen: [http://images.apple.com/education/docs/CBL\\_Classroom\\_Guide\\_Jan\\_2011.pdf](http://images.apple.com/education/docs/CBL_Classroom_Guide_Jan_2011.pdf)

AZKARATE, M. ETA IPIÑA, N. (bidean). The analysis of online students' experience. Publikatu gabeko dokumentua.

BAUMAN, Z. (2011). 44 cartas desde el mundo líquido. Paidós: Barcelona.

CARRERA, X. ETA ASTIGARRAGA, E. (2017). Metodologías activas. Publikatu gabeko dokumentua.

CASTELLS, M. (1996). La era de la Información. Economía, Sociedad y Cultura. Vol.1 La Sociedad Red, Alianza Editorial: Madrid.

FULLAN, M. (2002). Los nuevos significados del cambio en la educación. Octaedro: Barcelona.

IPIÑA, N. (2012). Wikiaren erabilera lankidetzako idazketaren garapenerako CLIL-POI testuinguruetan. Jarrerren eragina. Mondragon Unibertsitatea - Doktorego tesia. Zuzendariak: Sagasta, P. eta Larrea, I. Hemen: [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nagore\\_Ipina\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Nagore_Ipina_TESIA.pdf)

JOHNSON, L.F., SMITH, R.S., SMYTHE, J.T. ETA VARON, R.K. (2009). *Challenge-Based Learning: An approach for our time*. The New Media Consortium: Austin, Texas.

JOHNSON, L.F. ETA ADAMS, S. (2011). *Challenge-Based Learning: The report of the implementation project*. The New Media Consortium: Austin, Texas.

KEENGWE, J. ETA KANG, J.J. (2013). A review of empirical research on blended learning in Teacher education Programs, *Education and Information Technologies*, 18 (3), 479-493.

MORÍN, E. (1999). *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, Paris: Frantzia.

RAMONET, I. (2011). La explosión del periodismo. De los medios de masas a la masa de medios, Clave intelectual: Madrid.


RIVEROS, V. ETA MENDOZA, M.I. (2005). Bases teóricas para el uso de las TIC en Educación. *Encuentro Educacional*, 12(3), 315-336.

SULTANA, N., KHALIL, A. ETA PERVEEN, U. (2016). Designing effective e-learning framework for higher education: Critical Success Factors, *NICE Research Journal*, 135-157.

TECNOLÓGICO DE MONTERREY (2015). *Reporte EduTrends. Aprendizaje Basado en Retos*. Hemen: <http://observatorio.itesm.mx/edutrendsabr/>

UNESCO (2015). *Replantear la educación. ¿Hacia un bien común mundial?*. Hemen: <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002326/232697s.pdf>





## HEZKUNTZA MEDIATIKOA: LEHEN HEZKUNTZA, HAUR HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUETAN ELKARLANEAN

► ANDER BOLIBAR, MAITE GARCIA eta TXEMA EGAÑA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Hezkuntza mediatikoa ez da gai berria Mondragon Unibertsitatean; izan ere, Hezikom ikerketa taldea gai horren inguruan lanean aritu da azken urteotan, eta honela jasoa du hezkuntza mediatikoaren gaia bere helburuetan:

- Ikus-entzunezko produktuen, komunikabideen eta Interneten proiektio soziala eta beren eragina hezkuntza-eragile bezala, arreta berezia jarrita gertuko hedabideen gizarte-ekarpenari.
- Ikasleen interakzioa ikus-entzunezko edukiekin, informazioarekin eta Internetekin.
- Ikasleen konpetentzia digitalak eta informazio-konpetentziak.
- Ikus-entzunezkoen erabilera ikaste-irakaste prozesuetan, eta baita ikasleen ikus-entzunezko produktioa ikaskuntza esanguratsuari bide emateko tresna modura eta berauen sormenaren eta ekintzailetasunaren garapena ere.

Gaur egun, geroz eta informazio gehiago jasotzen dugu sare sozialetatik eta hedabideetatik; hainbat ikerketak dioenez, gazte-jendea da sare sozialen eta hedabideen erabiltzaileen gehiengoa, baina, aldi berean, populazio segmentu hori ez dago mediatikoki alfabetatuta (Aguaded, Marin eta Díaz, 2015). Consell de Audiovisual de Catalunya (CAC) 2004an Katalunian eginitako ikerketaren arabera (Gubern, 2013: 406an aipatua), esate baterako, Kataluniako umeek urtean 990 ordu ematen zituzten telebista aurrean eta 960 ordu ikasgelan. Azken urteotan, gainera, Internet konexio azkarren, sare sozialen eta gailu mugikorren erabateko hedapenaren eraginez, gazteek gero eta eskuragarriago dituzte ikus-entzunezkoak.

Horregatik, hain zuzen, Unescok *Mapping media education policies in the world* (2009) eta *Media and information literacy curriculum for teachers* (2011) lanak plazaratu ditu; era berean, ikastetxeetan Alfabetatze Mediatikoa ikasgaia ematea proposatu du Europar Batasunak (2009), eta Europako Batzordeak ere (2010) aholku hau emana du: *“Increase media literacy of the young generation”*.

Zertaz ari gara, baina, hezkuntza mediatikoaz ari garenean? Gaiari buruzko askotariko definizio eta sailkapenak daude (Ferrés eta Masanet, 2015:14-15). Europar Batasunak 2011n plazaraturiko sailkapenaren arabera, konpetentzia digitalaren 5 dimentsioetako bat da alfabetatze mediatikoa, eta modu honetan definitzen dute Thoman eta Jolls-ek (2003): *“The ability to access, analyze, evaluate and create communications in a variety of contexts”*. Erresuma Batuko Komunikazio Bulegoak, berriz, hiru dimentsio hauek azpimarratzen ditu (Ofcom, 2006): *access* (edukietarako sarbidea/irismena, jabeakuntza teknologikoa), *understand* (eduki horiek, haien hizkuntza eta haien sorkuntza-ingurumaria ulertu eta interpretatzeko gaitasuna) eta *create* (eduki horiekin elkarrekintzan jarduteko ahalmena). Ferrés eta Piscitelli-k (2012), berriz, Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak (CAC) plazaratutako lan batean, 6 dimentsiotan banatzen dute hezkuntza mediatikoa, eta sailkapen hori baliatuko dugu geuk ere gure proposamenean, azken boladan kaleraturiko inguruko zenbait ikerketak ere huraxe hartzen baitu erreferentziatzat. Hona, beraz, zein diren 6 dimentsio horiek: dimentsio estetikoak, ikus-entzunezko hizkuntza, ideologia eta balioak, sarbidea eta interakzioa, teknologia, eta, azkenik, ekoizpena eta difusioa.

## HEZKUNTZA MEDIATIKOAZ DIHARDUGUNEAN, ASKOTARIKO DEFINIZIO ETA SAILKAPENAK DAUDE

Era berean, Alemaniako IFIB ikerketa taldeak (Grafe, Breiter, 2014) *Pedagogical Media Competencies* kontzeptua ekarri du hizpidera, eta lotura zuzena egin hezkuntzarekin eta irakasle-letzarekin. Haien ustez, hiru atal nagusi bereizten dira haren barruan: *media use for teaching and learning*, *teaching about media* eta *technology planning within school development*. Ildo beretik, Antwerpeko Unibertsitatean eta Flandriako Hezkuntza Ministerioaren ekimenez, erreferentziatzko marko bat osatu dute, *Media Didactica: media literacy reference framework* izendatu dutena eta hiru subjektu talde hauek kontuan hartzen dituen (*target groups*): ikasleak, irakasleak (eta etorkizuneko irakasleak, hezkuntzako graduak ikasten ari direnak) eta hezkuntzako graduatuko irakasle unibertsitarioak.

Beraz, unibertsitateak ere hezkuntza sistemaren partaide diren neurrian, hezkuntza mediatikoaren garapenaren ardura hartu behar dute. Gaitasun edo kompetentzia hori edozein titulazio-tan garrantzitsua bada ere, azpimarratu nahi dugu eragin bikoitz eta berezia duela Hezkuntza Zientzien esparruan: alde batetik, gaitasun hori landua izango duten irakasle profesionalak sortze aldera, eta, bestetik, gaitasun hori jorrotuta izango duten haur eta gazteak hezten laguntze aldera (Irakasle Ikasketak burutu ostean, lan merkatuan eta hezkuntza sisteman integratuko diren irakasleak ezinbesteko eragile bihurtzen baitira herritarren garapenean). Era berean, beharrezkoa da Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatuak diren ikasleen profil hezitzailea sustatzea, inportantea izan baitaiteke bereziki hezkuntza ez-formalaren alorrean, hau da, geletatik kanpo eraikitzen dugun ikasketa prozesuetan.

Hori guztia gogoan izanik, garrantzitsu deritzogu hezkuntza sistemako partaideen ahotsak jasotzeari (eskoletako irakasleak, gurasoak eta hezkuntzako adituak). Inportantea iruditu zaigu, horrez gain, hezkuntza sistemaren barruko lekukotzak ez ezik, etorkizunean irakasle izango diren pertsonen ahotsak ere jasotzea (egungo hezkuntzako ikasketetako ikasleek, alegia). Eragile horiek guztiak lagun izanik, gure ume eta gazteen hezkuntza mediatikoari erreparatu, eta egoeraren diagnostikoa egin da. Diagnostiko horren emaitzak kontuan hartuz, hezkuntza mediatikoa lantzeko hezkuntza proposamena osatzen ari gara, helburu nagusi bat izanik gogoan: hezitzaileei hezkuntza mediatikorako estrategiak eskaintzea, haiek beren ikasleekin garatu ditzaten (hau da, hezitzaileen kompetentzia mediatiko-pedagogikoak sustatzea da xedea). Horretarako, ahalegin berezia egingo da hezitzaileek (egungoek eta etorkizunekoek) beren kompetentzia mediatikoaren gaineko kontzientzia har dezaten hezkuntza proposamenean eta horrek daukan garrantziaz jabetu daitezen. Uste dugu hori guztia eginez bizitza osorako ikaskuntza erraztuko duten inguruneen garapenean eragingo dugula.

Horrela, landa lanean, 3 eztabaida talde eta 4 elkarriketa sakon egin dira hiru graduatuko irakasle eta koordinatzaileekin. 3 eztabaida taldeak gradu bereko ikasleekin egin dira, eta 13 ikasleren ekarpen idatziak jaso dira. Azkenik, elkarriketa sakonak egin dira gaien erreferente diren nazioarteko 5 aditurekin: Joan Ferres (Universitat Autònoma de Barcelona), Silke Grafe (Würzburg University, IFIB ikerketa taldea, Alemania), Christian Kögler (University of Education Upper Austria), Jan Jats (Antwerp University, Belgika) eta Juana Sancho (Universitat de Barcelona).

Hona hemen egindako landa lanaren bidez jaso ditugun ekarpen batzuen adibideak, irakasleak teknologiarekiko izan behar duen rolaren ingurukoak:

Irakasleek integratu egin behar dutela media ikaste-irakaste prozesuetan, *“Teachers must also be able to integrate media in the learning process and they have to use media as a didactic tool”*. Baina era berean, irakaslearen rola egon behar da fokatuta ikasleei laguntzeko euren prozesuan, kontuan izanda atentzioa dela ikasleek duten beharrik handiena, *“Sin olvidar que el bien máspreciado hoy en día no es la información, sino la atención. Hay que trabajar la atención en educación”*. Irakasleek jakin behar dute media berria nolako den, sare sozialak nola erabiltzen diren, *“Teachers has to know about how media works, social media for example. Also the content, the effects, and consequences. Teachers have to know how children use them, for what, the effects... How important is the technical aspect? Try to find out what teachers do in their lives”*. Azkenik, Hezkuntza Graduak ikasten ari diren ikasleek ustez, euren lanean hasten direnean alor honetan ondo arituko diren sententzia dute, haurrek iritzi ona izango dutela euren profesionaltasunaz. Ikasleek euren buruaz oso ziur sentitzen dira gai teknologiarekin zerikusia duten gaiekiko: *“Kontrolatzen dugula eta haiekiko gertuago ikusiko gaituzte”*. Ikasle hauek euren burua prest ikusten dute etorkizunari begira. Ez dakitenei ere ez diete beldurrik, ikasiko dutelako konfiantza daukate.

### LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

Gure xede edo helburu nagusia zera da: hezkuntza komunitateko protagonisten ahotsak jasoz hezkuntza mediatikoaren inguruan ikertzea eta hura hobetzeko hezkuntza proposamen bat (sekuentzia didaktikoa) osatzea Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako graduatutarako, baita Ikus-entzunezko Komunikazioko gradurako ere, non gradu bateko baino gehiagotako ikasleak lanean arituko diren elkarrekin, diziplinartekoan. Proposamena hezkuntza etapa guztietara hedatu ahal izango da.

Hori guztia diziplinarteko eran lantzeko, aukera bikaina da Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean Lehen Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako eta Ikus-entzunezko Komunikazioko graduak eskaintzea; hori ez da ohikoa izaten, eta foro guztietan aitortu digute indargune ederra dela. Gainera, hiru guztietan berrikuntza metodologiko sakonak diseinatzen eta martxan jartzen ari dira, curriculum lan sekuentzietan eta lan proposamenean ardatzuz. Hori ere aukera ederra izango da lan sekuentzia berri eta diziplinartekoak diseinatzeko.

Horrez gain, ezin ahaztu azken urteetan zehar hezkuntza mediatikoaren inguruan orain arte egin diren lanak. Horrela, Berrimet masterreko 3 Master Amaierako Lan egin dira, izenburu hauekin: *“Ikus-entzunezko produkzioa tresna pedagogiko gisa:*

irakasleen prestakuntza bideo-produkzioan Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren bidez (POPBL)”; “Zertarako eta nola erabiltzen dute unibertsitate-irakasleek film bat / ikus-entzunezko bat tresna hezigarri modura? Mondragon Unibertsitateko HU-HEZIKo kasu-azterketa”, eta “Dokumental faltsuen paradoxa. Zuzendarien asmoak eta ikusleen interpretazioa”. Horrez gain, zenbait gradutako zenbait materiatan landu izan dira halako gaiak; adibidez, Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan: EDIT proiektua, BREAK proiektua, IKTak Hezkuntzan materia eta Artea Hezkuntzan materia; eta IKO graduan: Hezkuntza saiok telebistan, Ikus entzunezko komunikazioaren deontologia (balioak eta ideologia), Etika narratiboa (balioak eta ideologia).

Aurten egindako lana bi kongresuetan aurkeztu da. Bata, Herbehereetan, ECREA Journalism and Communication Education kongresuan, eta bestea, Segoviako III. Congreso Internacional de Educación Mediática y Competencia Digital-ean.

## ZAILTASUNAK

Proiektuak izan ditzakeen zailtasunak identifikatzen saiatu gara, eta, orain arte, hauek ikusi ditugu: gaiak dimentsio asko ditu, eta alor asko ukitzen ditu; hortaz, arriskua dago dimentsio gehiegi landu nahi izateko batera. Bestalde, lehen aldia izango da hiru graduetan lan sekuentzia bateratu bat egiten dena, eta horrek zailtasunak ekarriko ditu. Bestalde, arriskua dago zeharkako kompetentzia gisa geratzeko eta halako gaiak azkenean inon ez lantzeko esplizituki. Konplexua ere ikusten dugu behin lan sekuentzia martxan jartzen denean ikerketa dispositibo egokiak diseinatzea; aztertze lan sekuentzietan gertatzen da hori. Beste zailtasun bat izango da, halaber, kompetentziak maila guztietara garraiatzea, lehenengo mailatik laugarrenera. Azkenik, aitortu behar dugu gai guztiok hezkuntza ez-formalean lantzeko eskarmenturik ez dugula.





## **ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA: HUHEZIKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO GRADUKO IKASLE ETA IRAKASLEEN AHOTSAK**

► MAITE GARCÍA, SIRATS SANTA CRUZ eta ANDRES GOSTIN

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



## TESTUINGURUA / KOKAPENA

XI. mendearen hasieratik, aldaketa ugari egin dira unibertsitateetan oro har eta Mondragon Unibertsitatean (MU) zehazki. Horren adibide da Mendeberrri proiektua –MUren hezkuntza proiektua–. 1999. urteaz geroztik, unibertsitateak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren eraikuntza prozesuan –*Bolonia prozesua* izenez ezagunagoa– murgilduta daude. Horrek aldaketa ugari ekarri ditu unibertsitateko ikaste-irakaste prozesuetan; nagusiki, jauzi egin da irakasleak irakatsi nahi duenetik ikasleak ikasi behar duenera (Ruiz-Torres, 2014). Gainera, egungo gizarte aldakorrek erronka berriak dakartzat hezkuntza unibertsitariora (Alzola, Arratibel, Mongelos, Pedrosa, Pérez & Uriarte, 2010; Montero, 2010; Fernández-March, 2006); nagusiki bat: etorkizuneko ziurgabetasuneko agertoki profesionala kontuan hartuko duen ikaskuntza-irakaskuntza eredua sortzea.

MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) fakultatean, 2009/2010 ikasturtean ezarri ziren lehen graduak. Hori horrela, Boloniako Adierazpena (1999) eta Mendeberrri proiektua aintzat hartuta, aldaketa metodologiko sakonak egin ziren. HUHEZIn kasuan, aldaketa metodologiko hori paradigma berrietara bideratu zen (Alzola *et al.*, 2010). Batez ere, edukietan oinarritutako curriculumetik kompetentzietan oinarritutako curriculumera jauzi egin, eta irakaslearen transmisioan oinarritutako metodologia batetik ikasleak norberaren ikaskuntza prozesuaren ardura hartuko duen metodologia baterako pausoa eman zen.

Testuinguru horretan, 2013/2014 ikasturtean, HUHEZiko Ikus-entzunezko Komunikazio gradua birplanteatzen hasi zen graduako koordinazio taldea. Izan ere, taldea kontziente da gizartea, hezkuntza eta, nola ez, ikus-entzunezko esparrua hedatzen eta aldatzen ari direla eta, beraz, aldaketa horietara egokitu beharko litzatekeela gradua. 2014/2015 ikasturtean, ANECAren onspena jaso zuten graduako curriculumean aldaketa batzuk egiteko. Ikasleen kompetentzia eta ikaste emaitzei aurreko ikasturteetan baino garrantzi handiagoa eman zitzaizen, eta materietan oinarritutako curriculumak aplikatzen jarraitu zuten. Hala ere, iruditzen zitzaizen ordura arteko sistema berean jarraitzen zutela, zatikatuegia baitzen beren iritziz; eta, beraz, aldaketa handiagoa egiteko beharra sentitu zuten.

Hori horrela, 2015/2016 ikasturteari begira, bi helburu nagusi ezarri zituzten: 1) gradua moldatzea XXI. mendeko unibertsitateetako irakaste metodoetara, non kompetentzien garapena, diziplinartekotasuna eta metodologia aktiboak oinarri hartuko diren; eta 2) ikasketak etorkizuneko profesionalen lan mundura gerturatzea.

Birmoldaketa horretatik sortu zen, hain zuzen, 2015/2016 ikasturtean, Ikus-entzunezko Komunikazio graduaren berrikuntza metodologikoa. Metodologia aktiboan eta, zehazki, erronketan oinarritutako metodologiaren aldeko apustu indartsua egitea erabaki zen. Berrikuntza horrek, Mendeberrri proiektuan eta HUHEZiko hezkuntza paradigmaren kokatzen bada ere, badu bereizgarri nagusi bat: materietan oinarritutako curriculumak alde batera utzi, eta, graduako kompetentzia orokorretatik eratorritako ikaste emaitzak abiapuntu hartuta, erronketan oinarritutako diziplinarteko lan sekuentzietan antolatu da curriculumak. Berrikuntzaren ardatza, beraz, graduako curriculumak Erronketan Oinarritutako Ikaskuntzaren –*Challen-*

## IKASLE ZEIN IRAKASLEEN BALORAZIOETAN AZPIMARRATU DA LOTURA ZUZENAK EGIN DITUZTELA ERREALITATEAREKIN ETA LANBIDEAREKIN.

*ge Based Learning (CBL)* delakoaren– arabera antolatzean eta kudeatzean datza.

Lan sekuentzia guztiak ezberdinak izan arren, oro har, antolaketa berdintsua izan dute. Irakasle zein ikasleek taldean lan egin dute, eta sekuentziak iraun duen denboran jardun osoa horretara egon dira; alegia, ez dira bi lan sekuentzia une berean landu. Ikasleek erronka bati erantzun behar izan diote lan sekuentziak iraun duen bitartean. Kasu batzuetan, lehendabizi, gaian jantzi dira, batez ere irakasle eta adituen azalpenak eta irakurgaiak landuta; eta, ondoren, praktikan jarri dute aurrez teoriarik landutakoa, jarduera edo tailer batzuen bidez. Beste kasu batzuetan, ordea, ikasleak hasieratik hasi dira jarduerak egiten, eta paraleloki gaian jantzen joan dira. Amaitzeko, kasu guztietan, ordura arte ikasitako guztia kontuan izanik, erronkari erantzuneko dion azken produktua sortu dute, taldean lan eginaz; esate baterako, irratiaio bat edo dokumental bat. Gainera, hainbat sekuentzietan, azken produktu hori publikatzeko aukera izan dute; hala, etorkizuneko lanbidearekin eta errealitatearekin lotura zuzena egin da.

Aipatutako berrikuntza hori graduako lehenengo eta bigarren mailetan abian jarri bazen ere, jada 2016/2017 ikasturtean graduako hirugarren mailara hedatu da eta 2017/2018 ikasturtean laugarrenera. Gainera, fakultateko beste ikasketetara ere hedatzen hasi da, 2017/2018 ikasturtean hezkuntza graduatiko lehenengo mailara hain zuzen. Asmoa da, datozten ikasturteetan, hezkuntza graduatiko gainerako mailetara ere hedatzea, kontuan izanda azken ikasketa horiek nagusiki hezkuntza munduarekin dutela lotura, eta ekarpen esanguratsua izan daiteke hezkuntzak aldi berean gizartearekin duen harreman sendoa dela eta.

## IKERKETAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Ikerketa Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateak Aretxabaletan (Gipuzkoa) duen campusean kokatzen da, han eskaintzen baita Ikus-entzunezko Komunikazio gradua. Guztira, 12 irakasle eta 94 ikasle parte hartu dute berrikuntzan eta ikerketan.

Ikerketaren helburu nagusia zera da: irakasleen eta ikasleen pertzepzioetik Ikus-entzunezko Komunikazio graduako berrikuntza metodologikoa baliozkotzea eta hobekuntza proposamenak egitea. Horretarako, bi kolektiboek 2015/2016 ikasturtean zehar bizi izan duten ikaskuntza esperientziaren balorazioa eza-gutu nahi da.

Honako ikerketa galdera hauei erantzun nahi zaie:

Taula 1. Ikerketa galderak

IkG1	Zer-nolakoa da Erronketan Oinarritutako Ikaskuntzan ardatzen den berrikuntza metodologikoaren Ikus-entzunezko Komunikazio graduako ikasleen eta irakasleen balorazioa?
IkG2	Zein aspektu hobetu edo aldatu behar dira berrikuntzaren hedapenari begira?

Ikerketaren tenporalizazioa eta tresnen erabilera taula honetan ikus daitezke:

Taula 2. Tresnen erabileraren tenporalizazioa

	Ikasturte hasiera	Ikasturordia	Ikasturte bukaera
Ikasleak	Galdeketa eta talde eztabaidak	Bilera akten azterketa	Galdeketa eta talde eztabaidak
Irakasleak	Elkarriketa sakonak	Talde eztabaida	Elkarriketa sakonak

## IKERKETAREN EMAITZAK

Hasteko, arreta jarri da metodologian; izan ere, berrikuntzaren ardatzetako bat izan da. Egin den aldaketa hoberako izan dela biziki azpimarratu dute bi kolektiboek. Haien pertzepzioetan oinarrituta, gehiago ikasi dute, zentratuago egon dira eta dispersioa saihestu dute, edukiak sakontasun handiagoarekin landu dituzte, lotura zuzenak egin dituzte errealtatearekin eta lanbidearekin, eta taldean lan egin dute. Gainera, lan sekuentzian irakasle bat baino gehiago egotea, oro har, positiboki nabarmendu dute. Hori bai, bi kolektiboak jabetu dira koordinazio egoki baten garrantziaz.

Ebaluazioari dagokionez, lehenengo mailako ikasleek aipatu dute egokia izan daitekeela; diotenez, azterketek nabarmen galtzen dute indarra, eta ikasgaiak gaintzeko aukera gehiago dituzte. Bigarren mailako ikasleek feedbackaren garrantzia azpimarratu dute; iruditzen zaie feedback gehiago, azkarragoak eta indibidualagoak jaso beharko lituzketela irakaslearengandik.

Ebaluazioaren gaiari lotuta, esan behar da ikasturte osoan zehar egonezina sortu duen gaia izan dela bi kolektiboentzat: bi mailetako ikasleak bat datoz ebaluazioarekiko informazio eta argitasun gehiagoren beharra sumatu dutela esatean. Irakasleek, bestalde, ia aho batez identifikatu dute ebaluazioaren gaia hobetu beharreko gai gisa. Haien ustez, lan sekuentzia baterako ebaluatu beharreko ikaste emaitzak gehiegi izan dira, eta horrek zaildu egin du haien kudeaketa eta ikasleei emaitzen berri neurrian eta modu egokian ematea. Beste alde batetik, «zer ebaluatu eta zer ez, zer kalifikatu eta zer ez... eta noiz» izan da buruan ikasturte osoan izan duten biribildu gabeko gaia.

Profil profesionalarekiko loturei buruz, bi mailetako ikasleak ohartu dira unibertsitateko ikasleen eta Ikus-entzunezko Komunikazioko profesionalen ezaugarriak edo garatu beharreko gaitasunak berak direla. Irakasleek ere horixe bera aipatzen dute beren elkarriketetan. Beraz, pentsa daiteke ikasleek ikasketetan garatu beharreko gaitasunak errealtate profesionalen behar izango dituztenen bidetik doazela.

Aurrekoaz gain, irakasleen iritziz, oro har bi mailetako ikasleen lanen kalitate maila altuagoa da aurreko urteetakoarekin alde-

ratuta. Hau da, nolabait esan daiteke titulazioko kompetentzia espezifikoaren garatze maila altuagoa izan dela, baita haiekiko asebetetze maila ere (ikasleena zein irakasleena); aldi berean, curriculumari koherentzia, zentzua eta etorkizunarekiko proiektzioa ematen lagundu du diziplinartekotasunak.

## ONDORIOAK ETA HEDAPENARI BEGIRAKO ORIENTABIDEAK

Esan behar da graduako koordinazio taldeak 2015/2016 ikasturterako ezarri zituen bi helburuak bete direla. Alde batetik, ikusi da gradua kompetentzietan eta kompetentzien ikaste emaitzetan antolatuta dela eta diziplinartekotasunean oinarritutako lan sekuentziak diseinatu direla erronkei erantzuteko. Beraz, metodologia aktiboen oinarriak bete dira. Beste alde batetik, ikasle zein irakasle balorazioetan azpimarratu da lotura zuzenak egin dituztela errealtatearekin eta lanbidearekin.

Berrikuntza metodologiko horrek balorazio orokor positiboa jaso du partaide guztien aldetik, eta guztiak prest agertu dira sistema horrekin jarraitzeko. Esan dezakegu esperientzia arrakastatsua izan dela. Horixe bera ondorioztatu dute Johnson, Smith, Smythe eta Varon (2009) ikertzaileek Erronketan Oinarritutako Ikaskuntza ikertzerakoan.

Etorkizuneko lanbidearekin lotura zuzenak egin dituzte irakasleek eta ikasleek; eta azken horiek ohartu dira ikasketetan lantzen dutenak zentzua hartu duela etorkizun profesionalari begira (Robledo, Fidalgo, Arias eta Álvarez, 2015).

Hala ere, badaude hurrengo ikasturteetara begira hobetzeko aspektu batzuk ere. Ebaluazio sistema izan da arazo edo nahaste gehien sortu dituen, bi kolektiboen iritziz: erronka bakoitzarekin lotutako lan sekuentziarako planteatutako ikaste emaitzen kopurua gehiegizkoa izan da, eta aho batez adierazi dute hobetu beharreko alderdiak direla ikaste emaitza berak lan sekuentzia ezberdinetan izan duen barreiatzeari egoki jarraitzea edo lotzea.

Ebaluazioarekin lotuta, feedbackaren garrantzia azpimarratu dute ikasleek eta irakasle batzuk. Erronketan Oinarritutako Ikaskuntzaren urratsetako bat ikasleei feedbacka ematean datza (Apple Inc., 2008), erronkari erantzuteko ikasleentzat garrantzitsua baita feedbacka jaso eta eztabaida sortzea soluziobide egokiaren inguruan. Izan ere, Gargallo eta Suárezekin (2014) eta Apple Inc.-ekin (2008) bat eginez, prozesuan zehar ikasten eta azken produktuari begira hobekuntzak txertatzen laguntzen du feedbackak. Ikasleentz hitzetan, ordea, feedback gutxi jaso dute, eta, jaso dutenean, berandu jaso dute. Hori horrela, datorren ikasturteetara begira, hausnarketarako edo oinarritzko formazioaren proposamena egin liteke feedbackaren inguruan.

Lan sekuentzietan irakasle batek baino gehiagok parte hartu dutenez, irakasle arteko koordinazioa eta adostasuna ezinbestekoak dira (Jornet, García & González, 2012; Montero, 2010). Irakasle arteko koherentziak eta kontraesanek ikasleentz motibazioari eta ikasketak sakonari begira beharrezkoa den lerrotzate eraikitzailea baldintzatu dezakete, horrek zuzenean eragiten baitu ikasleentz motibazioan (Alonso, 2005) eta, nola ez, ikaste prozesuan, momentu horietan nahastuta eta galduta sentitu direla baitiote. Beraz, espazio argiak eta aurrekusiak planifikatu beharko dira irakasleentz koordinazioa bermatzeko.

Laburbilduz, hainbat hobekuntza proposamen egin dituzte irakasle zein ikasleek hurrengo ikasturteetara begira, baina berrikuntza prozesu honetako aspektu ugari positiboki baloratu dituzte, eta Erronketan Oinarritutako Ikaskuntzaren bidez gehiago ikasten dutela uste dute guztiek. Oro har, 2015/2016 ikasturteko balorazioa positiboa izan da. «Nik orain aukeratzekotan hau aukeratu nuke, bere pro eta kontrekin» (ikaslea), edo «ez nuke esango, inondik inora, merezi duenik berriro ere atzera bueltatzea, gainera pentsatzen dut hau hobetzen joango dela, osea, hau lehenengo edizioa izateko, pff... oso ondo joan da, gauza hauek lehenengoan horrela ateratzea oso zaila da» (irakaslea): halako baieztapenek berrikuntza metodologikoari jarraipena emateko eta hobetzeko indarra ematen dute. 2017/2018 ikasturteari begira, HUHEZIKo Eskoriatzako campusean eskaintzen diren hezkuntza graduetan lehenengo mailarako era bertsuko berrikuntza metodologikoaren gaineko diseinua egin da eta, asmoa da, datozen ikasturteetan gainerako mailetarako diseinuak ere egitea.

### ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALONSO, J. (2005). Motivación para el aprendizaje: la perspectiva de los alumnos. *La orientación escolar en centros educativos*, Ministerio de Educación y Ciencia, 209-242.
- ALZOLA, N.; ARRATIBEL, N.; MONGELOS, A.; PEDROSA, B.; PÉREZ, K. & URIARTE, L. (2010). Definición y contextualización del perfil profesional del maestro en HUHEZI (Mondragón Unibertsitatea). *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 13(4), 169-179.
- APPLE INC. (2008). Challenge Based Learning. Take action and make a difference. Hemendik jasoa: [http://ali.apple.com/cbl/global/files/CBL\\_Paper.pdf](http://ali.apple.com/cbl/global/files/CBL_Paper.pdf)
- BOLONIAKO ADIERAZPENA (1999). El Espacio Europeo de la Enseñanza Superior. Declaración conjunta de los Ministros Europeos de Educación reunidos en Bologna, 19 de junio de 1999.
- FERNÁNDEZ-MARCH, A. (2006). Metodologías activas para la formación de competencias. *Educatio siglo XXI*, 24. 35-56.
- GARGALLO, B. & SUÁREZ, J.M. (2014). Una aproximación al perfil de los estudiantes universitarios excelentes. *Revista de Docencia Universitaria*, 12(2), 143-165.
- JOHNSON, L.; SMITH, R.; SMYTHE, J. & VARON, R. (2009). Challenge Based Learning: an approach for our time. Austin, Texas: The New Media Consortium.
- JORNET, J.M.; GARCÍA, R. & GONZÁLEZ, J. (2012). Evaluar la competencia aprender a aprender: una propuesta metodológica. *Profesorado*, 16 (1), 103-123.
- MONTERO, M. (2010). El proceso de Bolonia y las nuevas competencias. *Tejuelo*, 9, 19-37.
- ROBLEDO, P.; FIDALGO, R.; ARIAS, O. & ÁLVAREZ, M.L. (2015). Percepción de los estudiantes sobre el desarrollo de competencias a través de diferentes metodologías activas. *Revista de Investigación Educativa*, 33 (2), 369-383.
- RUIZ-TORRES, M.Z. (2014). *Estudio de las competencias transversales en un modelo de enseñanza y evaluación formativa en la universidad*. [Doktorego-tesia]. Malaga: Universidad de Málaga.





## IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO ESPAZIO PARTEKATUEN BILA

► AGURTZANE MARTINEZ, NAGORE IÑURRATEGI eta NEREA AGIRRE

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



**A**rtikulu honetan aurkezten diren esperientziak Zehar iker-taldean garatu dira, 2013-2014 ikasturtetik hona, eta haien helburu nagusia izan da gizarte eta pertsonen garapenarekiko konpromisoan oinarritutako irakasle profila eraikitzen laguntzea.

Berrikuntza proposamen hauek justizia sozialerako irakasleen prestakuntzaren ikuspegia (Chubbuck, 2010) dute oinarri. Prestakuntzaren ulerkerak horrek gure kooperatibaren balioak partekatzen ditu, eta haren bidez ikasleei begira konpromisoa, elkarlana, sormena eta garapen testuinguru aberatsak sortzeko ekintza hezitzaileak garatzea da gure asmoa. HUHEZiren Hezkuntza Proiektuan jasotzen den bezala, kalitatezko konpetentzia profesionalz gain, garapen pertsonal eta sozialarekin loturiko konpetentziak ere landu nahi dira. Gure helburua egoera profesional konplexuei erantzuna emateko gai diren pertsonak prestatzea da. Ikaskidetzak eta elkarlana eskatzen duten testuinguruak irudikatzen ditugu, non gure ikasleek pertsonen behar eta eskubideei erantzuteko norabide zehatz batean lan egingo duten, eta giza eta eskola komunitateetako partaide aktibo izango diren.

Ingurumari honetan, irakasleen hasierako prestakuntzak jokatzeko duen eginkizunari buruzko etengabeko hausnarketa batean gabilta, eta, ondorioz, zenbait berrikuntza esperientzia aurrera eramanez, eta haien gaineko ikerketa prozesuak martxan jarri ditugu. Ikerketa prozesuok gure kezkek eta kontraesanak azaleratzen lagundu digute, profesionalen arteko elkarriketetatik abiatuz; horrek, era berean, gure ekintza indibidualak ekintza kolektibo bilakatzen lagundu digu, eta ikasleei begira sortzen ditugun testuinguru eta baldintzetan sakoneko aldaketak txertatzen hastea erraztu.

Irakasleen hasierako prestakuntzari loturiko abiaburuko kezken artean, bi azpimarratuko genituzke. Batetik, Heziketa Bereziko ibilbidean, bizitza esperientzia normalizatuak garatzeko beharra duten pertsonen bizitza proiektuetan eragin nahian, gizarteak badu interesa konpromisoazko eta inplikaziozko testuinguruak sortzeko. Kolektibo batzuek gizartean duten partaidetza eskasa da, eta hainbat pertsonaren beharrak ikusezinak dira; hainbatetik berekin lan egiten duten erakundeek erantzunak jasotzen dituzte soilik, eta, era horretan, herritarrei elkarrekin bizitzen ikasteko aukera ukatzen zaie. Eskolako testuingurura etorritik, ume guztien beharrei erantzun ahal izateko, haien errealitate osoa ezagutu behar da; eta hori lortzea zaila da, bakarrik unibertsitateak jardunez gero. Ildo horretan, ulertzen dugu unibertsitate eta hezkuntza erakundeek arteko elkarbizitzarako espazioak sortzea ezinbestekoa dela: pertsonen ikaskuntza bakarkako garapenarekin lotuta dagoen arren, garapena gizakien arteko harremanaren bidez gauzatzen da. Gure esperientzien oinarrian, beraz, pertsonen garapenean laguntzen duten elkarbizitzarako, ikasteko eta pentsatzeko ikaste prozesu eta testuinguruak sortzea dago.

Bestetik, unibertsitateak hegemonia izan du orain arte irakasleen prestakuntza programetan, eta horrek teoriaren eta praktikaren arteko deskonexioa eragin du. Ikerketa multzo zabal baten berresten du unibertsitatean ikasitako ezagutzatik bereizten den beste ezagutza mota bat erabili ohi dutela irakasleek beren jardun praktikoa (Clandinin, 1986; Clarà eta Mauri, 2010; Korthagen 2010). Irakasleek praktikan erabiltzen duten ezagutza hori beren esperientzia eta bizipenetan oinarrituz eraikitzen dute. Hasiberriei dagokienez, esaten da beren frustrazio, beldur eta noraez sentimendu eta sentsazioak kontrolatzera bi-

deratzen dutela beren energiaren zati handi bat (Hammerness eta beste, 1998). Oro har, irakasleek ezagutza teorikoaren eta ezagutza praktikoa artean harremanak eraikitzeko dituzten zailtasunak mahaigaineratzen dituzte aipatutako ikerketen emaitzek. Irakasleen prestakuntzarekin lotutako proposamen eta metodologia berriek ez dute ekarpen esanguratsurik egin irakasleentzat beharrezkoak diren ezagutza moduen eraikuntzan. Kasu gehienetan, ezagutza teorikoa ezagutza praktikoa gainjarri izan zaio, edo/eta ezagutza mota batetik besterako transferentzian (ezagutza teorikotik praktikora, edo alderantziz) oinarritutako irizpideak erabili izan dira, eta ez ezagutza bien (teorikoa eta praktikoa) arteko elkarrekintza ardatz dutenak (Mauri eta beste, 2016).

Azken afera horrek gure bigarren kezka eramatzen gaitu. Izan ere, zenbait ezagutza mota modu hierarkikoan ulertzeaz gain, ezagutza bakoitzaren lanketa eremuak ere deskonektaturik ulertu izan dira. Hau da, unibertsitateari ezagutza akademikoaren zeregina esleitu izan zaio, eta eskolari, praktikaren alderdia. Teoriaren eta praktikaren arteko harremana, bada, irakasleen formazioaren erronka nagusienetariko bat da, eta eskolaren eta unibertsitatearen arteko lan partekatua eta kolaborazioa tresna garrantzitsuak dira kalitatezko formazioa eskaintzeko. Aspaldi sentitzen dugu unibertsitateak eta eskolak tandem bat osatzen dutela eta hori ezinbesteko espazioa dela irakasleen formazioaz unibertsitateak duen monopolioa gainditzeko eta praktikan dauden profesionalen beren kalitatezko lana aitortzeko. Formazioan eragile bakoitzak egin dezakeen ekarpena balioesteko beharra dago, eta elkarrekin lan egin behar dugu irakasleen formazioaren inguruan, paradigma justuago, integralago, inklusi- boago eta ko-arduratsua goetatik. Abiapuntu gisa halako kezkek harturik, berrikuntza esperientziak garatu eta ikertu ditugu.

### **1) Ikaskuntza zerbitzuaren metodologian oinarritutako berrikuntza esperientzia eta ikerketa**

Hezkuntza Bereziko ikasleen etorkizuneko funtzio profesionala ume guztien eta bakoitzaren eskubide eta ongizatea ziurtatuko duen hezkuntza erantzun bat bermatzea da. Horretarako, garrantzitsua da kolektiboak, haien beharrak eta bizi proiektuen garapenean parte hartzeko aurkitzen dituzten oztipoak ezagutzea.

Hainbat erakunde dute helburu adimenarekin eta garapen motorrarekin lotuta adierazpide desberdinak dituzten pertsonen desinstituzionalizazioan eta haien bizi proiektuetan laguntzea. Erakundeek erabiltzaileek testuinguru arruntetan parte hartzeko aukerak handitzeko xedea partekatzen dugu erakundeekin.

Egoera honetan, ikaskuntza zerbitzuan oinarritutako esperientzia garatu dugu, praktikaren eta teoriaren artean loturak egitea ahalbidetzen baitu (Rubio, 2011): jasotako ikaskuntzari zentzua eta esanahia ematen zaie, eta erabilera bera testuinguru batean kokatzen da (Escofet eta beste, 2016). Horretaz gain, gizarteak pertsona batzuei jartzen dizkien oztipoak murrizten laguntzen du, eta bizitzeko zailtasunak dituzten pertsonen bizi kalitatea areagotzen. Zer testuingurutan ekiten den ulertzeko beharrak marko edo eskema teorikoen eta gizarteko errealitateen arteko loturak egiteko aukera ematen du. Gainera, ikaskuntza zerbitzuak curriculum helburuak eta gizartearentzako zerbitzuarekin lotutako helburuak batzen ditu.

2013-2014 ikasturtetik daroagu esperientzia garatzen, Gipuzkoako Garun Paralisisaren elkartean –zehatzago, Arra-

## BERRIKUNTZA ESPERIENTZIA GAUZATZEAZ GAIN, PRACTICUMEAM PARTE HARTZEN DUGUN TUTOREOK GURE LANA MODU SISTEMATIKOAN JASO ETA AZTERTU DUGU

sateko Aspaceren Helduen Eguneko Zerbitzuaren— eskutik. 2016-2017 ikasturtera bitartean, lan boluntarioa egin da; hots, ikasleek ikaskuntza zerbitzuan edo planteamendu akademikoago batean oinarrituz garatu dute beren prestakuntza. 2016-2017 ikasturtean, esperientzia parte-hartzailea denentzat oso aberasgarria zela ikusirik, ibilbideko ikasle talde osoak hartu zuen parte ikaskuntza zerbitzuko programan.

Irakasle Ikasketetako 3. mailako Heziketa Berezia ibilbideko ikasleek astean 4 orduko zerbitzua eman dute. Honako hauek parte hartu dute: Ibarako Goienetxe erakundeko 4 pertsona erabiltzaile eta profesional bat, Arrasateko Goienetxe erakundeko 2 pertsona erabiltzaile eta profesional bat, Bergarako ASPACE erakundeko 3 pertsona erabiltzaile, Arrasateko ASPACE erakundeko 6 pertsona erabiltzaile eta profesional bat, Eskoriatzako ASPACE Tximeleta gelako 2 pertsona erabiltzaile eta profesional bat, eta Gasteizko Talur erakundeko 7 pertsona erabiltzaile eta profesional bat. Unibertsitateko 3 tutorek eta 28 ikasle osatu dute taldea.

2016-2017 ikasturtean esperientzia lehenengoz derrigorrezkoa izatean, ikerketa lan bat egin dugu, proposamenaren egokitasuna baloratzeko. Ikasleen ahotsetatik ateratako ondorioetara etorri, batetik, ondorioztatu dugu landu nahi ziren edukien nondik norakoak hobeto ulertzen lagundu diela praktikak. Bestetik, metodologiak teoriaren eta praktikaren arteko loturak egiten, konpetentziak garatzen eta ulermen maila sakonagoak lortzen lagundu die. Konpetentzia pertsonalei dagokienez, eragin esanguratsua izan du maila pertsonalean, beldurrak gainditzeko eta beren buruari buruzko ezagutza izateko, eta aukera eman die beren bokaziozko hautuan eta lan eremuan kokatzeko. Halaber, bazterketa egoeran dauden kolektiboetara hurbiltzea lagungarri suertatu zaie begirada aldaketa landu eta aurreiritziak baztertzeko. Ikasleen arabera, kolektiboen beharren eta bizitzaren inguruko ezagutza eskuratu eta kontzientzia bereganatzea bermatu du esperientziak.

### 2) 4. mailako Hezkuntza Bereziko Practicumeko berrikuntza esperientzia eta ikerketa

Hezkuntza Bereziko Practicumeko ikasleak hamabost pertsona inguruko lantaldeetan batzen dira, hausnarketa ardatz duten mintegietan elkarrekin lanean aritzeko. Ikasleek, praktikaldian

zehar, egunerokoak jasotzen dituzte; han, berek bizi izandako esku-hartze zuzeneko esperientziak jasotzen dituzte. Hau da, esku-hartzean bertan jartzen dute arreta. Egunerokoen irakurketatik abiatuta (saio bakoitzean bi-hiru pertsonen irakurtzen dute), ikasleek ekarritako egoerak biltzen dituzten alderdien inguruko elkarrizketa irekitzen da taldean. Hausnarketa tutore bikote batek dinamizatzen du, eta taldean egiten da, berdinaren arteko interakzioa bilatu nahian. Elkarrekintza prozesuak ikasleek praktikan gauzatutako ekintzak ulertu, haien gainean hausnartu eta beren esku-hartzeen kalitateak berrikustera bideratzen dira, hainbat ikerlanek aipatzen duten norabidean elkar elikatzeak praktikaren hobekuntzan eragin zuzena duelakoan (Clarà eta Mauri, 2010), eta hori lortzea da gure helburua.

Arestian aipatu dugun bezala, berrikuntza esperientzia gauzatzearaz gain, Practicumeko parte hartzen dugun tutoreok gure lana modu sistematikoan jaso eta aztertu dugu[1]. Hala, ikasleak hausnarketa trebatzeko espazio eraginkorrak sortu ahal izateko, zenbait alderdi ikertu ditugu. Batetik, ikasleek praktikan bizi dituzten egoeren gainean hausnarketa egiteko orduan tutoreak eskaini ditzakeen laguntzak eta taldean sortzen diren elkarrekintza motak identifikatu ditugu. Eta, bestetik, tutoreek ematen duten laguntzen arabera ikasleek zer motatako hausnarketa egiten dituzten izan dugu ikergai.

Ondorioen artean, zenbait azpimarratuko genituzke. Batetik, tutoreek talde hausnarketaren garapenean duten garrantzia ikusi dugu. Taldean sortzen den elkarrekintzari dagokionez, ikusi dugu ikasleen hausnarketa prozesuak sustatu ahal izateko beharrezkoa dela prozesuan zehar azaltzen diren elkarrekintza momentuak aprobetxatu (adibidez, berek egiten dituzten ekarpenak, edo beren esperientziekin loturak egin eta kontatzen dituztenean...) eta ikasleen beharretara egokitzea (adibidez, babesa eman, beren buruarengan konfiantza izatera animatu...). Eta, azkenik, ikasleei askoz errazagoa egiten zaie beren esperientziarekin loturak egitea eta beren azalpenak argudiatzea, baina zailtasunak agertzen dituzte teoriarekin loturak egiteko garaian, eta tutoreen laguntza ezinbestekoa da lotura horiek egiteko.

Ildo horiekin lotutako ikerketarekin aurrera jarraitzea ezinbestekoa iruditzen zaigu irakasleen hasierako prestakuntzan eragin nahi badugu.

Aurrerabide moduan, esan beharra dago, prozesuak tutoreok hausnarketa prozesuetan jokatzen dugun papera eta zer-nolako laguntza eskaini dezakegun hobeto ulertzen lagundu digun honetan, burua apur bat harago jarri nahi izan dugula. Pentsatzen dugu ikasleek praktikak egiten dituzten eskola eta erakundeetako tutoreen eginkizuna ere zinez garrantzitsua izan daitekeela. Izan ere, hausnarketa bideratzen duten egoera praktikoa erreala, ikaslearentzat dilematikoa diren horiek, eskola testuinguruan gertatzen dira, tutoreek ondo ezagutzen duten testuinguruan, hasierako formazioko ikasleentzat etorkizuneko lan testuingurua izango den horretan. Beraz, pentsatzen dugu eskolaren eta unibertsitatearen arteko kolaborazioa gako garrantzitsua izan daitekeela Euskal Herriko eskoletan etorkizuneko izango ditugun irakasleen formazioan eta hausnarketa prozesuan. Bide horri jarraituz, etorkizun hurbilean (2017-2018 ikasturtean) berrikuntza esperientzia berriak martxan jarri eta ikerketa ildo honekin jarraitzea pentsatu, eta «Eskolaren eta Unibertsitatearen arteko hausnarketa partekatutako topaguneak Practicumean, irakaslegaien ezagutza praktikokoaren erai-



kuntzarako laguntza testuinguru gisa» gaien murgilduko gara lan talde gisa, zenbait eskolarekin lankidetzan[1] Ikerketa lan hau Mauri, T. doktorearen zuzendaritzapeko EDU13-44632-P (MINECO) proiektuaren barruan garatu da: Agirre, N.; Bilbao, M.; Clarà, .M.; Colomina, MR.; Anna Ginesta, A.; López de Arana, E.; Martínez, A.; Mauri, T.; Onrubia, FJ.; Toledo, B. eta Usabiaga, A. (2013/2017). Ayudas a la construcción del conocimiento en el practicum de maestros: la reflexión conjunta para la mejora de la relación teoría-práctica. Bartzelona: Universitat de Barcelona.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

CHUBBUCK, S. (2010). Individual and structural orientation in socially just teaching: Conceptualization, implementation, and collaborative effort. *Journal of teacher education*, 61(3), 197-210.

CLANDININ, D. J. (1986). *Classroom practice: Teacher images in action*. Philadelphia: The Palmer Press.

CLARÀ, M. ETA MAURI, T. (2010). El conocimiento práctico. Cuatro conceptualizaciones constructivistas de las relaciones entre conocimiento teórico y práctica educativa. *Infancia y Aprendizaje*, 33, 131-141.

ESCOFET, A., FOLGUEIRAS, P., LUNA, E. Y PALOU, B. (2016). Elaboración y validación de un cuestionario para la validación de proyectos de aprendizaje-servicio. *Revista Mexicana de Investigación Educativa*, 21(70), pp.929-949.

HAMMERNESS K., DARLING-HAMMOND L., BRANSFORD J., BERLINER D., COCHRAN-SMITH M., MCDONALD M., & ZEICHNER K., (2005). 'How Teachers Learn and Develop', Bransford, J & DarlingHammond, L (Eds), *Preparing Teachers for a Changing World*, Jossey-Bass, San Francisco Haydon, G. (1997) *Teaching about Values: A New Approach*. London: Cassell.

KORTHAGEN, F.A.J. (2010). How teachers education can make a difference. *Journal of Education for teaching: International research and pedagogy*, 36, 407-423.

MAURI, T., CLARÀ, M., COLOMINA, R. ETA ONRUBIA, J. (2016). Educational assistance to improve reflective practice among student teachers. *Electronic Journal of Research in Educational Psychology*, 14 (2), 287-309.

RUBIO, L. (2011). ApS: aterrizaje entre teoría y práctica. *Aula de innovación educativa*, 203-204.

VAN DE POL, J., VOLMAN, M., ETA BEISHUIZEN, J. (2010). Scaffolding in Teacher-Student Interaction: A decade of research. *Educational Psychological Review*, 22, 271-296.



## ESKOLA HEZITZAILEAK: HAURRENGAN ZENTRATUTAKO IKASTE TESTUINGURUAK ETA GARAPEN PROZESUAK AZTERTZEN

► IDURRE GAZTAÑAZATORRE, XABIER ARREGI eta AGURTZANE MARTINEZ

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



«El verbo enseñar es un verbo transitivo que no transita nunca sobre los niños, sino sobre el contenido y sobre la materia de enseñanza. Sólo el verbo aprender puede tener en cuenta al sujeto (el niño que aprende), y este sujeto es, explícitamente, declarado activo». (Malaguzzi, 2011:70)

**I**datzi honen bitartez, HUHEZI fakultateko *Berrikuntza eta esku-hartzea eskola inklusiboan* ezagutza lerroan kokatuta dagoen ikerketa proiektuaren asmoak, orain arte eginiko ibilbidea eta, proiektio bat eginez, ikerketaren norabidea eta ildo berriak eman nahi ditugu ezagutzera.

2016-17 ikasturtean abiatu da HUHEZI fakultatean proiektu estrategikotzat hartu den ikerketa hau. Ikerketak bat egiten du taldeak duen kezka pedagogikoarekin eta erronka nagusiarekin: Derrigorrezko Hezkuntza etapako eskola esperientziak identifikatzea, hezkuntzaren ikuspegi kultural eta sozioeraikitzaileari begira jarrita dauden heinean, eta haietan garatzen diren ikaste-irakaste prozesuak aztertu eta karakterizatzea, hain zuzen ere.

## IKERKETA PROIEKTUAREN IBILBIDEAREN BIDEA IRUDIKATZEN

Etengabeko aldaketak eta konplexutasuna dira egungo gizarte globalizatuaren ezaugarri nagusietakoak. Egoera berriak hainbat erronka jarri dizkio gizarteari, bai eta hezkuntzari ere. Pérez-ek (2010) dioen bezala, eskola «berrasmatu» beharra dago, eta erronka horien atzean zer egon daitezkeen galdetzen du: «¿Cómo ayudar a que los individuos desarrollen una identidad personal con la suficiente autonomía como para afrontar las exigentes demandas de las sociedades contemporáneas?» (Pérez, 2010: 63).

Globalizazioaren testuinguru honetan, hezkuntzaren eskubi-deetan oinarritutako eta ongizatera bideratutako hezkuntza politikak baztertu dira, eta merkatuaren eta ekonomia globalaren beharrei erantzuna ematea lehenetsi. Testuinguru global horrek identitate, ziurgabetasun eta segurtasun eza ekarri du, besteak beste. Esan daiteke herritartasuna airean geratu dela, norberaren testuinguruan errotzeko dauden zailtasun eta ziurgabetasunengatik bereziki. Hor dago, beraz, hezkuntzaren erronka nagusienetako bat: herritarrak eta herria protagonista eta subjektu gisa irudikatzea.

Esandakoari erantzun nahian, pentsatzeko eta ekiteko gai izango diren norbanakoen eta kolektiboen garapena erraztu behar du hezkuntzak, eta, horretarako, ezinbestekotzat jotzen dugu planteamendu, prozesu eta estrategia berriak martxan jartzea. Birpentsatu beharra dago zein den eskolaren funtzioa, zer asmo dituen eta zer ikaste eta garapen prozesu gauzatzen dituen, eta eskumena, gaitasuna eta aukerak sortu norbanako eta kolekti-boek ahotsa izan dezaten erabakitze prozesuetan.

Halako erronka berriei modu ezberdinean erantzun diete eskola erakundeek, eta erantzuten ari dira oraindik ere. Eredu tradizional modura karakterizatu den horretatik (Porlan, 1993) beste eredu pedagogiko batzuen bila eginiko ibilbidea eman da eskola askotan, eta ibilbide horretan eskola hezitzaile modura uler daitezkeen eskola eredu bat eraikitzea izan da, eta da, seguruenik, haien jomuga. Hain zuzen, eskolaren eraldaketa testuinguru horretan kokatzen dira aurkeztzen ari garen ikerketa proiektua eta haren asmo nagusiak.

## ORAIN ARTE EGINIKO IBILBIDEAN IKUSITAKOAK

Proiektuaren lehen mugarrria, eta ikerketa proiektu honen abiapuntutzat har daitekeena, Antzuolako Herri Eskolaren –zeinak neurri handi batean biltzen dituen aipatutako eskola hezitzailearen irizpide nagusi eta adierazgarrienak– eredu pedagogikoaren karakterizazioa egiteko lana izan da (Arregi, 2015).

Mugarria horixe izanik, dagoeneko aztertu ditugun beste eskola esperientziak argi erakusten dizkigute eskola hezitzailearen esanahia eraikitzen laguntzen dizkiguten zenbait aldagai. Haietako bat, eta agian funtsezkoena, irakaslea eta haren hezkuntza ikuspegia da. Izan ere, irakaslea bera da eskolak eskainiko dituen ikaste testuinguruak eta haietan gerta daitezkeen garapen prozesuen eragile eta sustatzaile nagusia. Izan ere, haurrekiko, hezkuntzarekiko, prozesuekiko, eskolaren eta haren rolaiekiko izango duen begiradaren arabera izango dira beraren eskaintza eta jokabidea, neurri handi batean.

Horrek arakatze prozesu bat abiatzera eta gauzatzera eraman gaitu, eskola hezitzailearen markoan kokatzen diren eskola horietako irakasleen hautematea sakonki ezagutzeko. Eskola horietako irakasleen pentsamendua, beren errepresentazioak eta egiteko moduak ulertzen saiatzen ari gara, irakasle bakoitzaren esperientzia pertsonalak arakatuz. Irakasleen usteak, beren ametsak, eskolan bizi izandakoak, beren ibilbide profesionala, ibilbide horretan izandako begirada aldaketak, gainditutako beldurrak eta izandako esperientzia adierazgarriak ezagutu nahi ditugu (horretan gabilitza), irakasleei elkarrizketa sakonak eginez eta haiekien zenbait focus group eginez.

## HOR DAGO, BERAZ, HEZKUNTZAREN ERRONKA NAGUSIENETAKO BAT: HERRITARRAK ETA HERRIA PROTAGONISTA ETA SUBJEKTU GISA IRUDIKATZEA.

Irakasleen esanahi eta errepresentazioez gain, ikerketa proiektu honen beste alderdi adierazgarria irakasleek eskaintzen dituzten aukera pedagogikoak aztertzea da. Ikasgeletako bizitza konplexu horretan, aurreikusita edo ez, desiatuta edo ez, hainbat aldagai daude haurren garapen prozesuetan eragiten dutenak. Ikasgeletako ikaste-irakaste prozesuak, baina, ezin dira ulertu gelako bizitza bera aztertu gabe. Izan ere, uste dugu ikasleen ikaskuntza talde sozialetan gauzatzen dela eta testuinguru sozial eta kultural horretan sortzen diren harreman, hartu-eman fisiko, afektibo eta intelektualek gelako giza taldearen bizitza osatzen dutela eta, are gehiago, taldea bera eratzen dutela. Modu ekologiko batean aztertu beharra dago, beraz, gelako ikaste bizitza bera.

Hala, aztertu nahi ditugun eskola esperientziak eta gure ikerketa proiektu honen markoa hezkuntzaren ikuspegi kultural eta sozioeraikitzailean kokatzen dira. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu aztertea zer modu dituzten irakasleek, ikuspegi honean kokatuta, hurrari begiratzeko, hura ulertzeko eta harekin interakzioan aritzeko, ikaskuntza, esan bezala, bizikidetzako eraldaketa prozesu gisa ulertzen badugu (Maturana, 2002). Interakzio horien bitartez, eta gelan sortzen diren prozesu komunikatiboan bidez, haurren autobehaketa, autoezagutza eta norberaren autoerregulazioa sustatzea bilatzen da. Bestalde, testuinguru komunikatiboak garatzeak irakasleen sentikortasun pedagogikoari egiten dio aldarri. Sentitze eta egite pertsonalarekin zerikusia du horrek, eta norberaren esperientziarekin eta ezagutza teorikoarekin elikatzen den autotransformaziotik eratorren da. Sentikortasun pedagogiko horrek, gelako bizitza horretan, bitartekari rolean jartzen du irakaslea, eta «sen»arekin (Van Mannen, 1998) lotu. Sentikortasunak eta senak ezberdintasunarekin jardutea dakar, hots, irakasle eta ikasleek dituzten interes eta asmoen ezberdintasunekin jardutea.

Prozesu komunikatiboan bitartez, ezagutza sozial eta pertsonalen eraikuntza legez ulertzen dugu ikaste-irakaste prozesua, zeina taldeko ulermenera bideratua baitago eta arakatze dialogikoko testuinguru batean gauzatzen baita. Arakatze testuinguru horretan, diskurtsoak edo dialogoak bitartekari lana egiten du ikasteko prozesuan, eta, aldi berean, prozesua eta produktua da. Arakatze prozesuok «arakatze ziklo» kolaboratibo gisa garatzen dira (Short, 1996), baina «indagazio komunitate» modura ere ulertzen dira, zeinak jatorri aktibo eta afektibitate maila handia baitu, eta, hurrez gain, hezkuntzan diharduten irakasleak eta beste eragileak ere biltzen ditu.

Praktika profesionalean jarduteko modu bat ere bada horren guztiaren atzetik egon daitekeena: praktikaren inguruko arakatzean oinarritua eta jarrera kritiko eta eraldatzaile batetik begiratzen eta garatzen duen lan kolaboratiboarekin zerikusia duena; azken finean, pertsonen ideia, sentimendu eta pentsamenduekin zerikusia duen kulturarekin eta berdinekin komunikatzeko aukera ematen diguna.

Izan ere, orain arte azaldutako eskola testuinguru horietako praktika profesionalak aztertea da, hain justu ere, ikerketa proiektu honen asmo nagusienetako bat. Orain arte eginiko elkarrizketen bitartez, praktika profesional horien oinarrian dagoen hezkuntza ikuspegia zein den identifikatzen ari gara. Era berean, ikuspegi horri erantzunez gauzatzen diren gakoak identifikatu nahi ditugu, aztertu eta karakterizatzen. Hor daude gure erronkak.

## IBILBIDEAN IKUSTEN ARI GAREN HORIZONTEA: EGITEKO GERATZEN ZAIZKIGUN URRATSAK

Bistakoa da hastapenetan dagoen ikerketa proiektu baten aurrean gaudela. Hala ere, esan dezakegu garbi ikusten dugula ibilbidearen horizontea, proiektuaren ondorengo urratsak gidatuko dituzten irizpide eta asmo hauek lagunduta egin nahi baitugu ibilbidea:

Ikasgeletako ikaste-bizipen prozesuak ikertzeko eta beren testuinguruan ulertzeko ikerketa-diseinuak egiten jarraitu nahi

dugu, betiere testuinguru horietan testigu eta partaide diren eragileekin batera sortu eta garatuta.

Ikerketa diseinu horien fokua irakasleek sustatzen dituzten interakzioak aztertzean jarriko dugu, ikasgelan sortzen diren eta aurreko ataletan azaldu ditugun garapen eta bizikidetzako prozesu eta testuinguru horien arrakasta gakoetat hartzen baititugu. Gako horiek identifikatu, aztertu eta karakterizatzen joango gara, irakasleekin batera diseinatu eta aurrera eramango ditugun prozesuen bitartez.

Era berean, aztertu nahi dugu irakasleek nola erregulatzen dituzten ikasgelako testuinguru, prozesu eta interakzio horiek, beren antolaketa eta dinamikak arakatuz eta haietan ere gakoak izan daitezkeen ezaugarriak eta aldagaiak identifikatuz, aztertu eta karakterizatuz.

Azkenik, espero dugu ikerketa proiektu honetan jarraitutako prozesua eta lortutako emaitzak beste eskola batzuetara ere hedatzea. Izan ere, proiektu honen azken xedea zera da, izenburuan jaso dugunari erreparatuz eta aurreko ataletan jasotakoak aintzat hartuz: hurrengan zentratutako ikaste testuinguru eta garapen prozesuetan giltzarriak izan daitezkeen estrategia, prozesu eta baliabideak identifikatzea eta, horiek karakterizatuz, dokumentuan defendatutako eskola hezitzaileen bidean jartzeko laguntza bat eskaini ibilbide hori egin nahi duten eskolei.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ARREGI, X. (2015). *El modelo pedagógico de Antzuola Herri Eskola*. [Doktore tesia]. Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea.

BOLIVAR, A., DOMINGO, J. ETA FERNÁNDEZ, M. (2001). *La investigación biográfica-narrativa en educación. Enfoque y metodología*. Granada: Ed. La Muralla

MALAGUZZI, L. (2011). *La educación infantil en Reggio Emilia*. Bartzelona: Ediciones Octaedro-Rosa Sensat.

MATURANA, H. (2002). *Transformación en la convivencia*. Santiago (Txile): Dolmen.

PÉREZ, A.I. (2010). ¿Competencias o pensamiento práctico? La construcción de los significados de pensamiento y acción. In Gimeno, J. (biltz.), *Educación por competencias, ¿qué hay de nuevo?*, 59-102. Madril: Morata.

PORLÁN, R. (1993). *Constructivismo y escuela. Hacia un modelo de enseñanza-aprendizaje basado en la investigación*. Sevilla: Díada.

SHORT, K. ET AL. (1996). *El aprendizaje a través de la indagación. Docentes y alumnos diseñan juntos el currículo*. Bartzelona: Gedisa.

VAN MANEN, M. (1998). *El tacto en la enseñanza. El significado de la sensibilidad pedagógica*. Bartzelona: Paidós.





**H**EZIKOOP proiektuaren helburua zera da: hezkuntza erakunde kooperatiboetan berrikuntza sustatzea interkooperazioaren bidez. Proiektuaren bitartez, zenbait gako identifikatu nahi dira, hezkuntza eredu kooperatibo bat diseinatzeko, Arizmendi Ikastolaren eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatearen artean, haztapeneko epealdi honetan. Proiektuaren funtsezko xede bat zera da: interkooperazioaren kultura bultzatzeko adierazleak identifikatzea prozesuan, ikas komunitate gisa esparru partekatu bat sortzeko, eta, bide horretan, hezkuntza berrikuntzarako partaidetza zein ezagutzaren garapena sustatzeko gune berriak sortzea, ikerketa-ekintza kooperatiboaren bidez.

Interkooperazioa MONDRAGONen esperientzia kooperatiboaren oinarriko printzipioetako bat da, elkartasunaren aplikazio zehatz gisa eta enpresa eraginkortasunerako baldintza gisa ulertuta. Elkarlana abiapuntu gisa hartuta ari gara lanean hezkuntza eredu kooperatibo bat diseinatzeko gakoak identifikatzeko eta implementatzeko, beharrezko ikusi baitugu HEZIKOOP proiektuaren garapenerako interkooperaziorako kultura bat sortzea eta garatzea, ikas komunitate gisa esparru partekatu bat osatzeko.

HEZIKOOP proiektuaren implementazioa egiten ari gara, hiru fasetan banatuta: diagnostikoa, interkooperaziorako kultura bat sortzea, eta parte hartzea eta ezagutzaren garapena sustatzeko ekintzak egitea ikerketaren bitartez.

## 1. FASEA : DIAGNOSTIKOA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean egindako ikerketan –Iparra: *Arizmendi 2020 egitasmoaren* baitan–, diagnostiko bat landu da Arizmendi Ikastolan abian jarritako berrikuntza bideen egoerari, azalpenari eta tesuinguruari buruz. Egoeraren diagnostiko horri esker, ikastola horren argazki bat lortu da, eta elementu hauek identifikatu dira argazkia egiteko ikerketa prozesuan: berrikuntza proiektuaren garapenerako oinarriko elementuak eta haien arteko dinamikak; eta proiektua eta proiektuaren iraupena bermatu eta oztopatuko duten elementuak. Era berean, estrategiak pentsatu eta diseinatu dira, aldeko faktoreak indartzeko, eta proiektuko partaideen artean ilusioa eta konpromisoa sortu da berrikuntza proiektuarekiko.

Ikerketaren emaitzetatik atera den ondorio nagusia hezkuntza kooperatiboaren eredu berriaren oinarriak identifikatu direla izan da. Hau da, hezkuntza ereduaren eraldaketarako beharrezko elementu eta dinamikak ez dira soilik trantsiziorako elementuak izango; aitzitik, ondorioztatu da halako elementu eta dinamikak hezkuntza eredu kooperatibo berri baten oinarriak direla.

Aipatutako argazkia egituratzeko, bi talde bereizi dira Arizmendi Ikastolaren komunitatean: kanpo komunitatea eta barne komunitatea. Diagnostikoa osatzeko, berriz, hiru ikerketa eremu erabili dira: elkarrizketa sakonak, eztabaida taldeak –*focus group*– eta galdetegia. Hala, elkarrizketa sakonak egin zaizkie kanpo komunitateko kideei –komunitate tesuinguruko 13 pertsona esanguratsuri–, eztabaida taldeak Arizmendi Ikastolako barneko partaideei –8 talde: gurasoak, langileak, ikasleak, irakasleak eta bazkide kolaboratzaileak–, eta galdetegia erabili da beste bi ikerketa eremuetan ateratako datuak Arizmendiko kolektibo osoarekin kontrastatzeko –650 partaide–.

## HEZIKOOP PROIEKTUAREN INPLEMENTAZIOA EGITEN ARI GARA, HIRU FASETAN BANATUTA: DIAGNOSTIKOA, INTERKOOPERAZIORAKO KULTURA BAT SORTZEA, ETA PARTE HARTZEA ETA EZAGUTZAREN GARAPENA SUSTATZEKO EKINTZAK EGITEA IKERKETAREN BITARTEZ

Halaber, logika bera erabili da ikerketaren garapenerako hiru ikerketa eremuetan, foku desberdinak markatu diren arren: gaur egungo Arizmendi Ikastolaren definizioa, etorkizuneko Arizmendi Ikastolaren karakterizazioa eta egitasmoaren garapena bermatzeko elementu erraztaileen eta oztopatzaileen identifikazioa.

Honako hauek dira hezkuntza eredu kooperatiboaren eraldaketarako identifikatutako elementu garrantzitsuenak:

- Iparra Arizmendi 2020 proiektuaren definizioa eta garapenerako diseinua: komunikazioa, kooperazioa, parte hartzea, hezkuntza iraunkorra eta ikerketa
- Ikastolaren funtzioaren kokapen soziala
- Aliantza estrategikoen definizioa
- Egitasmoaren garapenerako baliabideak
- Barne partaideen funtzioak eta eginbeharrak
- Marko pedagogikoaren aldaketa
- Ikerketa eta aholkularitza

Hezkuntza kooperatiboaren eredu berriaren proiektuaren garapenerako diseinurako elementu erraztaileak eta oztopatzaileak:

- Elementu erraztaileak: ikastola izatea, kooperatiba izatea, aliantzak, proiektuak komunitatean duen babesa –barruan eta kanpoan–, konfiantzaren pedagogiaren markoa, Arizmendi Ikastolaren izaera berritzailea, irakasle eta langileen inplikazioa, ikerketa.

- Elementu oztopatzaileak: hezkuntzaren berrikuntza pedagogikoaren garapenerako ez da identifikatu oztopo izan daitekeen elementu nagusirik. Hau da, ez da uste proiektuaren garapena ekidingo duen erresistentziarik izango denik. Dena den, badira oztopo edo erresistentzia bilakatu ez daitezkeen zaindu beharrezko elementuak: irakasleen rola aldaketa, gurasoen kolektiboa, langileen taldea eta proiektuaren garapenerako baldintzak.

Berrikuntza kulturaren argazkiari dagokionez, emaitzek adierazten dute Arizmendiko komunitatea hezkuntzaren berrikuntza-



eta horrek ekarriko du, praktikan, interkooperazio kultura martxan jartzea eta ikas komunitate gisa funtzionatzen hastea.

Ikas komunitatea profesionalen hezkuntza eredu bat da, inklusio, berdintasun eta dialogo printzipio eta praktiketan oinarritua, eta helburutzat du gizartea eta hezkuntza eraldatzea. Heziketaren emaitzak hobetzeko eta bizikidetzaren solidario baten oinarriak sortzeko estrategia gisa, ikas komunitateen hezkuntza ereduaren printzipioetan oinarrituriko proiektuak aplikatzen dira. Horregatik, ikas komunitatea ingurune baten barruan eta kideen artean garatzen da; komunitatearen beraren beharrei erreparatzen die; eta komunitateko partaide guztien artean lantzen dira bai diagnostikoa bai tratamendua.

### 3. FASEA: PARTE HARTZEA ETA EZAGUTZAREN GARAPENA IKERKETAREN BITARTEZ SUSTATZEKO EKINTZAK

2017-2018 ikasturteetik aurrera, helburu zehatzak definituko dira –epe motzekoak eta epe ertainekoak–, eta ikerketa ekintza praktikoak abian jarriko dira bi erakundeen artean, ikas komunitate gisa. Horretarako, interesgarritzat jotzen da ikerketa-ekintza metodologian oinarritzea.

ren aldekoa dela. Aldaketarako beharra ikusten da, eta babesa adierazten diote proiektuari. Gainera, konfiantza dute proiektuaren garapen egokian, eta hartutako bidearekin jarraitzeko eskatzen dute.

## 2. FASEA: INTERKOOPERAZIORAKO KULTURA BAT SORTZEA HEZKUNTZA KOOPERATIBAKO ERAKUNDEEN ARTEAN

Hezkuntza eredu kooperatibo berria eraikitzeko, beharrezkoa da diagnostikoaren fasean identifikatutako elementu eta dinamiken garapena egitea. Hori dela eta, interkooperaziorako kultura bat lantzen ari gara hezkuntza erakundeen berrikuntza proiektuen garapenerako, Arizmendi Ikastolaren eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatearen artean –hasierako epealdi honetan–.

Hezkuntza kooperatibetako erakundeen artean interkooperaziorako kultura bat sortzeko, beharrezkotzat hartu dira zenbait ezaugarri. Alde batetik, garrantzia eman zaio harremanetarako eta parte hartze zuzenerako bide berriak zabaltzeko: lanerako guneak sortu dira elkar hobeki ezagutzeko eta ulertzeko. Beste alde batetik, guneak ireki eta garatu dira: ebaluatzea eta epaitzea helburu ez dutenak, aurreiritzirik gabe berdinaren arteko harreman zintzoak sustatzen dituztenak –boteregunerik gabe–. Azken finean, interkooperaziorako kulturak ezagutza teoriakoaren eta ezagutza praktikoaren arteko dikotomia gainditzea bermatu behar du.

Ikas komunitate gisa funtzionatzeko, interkooperaziorako kultura bat sortzeko lanek eragin zuzena dute bi hezkuntza erakundeetan. Garrantzitsua izango da bi erakundeen artean helburu eta erabaki gune partekatuak adostu eta eraikitzea. Espero da proiektua aurten garatzea eta hedatzea, bai zuzendaritza organoetan, bai erakunde bakoitzaren kolektiboetan. Ondo garatu eta hedatzeak interkooperaziorako kultura sortzen lagunduko du,


Interkooperaziorako kulturak ateak irekitzen dizkio ikas-komunitateari, eta ikas komunitateak, aldi berean, berrikuntzarako eta hobekuntzarako ikerketa-ekintzen praktikari. Bi hezkuntza erakunde kooperatiboen ezagutza eta jakintza teoriko-praktikoak batzeko, ikerketa metodologia egokia da ikerketa-ekintza kooperatiboa.

Ikerketa-ekintza kooperatiboa irakaskuntza ulertzeko modu bat da; ikerketa-ekintza bera ikertzeaz haragokoa. Ikerketa-ekintzak irakaskuntza ikerketa prozesu gisa ulertzea dakar, hau da, etengabe bilaketa prozesu gisa ulertzen da.

Araozek ekintza bideratzen dute, baina ikerketa-ekintzaren funtsezko alderdia profesionalak bere jardunaz egiten duen gogoeta lana da. Ez da kontuan hartzen bakarrik arazoak konpontzeko egiten duen ekarpena; bere jardunaz egiten duen gogoeta eta planifikatzeko eta hobekuntza progresiboak aplikatzeko duen gaitasuna biltzen ditu ikerketa-ekintzak.

Horregatik, oro har, ikerketa-ekintza kooperatiboa jardun praktikoaz gogoeta egiteko bide sistematiko bat da, eta ikas-kuntza-irakaskuntza prozesua optimizatzea du helburu. Ikerketa-ekintza kooperatibo bilakatzen da bi erakundetako edo gehiagotako langile multzoak elkartu eta erabakitzen dutenean jardun profesionalaren arazoak elkarrekin konpontzea.

Beraz, ikerketa-ekintza kooperatiboa hezkuntzan aldaketa bultzatzeko ikerketa metodologia bat da, eta, metodologia horretan, garrantzitsua da ikertzaile eta hezitzaileek elkarrekin lan egitea ikerketaren planifikazioan, inplementazioan eta analisisan, hezitzaileen berehalako arazoak eta arazo praktikoak konpontzeko, betiere erantzukizuna denek hartuz, bai erabakiak hartzean, bai ikerketa lanak egitean.





## **LANKI, KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIA**

► LEIRE URIARTE, ION LEZETA, ARIANNE KAREAGA, MIRENE ZUFIAURRE,  
AITZOL LOYOLA, IGOR ORTEGA, ARITZ KANPANDEGI, IBAN GALLETEBEITIA,  
ENERITZ PAGALDAY, ANDONI EIZAGIRRE eta AINARA UDAONDO

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



## NOR GARA?

LANKI Mondragon Unibertsitateko Kooperatibismoaren Iker-  
tegia da, Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien fakultatean  
kokatua. Hamar ikertzaile-irakaslek osatzen dugu taldea, eta  
honako esparru hauetan ari gara lanean: kooperatibismoa, ba-  
tez ere Arrasateko kooperatiba esperientzia; ekonomia sozial  
eta solidarioa; eta gizarte berrikuntza eta komunitate autoera-  
tuaren garapena. Gizarte erronkei adi jardun dugu LANKIn, be-  
girada gaurkotuz so eginez gizartearen bilakaerari. Hasiera-ha-  
sieratik, Arrasateko kooperatiba esperientziaren berezitasunak  
erakarri gaitu, eta haren gaineko ezagutzan sakondu dugu, bai  
baitira gauza interesgarriak esperimentu kooperatibo horretan.  
Azkenik, mundura irekita, ekonomia sozial eta solidarioaren  
eremuan han eta hemen gertatzen diren ekonomia sozialeko  
esperientziekin harremanetan gaude.

Ikerkuntza, hezkuntza eta aholkularitza eskaintzen dugu arlo  
horietan guztietan. Eragile kooperatibo eta sozialekin elkarlan  
estuan aritzea da gure ikur garrantzitsuenetako bat. Norabide  
horretan, Otalorarekin, MONDRAGONeko kooperatibekin, Ba-  
gararekin eta Mundukiderekinekin dihardugu lanean, hainbat proie-  
ktutan.

## ZERK MUGITZEN GAITU?

Hurbilpen pertsonalak hurbilpen, bada hari komun bat LANKI-  
ko kideongan. Hau da, gizartearekiko eta haren bilakaerareki-  
ko kezka, ulertu nahia eta konpromisoa. Eta, hortik abiatuta,  
ideia honek ematen dio zentzua gure lanari: autoeraketaren eta  
kooperatibagintzaren ideia praktika interesgarria da gizartea  
artikulatzeko eta lurraldearen garapen iraunkor eta bidezkoa  
erdiesteko.

Eta bai, badakigu kooperatibagintzaren praktikak, koopera-  
tibagintza egunero *egiteak*, badituela kontraesan eta dilema  
batzuk. Ezagutzen gaituztenek badakite eredu kooperati-  
boaren praktika oso gertutik ezagutzen dugula. Azken urteetan  
buru-belarri jardun dugula hezkuntza kooperatiboan, koope-  
ratibistekin zuzenean. 12.200 kooperatibistatik gora izan dira  
gurekin hezkuntza eta gogoeta kooperatibo saioetan, eta 800  
saioetik gora gidatu ditugu azken 8 urteetan. Eta bai, duda barik  
esan dezakegu ezagutzen ditugula gure kooperatibagintzaren  
zailetasunak eta erronkak, bertatik bertara protagonistekin du-  
gun interakzio zuzen horrek ematen duen bizipen hurbiletik.

Baina, hain zuzen ere, eguneroko praktikan diharduten eragi-  
leekin egoteak erakutsi digunagatik, uste dugu eredu koopera-  
tiboaren balioa handia dela. Kooperatibak ez dira formula per-  
fektuak, jakina, baina zalantzarik ez daukagu erantzun zehatz,  
interesgarri eta ezberdinak eskaintzen dituztela enpresa eta  
ekonomia egiteko molde gizatiarragoak garatzeko. Uste  
dugu kooperatibak, kapital hegemonikoaren logikatik apar-  
te, enpresaren eremura bestelako logika sozialak dakartza-  
ten proposamen errealeak direla. Eta uste dugu praktika horiek  
hobetzea eta garatea interesgarria dela gure gizartearentzat.

## ZER HELBURU DUGU?

Kooperatibagintza eredu interesgarria dela da gure lanerako  
premisia, eta eredu horretan sakontzeko bitartekoak jartzea  
da gure helburu nagusia. Arrasateko kooperatibagintza bizi-  
berritzea da MONDRAGONeko kooperatibekin egiten dugun  
lanaren iparra. Eta zer esan nahi dugu kooperatibagintza bi-  
ziberritzearekin?

Kooperatibak gizarte baldintza jakin batzuetan sortu ziren, eta,  
nolabait, orduko behar eta ametsen neurrira egindako propo-  
samena izan zen. Garai hartan, kooperatibagintzak zentzu gar-  
bi bat zuen, hau da, esanahi historiko eta norabide jakin bat.  
Baina gauzak asko aldatu dira. Batetik, testuinguru sozial eta  
ekonomikoa izugarri aldatu da. Bestetik, kooperatibek eurek  
ere bilakaera bat izan dute. Eta, azkenik, kooperatibistaren pro-  
fila bera ere aldatu egin da: bestelako ikusmolde, motibazio eta  
kezkak ditugu gaur egun. Garai berrien erronkei egokitutako  
formulazioak behar ditu kooperatibagintzak, eta norabide ho-  
rretan jardun nahi dugu lanean.

## LANKIK, KOOPERATIBISMOA, EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA ETA KOMUNITATE AUTOERATUAREN GARAPENEAN DIHARDU

Uneotan gure kooperatibagintzak dituen galdera eta kora-  
piloen erantzunak aurkitu beharrean gaude, praktikaren  
gaineko gogoeta autokritikoa eginez eta ekinbideak marraz-  
tuz. Non bilatu erantzunak? Gure ustez, kooperatibagintzak  
berak bere baitan ditu etorkizunean pentsatzen jarraitzeko  
pista interesgarriak. Kooperatibaren definizio sozioenpres-  
arialean sakontzea da gakoa, garen horretan sakontzea: nor-  
tasuna duen eta bere buruarekin zorrotza den kooperatibi-  
simo bat sortzea, alegia.

## ZERTAN DIHARDUGU LANEAN?

*Kooperatibagintzaren gaineko hezkuntza* lana da gure egiteko  
nagusietako bat. Lehentasunezko estrategia da guretzat. Bate-  
tik, hezkuntza kooperatiboaren I+Gan dihardugu lanean, Otalo-  
rarekin elkarlanean, eta kooperatibistekin orpoz orpo, koopera-  
tibagintzaren arima elikatzen eta praktikaren gaineko gogoeta  
sustatzen etengabe. Formatu txikiko etengabeko formazioaren  
eskaintzan ere badihardugu (barkideak, eta organo sozial eta  
exekutiboak), eta baita Kooperatibagintzan aditu-tituluan  
(kooperatiben proiektu sozioenpresariala kooperatiba barrutik  
bultzatzeko eragileak prestatuz). Bestetik, unibertsitate mailako  
zenbait eskaintza ditugu: Ekonomia Soziala eta Enpresa Koope-  
ratiboan online masterra eta Ekonomia Solidarioaren Garape-  
nerako Kudeaketa Ekonomiko eta Sozialean masterra.

*Gobernantza demokratikoa* eta pertsonen parte hartze era-  
ginkorra sustatzeko ikerketa-ildoaren garapenean ere ari gara  
lanean. Izan ere, egungo gizarte eta ekonomia testuinguru  
komplexuotan, kooperatibetan alboratu ezinezko erronka bi-  
hurtu da berrikuntza prozesuak abian jartzea gobernu dinami-  
ketan zein pertsonen parte hartzean. Bitartekari berritzaileak  
beharrezkoak dira kolektiboaren proiektu sozioenpresarialarekin

lerrokatu eta egitasmo partekatuaren bizipena indartzeko. Ikerketa ildo gobernantza demokratikoaren ekosistema gaurkotzen laguntzera dator, berrikuntzak identifikatu eta inplementaziorako baldintzak sortzeko. Ikerketa ekintzaren logikaren bidez organo sozialen eta oro har kolektiboaren gaitasunak garatzea eta ahalduntzea dugu helburu.

*Gizarte eraldaketaren* inguruko ikerkuntza eta garapena da gure beste lan esparruetako bat. Kontzeptu horren azpian dagoen izpiritua esanahi gaurkotua lantzen dihardugu gizarte eragile eta kooperatibekin, zenbait esparrutan: garapenerako lankidetzak, gizarte berrikuntza, eta herrigintza eta komunitate autoeratuaren garapena. Zeregin horretan, hainbat egitasmo jarri ditugu abian. Horren adibide esanguratsua dugu KoopFabrika: ekintzailetasun soziala sustatzeko programa. Kapital soziala eta pertsona arduratsu eta kritikoak hezteko esperimenduzko eta konfluentzia guneak sortu ditugu KoopFabrikan, ekimen ekonomiko eta kolektibo berritzaileak bultzatzeko ezinbestekoak direlakoan. Programa hori hainbat eragileren arteko elkarlanaren emaitza da (Olatukoop, Bagara Herrigintzan, Debagoieneko eta Oarsoaldeko garapen agentziak, eta Andoaingo eta Hernaniko enplegu teknikariak). Aurrera begira, REAS Euskadi sarearekin, EHUko Gezki Institutuarekin eta Olatukoopekin ekonomia sozial solidarioaren eragin esparrua zabaldu eta estrategia komunak adosteko asmoarekin gabilta lanean.

Azkenik, kooperatibagintzaz eta Arrasateko kooperatiba esperientziaz ikertzen dihardugu, materialak eta argitalpenak sortzen, eta ereduak bestelako esperientzia autoeratu batzuekin konpartitzen, bai ingurukoak, bai mundu mailakoak ere.





## ADI PROIEKTUA: NOLA ERANTZUN ESKOLAN ANIZTASUN SOZIOEKONOMIKO, KULTURAL ETA LINGUISTIKOARI?

► PILAR SAGASTA, ENERITZ GARRO, KARMELE PEREZ, AMELIA BARQUIN,  
NEKANE ARRATIBEL, NEREA ALZOLA, NAGORE IPINA, ANA PEREZ,  
MARTA QUINTAS eta EUNATE AREBIOTORRE

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea





**M**Uko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko (HUHEZI) zenbait ikerketa taldetako zenbait irakasle-ikertzaileen ekimenez sortutako proiektua da ADI. Proiektuaren helburua zera da: eskolan aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistikoari nola erantzun pentsatzea, eta, horretarako, beharrezkoak dira eskola komunitatearen zein unibertsitatearen jakintza eta eskarmentua. HUHEZiko irakasle-ikertzaileak jakintza arlo osagarrietan aditu eta arituak dira (kulturarteko hezkuntza; hezkuntza eleaniztuna hizkuntza gutxituaren testuinguruan; soziolinguistika; eta irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza), eskolako egoera konplexuari ikuspegi holistiko batekin begiratu ahal izateko.

Azken urteotan nazioarteko zenbait erakundek (UNESCOK, Save The Children-ek, ELGA-OCDEk) argitaratutako txostenetan, premia argi batzuk adierazten dira: argi azaltzen da eskola porrota eta eskola uztea ekiditeko lehentasun izan behar direla hezkuntza politikak martxan jartzea eta ume guztiek arrakasta izateko eskola programak diseinatzea eta gauzatzea. Halaber, azpimarratzen dute programa horiek kontuan izan behar dutela ikasleen familien maila edo indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEKa), indize hori ikasleen arrakasta akademikoan eragin handia duen faktorea delako. Euskal Autonomia Erkidegoan ISEI-IVEI Institutuak egiten dituen ebaluazio diagnostikoetan ere, argi geratzen da alderdi horrek eragin handia duela gure ikasleengan.

Gure testuinguruan azken hamarkadetan gertatutako immigrazioaren fenomenoak ikastetxeetan ikasleen aniztasuna zentzu askotan areagotzea ekarri du. Ikerketek erakusten dute (eta ISEI-IVEIren ebaluazio diagnostikoetan ere jasotzen da) familia atzeritarren seme-alabek emaitza akademiko nabarmen baxuagoak lortzen dituztela familia autoktonoetakoek baino, eta azaltzen dute umeen kopuru esanguratsu bat desabantaila egoeran dagoela hezkuntza sisteman; horrek, jakina denez, ondorioak izango ditu, bai maila pertsonalean (norberaren bizitzan), bai sozialean (eskolako desabantaila egoera biztanleen geruza jakin batzuetan erreproduzitzen da). Baina, aldi berean, ISEI-IVEIren txostenek adierazten dute eskola batzuetan ISEK baxuko ikasleen emaitzak beste eskola batzuetan baino hobekak direla. Eskolak, beraz, ahalmen handia du desabantailak orekatzeko, irakasleen lana kalitatezkoa baldin bada eta komunitate osoa inplikatzeko bada.

Halaber, gure gizartean, hezkuntza eleaniztuna garrantzia irabazten doan errealitate bat da, eta Europatik bultzatzen diren hezkuntza politiken egitasmoen artean dago hezkuntza eleaniztuna sustatzea. Ikasle guztiengana modu eraginkorrean heltzea eta ikasle guztiek markatutako kompetentzia linguistikoa lortzea (euskararekin, gaztelaniarekin eta hirugarren hizkuntzarekin lotuta) gure gizartearen lehentasunezko helburua da, eta kon-tuan hartu behar dugu ikasleen zati handi bat etxekoa ez den hizkuntza batean eskolatzen dela.

Erronka horri erantzun egokia eta iraunkorra eman ahal izateko, ezinbestekoa da eskola komunitateak eta hezkuntza fakultateak lankidetzan aritzea, ikasleen eta etorkizuneko irakasleen heziketaren eraldaketan elkarlanean aritzeko. Asmo horrekin diseinatu da hemen aurkeztuko dugun ADI proiektua.

## ADI PROIEKTUAREN HELBURUA ZERA DA: ESKOLAN ANIZTASUN SOZIOEKONOMIKO, KULTURAL ETA LINGUISTIKOARI NOLA ERANTZUN PENTSATZEA, ETA, HORRETARAKO, BEHARREZKOAK DIRA ESKOLA KOMUNITATEAREN ZEIN UNIBERTSITATEAREN JAKINTZA ETA ESKARMENTUA.


### PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIAK

ADI ikerketa-proiektuak hiru helburu nagusi ditu:

- 1 Deskribatzea, aztertzea eta interpretatzea zer jarrera dituen hezkuntza komunitateak (irakasleak, ikasleak eta familiak) ikastetxeko aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistikoarekiko.
- 2 Deskribatzea, aztertzea eta interpretatzea hezkuntza komunitateak zer-nolako praktikak egiten dituen aniztasun sozioekonomikoa, kulturala eta linguistikoa kudeatzeko.
- 3 Irakasleei laguntzea praktika gogoetsuan oinarritutako aldaketa prozesuak gauzatzeko (maila indibidualean zein kolektiboan), eta deskribatzea, aztertzea eta interpretatzea prozesu horiek.

Hiru helburu nagusi horiekin batera, laugarren bat azpimarraratu genuke: sarea osatzea ezaugarri bertsuak dituzten hezkuntza komunitateen artean ikaskuntza partekatua sustatzeko, irudi honetan adierazten den moduan:

#### Irudia 1. Ikaskuntza partekatua sustatzeko agertokiak



### IKERKETA MOTA: EKINTZA-IKERKETA PARTE-HARTZAILEA

Ekintza-ikerketa parte-hartzaileak zera dakar: alde batetik, ikastetxeko agenteak ikerketaren protagonista eta ikertzaile bilakatzen dira, eta ikerketaren gaineko ezagutzak sortzen dituzte; bestetik, ikertzaileak eragile bilakatzen dira, eta eraldaketa prozesuak mamitu eta gauzatu dituzte komunitatearekin batera. ADI proiektuaren helburuak betetzeko, hasieratik garbi izan dugu hezkuntza komunitatea osatzen duten agente guztien parte-hartzea ezinbestekoa dela. Horrek esan nahi du eskolako erakunde horietako agente nagusiak (gurasoak, ikasleak, irakasleak) prozesu osoaren fase guztietan inplikatzeko direla. Parte-hartze hori eta prozesuaren gidaritzak konpartitua bermatzeko, eragin nahi den hezkuntza komunitateetan talde eragile bat osatzea proposatzen da, komunitateko agente guztien ordezkaririk izango dituen eta unibertsitateko ikertzaileekin lan kolaboratiboa egingo duena. Eta, talde eragile horrekin batera, hezkuntza komunitatearen kultura kontuan hartuz, eskolako bakoitzean prozesu bat jartzen da abian, aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistikoaren trataera ikertzeko eta arlo horretan eragiteko.

### PROIEKTUOKO PARTAIDEAK ETA IRAUPENA

Proiektua erakunde jakin batzuen parte-hartzearekin abiatu da: Gipuzkoako bi eskola, Bartzelonako eskola bat, Vic-eko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitateko Huzezi fakultatea. Dena den, proiektu irekia da, eta, aurrera begira, erakunde gehiago erakartzea ere espero dugu.

Iraupenari dagokionez, hiru ikasturterako proiektua diseinatu da, baina espero dugu, saretze prozesua zabaltzen den neurrian, egitasmoa denboran luzatu, aberastu eta sakonduko dela.

### LEHENDABIZIKO URTEKO LANA (2016-2017)

2016-2017 ikasturtean, eskolatan talde eragileak osatu, eta hezkuntza komunitatearen lehendabiziko diagnostia egin zen. Horretarako, irakasle, ikasle eta gurasoen ahotsak jaso eta hainbat jarduerak gauzatu ziren, hezkuntza komunitate bakoitzean adostutakoa errespetatuz. Hezkuntza komunitate bakoitzaren beharrezkoak eta egiteko moduak abiapuntu hartuta, zenbait baliabide erabili ziren. Hona hemen baliatu ziren batzuk: bakarkako elkarrizketak; taldeko elkarrizketak; irakasleen egunerokoak; ikasleen marrazkiak; ikasleek ateratako argazkiak eta haiekin egindako aurkezpenak; eta abar. Halaber, Kataluniako bi eskolara bisitak egin ziren, euren urtetako esperientziaren berri izateko eta elkarrekin ikasteko.

Ikasturte bukaeran, lehendabiziko mintegi zientifikoa antolatu zen, hezkuntza komunitateek elkarren berri izateko. Mintegi zientifikoa horretan, denon ahotsak entzuteko aukera egon zen: eskola komunitateetako zuzendaritzetako kideena, irakasleena, gurasoena, ikasleena eta unibertsitateetako ikertzaileena. Bakoitzak bere esperientzia modu formalean aurkeztu zuen, eta aukera egon zen erronkak eta aukerak aztertzei ikasle aniztasunari egoki eta arrakastaz erantzuteko. Hasieran esan dugun bezalaxe, gure gizartearen erronka nagusietako bat hezkuntzaren arloan kokatuta dago: hezkuntza kulturartekoa eta eleaniztuna lortzea, ekitatean oinarritua, eta ikasle guztientzat kalitatezko ikaskuntzaren sustatzaile izango dena. Erronka hori bereziki nabarmena da kultura- eta hezkuntza-aniztasun handia



eta maila sozioekonomiko baxuko ikasle kopuru zabala duten ikastetxeetan. Ondorioz, mintegia ikaskuntza partekatuko agertoki esanguratsu bat bihurtu zen.

### BIGARREN ETA HIRUGARREN URTEKO ERRONKAK (2017-2019)

Bigarren ikasturtea hezkuntza komunitateak ateratako diagnosia konpartituz eta horrek sortzen dituen erreakzioak jasoz hasiko da. Ikasle, guraso zein irakasleei erakutsiko zaie egindako diagnostikoa, eta, horren arabera, elkarrekin hezkuntza komunitate bakoitzak dituen beharrak eta erronkak zehatzago identifikatuko dira. Abiapuntuan, irakasleekin batera egingo den praktika gogoetatsuko prozesu bat izango da, zeinetan aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistikoari erantzuteko zenbait ekimen edota irizpide diseinatu, inplementatu eta ebaluatuko diren. Prozesu guztian zehar, bidelagun rola jokatu dugu ikertzaileok, irakasleekin batera dituzten beharrak identifikatu eta elkarrekin erantzun posibleak arakatzeko. Halaber, irakasleei lagunduko zaie, bai bakarka,

eta baita taldean ere, euren lanaren gaineko gogoeta egiten. Irakasleekin eta gurasoekin ere prozesu parte-hartzaileak jarriko dira martxan, elkarrekin ekimenak pentsatu, inplementatu eta ebaluatu ahal izateko.

Proiektuan zehar elkarrekin sortutako ezagutzaren zabalkundea egingo dute proiektuko parte-hartzaileek, hainbat forotan, batzuk ikerketarekin lotuagoak eta beste batzuk dibulгатiboagoak. Hezkuntza komunitateetako esperientziak eta prozesuak elkarrekin partekatuzeko foroak eta espazioak bilatuko dira hiru ikasturteetan zehar, batzuk formalagoak (mintegi zientifikoak) eta beste batzuk ez hain formalak (elkarrizketak, bisitak...). Oso argi dago hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektuari ego-kituriko bideak jorratu behar dituela aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistikoari erantzuterakoan; argi dago, halaber, elkarrengandik eta elkarrekin ikasteko gauza asko daudela. Proiektu honen bidez, ekarpena egin nahi da unibertsitatearen eta eskolaren arteko jauzia txikiagotzeko, eskolen arteko elkar-lana bultzatzeko eta gizarteari elkarrekin erantzun osoago bat emateko.



## HEMENDIK AURRERA ZER?

40 URTEKO IBILIBIDEA EGIN ETA GERO, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKERTZAILEEK GOGOETA EGIN DUTE HEZKUNTZAN, KOMUNIKAZIOAN ETA KOOPERATIBISMOAN GIZARTEAK DITUEN 10 ERRONKAREN GAINEAN

### 01 EUSKARA ETA HIZKUNTZAK

Herritar euskaldun-eaniztunak helburu izango dituen eskola-eredua sustatu nahi dugu. Euskaraz eta beste bi hizkuntzatan bederen komunikatzeko gai izango diren herritarrak, euskararen berreskuratze-prozesuan modu aktiboan jardungo dutenak eta munduko zein gure komunitateko eleaniztasun-egoerak ulertuko eta aberastasun gisa biziko dituztenak. Mundu eleaniztun baterako euren izatea euskaratik, euskaraz eta euskararentzat eraikiko duten herritarrak, hain zuzen ere.

JULEN AREXOLALEIBA, NEKANE ARRATIBEL, AGURTZANE AZPEITIA, ENERITZ GARRO, NEKANE GOIKOETXEA, NAGORE IPIÑA, ASIER IRIZAR, KARMELE PEREZ ETA PILI SAGASTA

### 02 GARAPEN SOSTENGAGARRIA HEZKUNTZAN: ETORKIZUNA IRUDIKATUZ

Krisi sozioekologiko globalaren garaian bizi gara, antropozenoan, dagoeneko itzulezina omen den klima aldaketaren eta haren ondorioen aroan. Gure urrats ekologikoak biziraupena bera jar dezake ezbaian, eta eragiten ari garen zor ekologikoak populazioen arteko desoreka eta gatazka etengabeak eragiten ditu. Errealitate honetan, gizarte demokratiko eta justu batean bizi nahi badugu, ezinbestekoa da gure bizimoduaz eta horrek ingurune sozial eta naturalean dituen eraginez jabetzea; izan ere, garapen sostengagarriaren bidetik, trantsizio sozioekologikoan irudikatzen dugu etorkizuna. Zientzien eta teknologiaren ikaste-irakastea testuinguru horretan kokatzen dugu ZiTeO ikertaldean, eta pentsamendu horretatik bideratu nahi dugu arlo horien lanketa eskolara.

XABIER ARREGI, EUGENIO ASTIGARRAGA, IKER AZKUE, NEREA LOPEZ ETA AITZIBER SAROBE



## 03 GUZTIONTZAKO ESKOLA ETA BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOA

Ikastetxeetan bizi diren kolektibo guztien ikaste-kultura suspertzeko gakoaren azterketan ari da talde hau. Eskola komunitate gisa ulertuta pertsona guztien garapena sustatzen duten proiektuen azterketa egiten dugu, zenbait berrikuntza martxan jarri ahal izateko. Derrigorrezko hezkuntzaren etapan eta haurren zentratutako irakaskuntzan koka daitezkeen eredu pedagogikoak, irakasleen garapen profesionala sustatzen duten prestakuntza ereduak eta hezkuntza erakundeetan aldaketak bideratzeko beharrezkoak diren gakoaren identifikazioa ditugu aztergai.

XABIER ARREGI, IDURRE GAZTAÑAZATORRE, NAGORE INURRATEGI, NEREA AGIRRE, OLAIA JIMENEZ  
ETA AGURTZANE MARTINEZ

## 04 LANKIDETZAREN BALIOAK HEZKUNTZAN

Garai historiko honetako erronkei irtenbideak aurkitzean protagonista izango diren pertsonak behar dira. Hori lortzeko funtsezko erreminta hezkuntza da. Eta hezkuntza eredu honek, desafio horiei egoki erantzuteko, kooperatibismoaren eta autoeraketaren balio eta bereizgarriak jaso behar ditu. Izan ere, beren buruaren jabe izango diren eta lankidetzan jardungo duten pertsonak heztean dago gako nagusia.

LEIRE URIARTE, MIRENE ZUFIAURRE, AITZOL LOYOLA, ION LEZETA ETA AINARA UDAONDO

## 05 HAUR HEZKUNTZAREN ARLOKO ERRONKAK (HAZITEGI)

Hezkuntzak badu erronka hurrengo urteetan pertsona erdigunean jartzeko, haren ongizatea eta zoriontasuna erdigunean jartzeko. Ikasteko guneetatik bizitza espazioak eraikitzea izango da erronka, eta, horretarako, hainbat esparru aldatu beharko ditu. Espazioei dagokienez, bizitza espazioak sortu beharko lituzke, pertsonaren garapen momentuak eta beharrak aintzat hartuta. Denborari dagokionez, garapen momentu bakoitzari egokitu beharko litzaioke, eta, materialen eskaintzari dagokionez, objektu errealek eta haien funtzionaltasuna bermatu beharko lituzke. Antolakuntzari dagokionez, tradizioz dugun eredu hierarkikoak alde batera utzi, eta eredu parte-hartzaileak sustatu, irakasleak eta pertsonekin elkarrekintzan ari direnak gaitzeko, dependentziak saiheste aldera, pertsona askeak bultzatze aldera. Helburuei dagokienez, pertsona prototipo bat heztea alboratu beharko luke, instrukzioa eta irteera profilak alde batera utzita eta pertsonaren zoriontasuna helburu jarrita. Hori guztia beste gizarte bat eraikitze aldera, noski, gaur egungo gizartearen alternatiba izan dadin, mundu honetan gizateriaren etorkizun osasuntsuaren bidea behingoz hartzeko.

EIDER SALEGI, ITZIAR ARREGI, NAIARA ZIA, IÑAKI LARREA ETA ALEX BARANDIARAN

## 06 HEZKUNTZA ETA GORPUTZ HEZIKETA (HIZKUNTZA MOTORRA)

Gorputz hezkuntzaren erronka nagusia ezagutzaren eta teknologiaren gizarteak eragin duen hezkuntza eredu berriari erantzuten jakitea izango da, eta hori bere izaeratik eta nortasunetik abiatuta egin beharko du, ikasleen osasun soziala, fisikoa, mentala, emozionala eta intimoa zainduz eta garatuz; inoiz baino argiago, ikasleek hizkuntza motorra beharko dute, eta eskolak eta gizarteak agertoki aproposak eskaini beharko dizkie mugimenduaz gozatuz pertsona izaten ikas dezaten. Hori egiteko, beharrezkoa da ikuskerak, metodologiak, espazioak eta denborak egokitzea eta berritzea.

IZASKUN URIBESALGO

## 07 HEZKUNTZA ARTISTIKO TRANSDIZPLINARRA

Gure hezkuntza proiektuaren erronka nagusia ikasleek ikaskuntza-prozesu erreala –eta ez normatiboa– lor dezaten bideratzea da. Hezkuntzaren arloan beste narratiba batzuk garatu ahal izateko, artetik bideratutako eta artean oinarritutako metodologiak lantzen ditugu ikasgelan, 2011. ikasturtetik hona. Gizarteak –eta, ondorioz, hezkuntza-sistemak– arte-praktiken arloan arrastaka daramatzen hainbat paradigma zaharkitu, etekinzale edo dekoratiboren aurrean, arte-hezkuntza ulertzeko paradigma transdiziplinar batean lanean ari gara, eta horretan sinesten dugu. Era horretan, ohiko arte-diziplinak era soltean aplikatu baino gehiago, edozein ikasketa-prozesu abiatzeko metodologia modura ulertzen ditugu; ez eduki huts bezala, baizik eta hezkuntza-testuinguruetan –gure etxea, unibertsitateak, institutuak, ikastetxeak, museoak, aretoak, kaleak– egiteko eta egoteko modu bezala. Haurrak eta gazteak, ikasleak eta irakasleak ahalduntzen dituen irakaskuntza-prozesu emantzipatzaileak aktibatzea eta, bide horretatik, orain arteko bizipen- eta hezkuntza-artistikoen berrikuspen eta iraultze bat bultzatu nahi da, hizkuntza eta erreferentzia garaikideekin harremanetan jarri eta ahaldunduz, gure hiritartasun-estatusa lortzeko.

IXIAR ROZAS, ITZIAR IMAZ, BEÑAT RALLA, LEIRE ARANBURU ETA JOSERRA VITORIA

## 08 HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA MEDIATIKOA

Hezkuntza mediatikoaren inguruan izango ditugun erronka nagusiak honako hauek dira gure ustez:

- Pantailak, Internet eta medio berriak ikaste-irakaste prozesuetan integratu nahi baditugu, irakasle-rolak, ikasle-rolak eta ikaste-irakaste metodologiak egokitu beharko ditugu.
- Arduraz landu behar ditugu sare sozialen erabilera eta eraginak haurren ikaste-prozesuetan eta garapen pertsonalean.
- Erabiltzen eta partekatzen duten informazioarekiko jarrera kritikoa garatzen lagundu behar diegu ikasleei.
- Hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko elkarrekintza indartu behar dugu, ikasleek eskolatik kanpo ikasten dutena –gero eta biziagoa baita– gela barruko ikaste-irakaste prozesuekin uztartuz. Dimentsio hori gurasoekin lantzea oso interesgarria litzateke.
- Ikus-entzunezkoen erabilera eta ekoizpena gazteen ikaste-irakaste prozesuetan integratu behar dira.

Eskolak ere lagundu behar die gazteei euren identitate digitala era egokian garatzen.

ANDER BOLIBAR, MAITE GARCIA ETA TXEMA EGAÑA

## 09 HEZKUNTZA ETA EUSKAL KULTURA

Euskal Herriaren erronkei erantzungo dieten hezkuntza komunitateetako profesionalak euskara eta euskal kulturaren hezi nahi ditugun honetan, antzeman dugu erronka nagusietako bat euskal nortasuna sortu eta birsortzeko prozesuan dagoela. Horri aurre egiteko eremu ezberdinetan ekin beharra dago: kudeaketa akademikoan, jarreran eta motibazioan, curriculumaren arloan eta handik kanpokoan, eta irakasle identitatearen eraketa prozesuan Euskal kontzientzia soziokulturalean.

JULEN AREXOLALEIBA, NEKANE ARRATIBEL, LETICIA GARCIA, NEKANE GOIKOETXEA, JOXPI IRASTORZA, ASIER IRIZAR, AINHOA ODRIÓZOLA, IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ ETA IÑAKI URRUZOLA.

## 10 HEZKUNTZA ETA DIGITALIZAZIOA

Etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko aukerak (ber)disenatzea eskatzen zaigu behin eta berriz hezkuntza erakundeei. Horretarako ordea garrantzitsutzat jotzen dugu hezkuntzan digitalizazioak eskaintzen dituen aukerak esperimendatzea eta egiteko modu berriak ikuspegi ezberdinetatik ikertzea. Proiektu honen oinarrian beraz, (er)aldaketa digitalaren bidean hezkuntzak dituen erronkei aurre egiteko laguntza eskaintzea dago: ikertuz, hausnartuz eta esperimendatuz. Eta nola ez, kolaboratuz.

EDURNE GALINDEZ, TXEMA EGAÑA, BEGOÑA PEDROSA ETA NAGORE IPIÑA





**Mondragon  
Unibertsitatea**

**Humanitate eta  
Hezkuntza Zientzien  
Fakultatea**

**Eskoriatzako campusa**  
Dorleta z/g. 20540 Eskoriatza  
Tel. 943 71 41 57  
[harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)

**Aretxabaletako campusa**  
Otalora 31. 20550 Arretxabaleta  
Tel. 943 71 41 57  
[harrera.huhezi@mondragon.edu](mailto:harrera.huhezi@mondragon.edu)